
2015
BILDUMA
27

Errenteriako Udala
Ayuntamiento de Errenteria

www.errenteria.eus

# BILDUMA 27

Bilduma aldizkariaren ale monografiko honetan Zaida Fernández Pérezek eta Luz Maceira Ochoak Errenterian XIX eta XX. mendeetan insdustrializazio prozesuan emakumeek utzitako aztarnaren inguruan egindako lana bi hizkuntzetan eman da argitara. Lana 2012ko irailean hasi eta 2014aren hasieran amaitu zen eta Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluak bultzatu zuen. *Gaileta-egileak eta gehiago: bizipenetatik Historiara* izenburupean, material historikoa jaso da, baita oroimen kolektiboko saioetan modu aktiboan parte hartu duten hainbat emakumek egindako ekarpenak ere. Egindako azterketa bereziki da interesgarria, ikertu den garaiko gertaeren protagonisten ahotik bertatik jaso baitira oroimen eta esperientzia horiek.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
*Berdintasun Zuzendaritza Nagusia*
*Dirección General de Igualdad*

Errenteriako
Berdintasunerako Kontseilua
Consejo de Igualdad
de Errenteria

# GAILETA-EGILEAK ETA GEHIAGO: BIZIPENETATIK HISTORIARA

## Emakumeen aztarnak Errenteriako industrializazio-prozesuan (XIX. eta XX. mendeetan)

Zaida Fernández Pérez

Luz Maceira Ochoa

AZALA / PORTADA:
Adela Guillorme, 1945ean, arraina saltzen Xenpelar plazako merkatu zaharrean. (EUA A058F144).
Adela Guillorme, el año 1945, vendiendo pescado en el mercado viejo en la plaza Xenpelar. (AME A058F144).

BILDUMA:
Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzuaren aldizkaria. Errenteriako Udala

Erredakzio batzordea:
Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta
José Ramón Cruz Mundet
Leonor García Vázquez

Argitaratzen du:
Errenteriako Udala. Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzua.

Idazlanak, harpidetzak eta administrazioa:
Errenteriako Udal Agiritegia. Errenteriako Udala.
Herriko plaza z/g
20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)
Tfn.: 943 44 96 10
Fax: 943 44 96 60
E-mail: archivo@errenteria.eus

Banaketa:
ELKAR
Portuetxe 88,
20018 DONOSTIA
Tel. 943 31 03 01
Fax. 943 31 04 52
isors@elkar.com

Lege Gordailua: SS-301/90
I.S.S.N.: 0214-624X
BILDUMA (Errenteria)
Michelena artes gráficas, S.L. (Astigarraga - Gipuzkoa)

## Esker ona

Ikerketa-prozesuan parte hartu eta beren esperientziak, bizipenak, iritziak eta pasadizoak gurekin partekatu dituzten emakumeei. Eskerrik asko, guzti-guztiei, zuen historia pertsonal eta kolektiboaren zati bat gurekin partekatzeagatik. Errenteriako Berdintasun Kontseiluan parte hartzen dutenei, han jaio baitzen ekimen hau gauzatzeko interesa; udalerriko hainbat taldetako kideei: Bilgune Feminista, sindikatuak, *Gure Leku* eta *Gurekin* emakume taldeak, *Pakearen aldeko Taldea*, Pontikako, Galtzarabordako, Agustinetako, Olibeteko, Kaputxinoetako eta Gabierrotako erretiratuen elkarteak. Eskerrak, halaber, oroimen sozialeko proiektu honetan nork bere izenean parte hartu duten emakumeei. Aitorpen berezia egin nahi diegu Bittori Arrietari eta Karmele Fernández Bogari, proiektua sustatzeko eta lantaldea osatzeko eta mantentzeko egin duten lanagatik.

Eresbil kudeatzen duten langileei, bereziki Jon Baguesi eta soinuaz arduratzen den talde teknikoari, gure eskura jartzeagatik areto eroso bat. Bertan, elkartu eta oroitzeko aukera izan genuen, eta esku hartu genuen, hainbat modutan, informazioa dokumentatzeko zereginetan.

Errenteriako Udal Artxiboari eta Udal Liburutegiari, lan hau egiteko ezinbesteko materiala emateagatik.

Miguel Ángel Barcenilla historialari adituari, herriaren eta bertako emakumeen bilakaeraren gainean gogoeta egiteko eta gaiari buruzko ezagutzak partekatzeko prest egoteagatik.

Junkal Garcíari, proiektua erraztu duelako bere interes, kontaktu, ideia, dokumentu eta argazkiei esker, eta kultura-arloko guneari esker.

*Ahotsak* egitasmoari, ahozko material aberatsa dokumentatzeagatik eta gure ikerketa-proiektuan eta beste hainbatetan material lagungarri gisa erabiltzeko moduan jartzeagatik.

Savina Lafita lagunari, bildutako informazioa prozesatzen eta idazten kolaboratzaile argi, sortzaile eta eraginkorra izateagatik, eta aurkeztutako testuaren zenbait lerro idazteagatik.

Gema Mariezkurrenari, lan-prozesuan argazkilari gisa egindako lanagatik.

Lierni Gartziari, herriko emakumeekin industriaren ibilbidea egiteagatik.

# AURKIBIDEA


**SARRERA** ..... 11

**LAN-PROZESUA** ..... 17

**ERRENTERIA, HERRI INDUSTRIALA: KONTATU BEHARREKO HISTORIA** ..... 25

– Lehenengo fabrikak: 1845etik 1880ko hamarkadara arte ..... 27

– Industriaren goraldia: 1880tik 1910era arteko hamarkadak ..... 33

– Gorabeherak industrializazio-prozesuan eta herrian: XX. mendearen 20ko eta 30eko hamarkada ..... 50

– XX. mendearen erdialdea (1940-1960) ..... 66

– 1960-1975: industriaren garapen-garaia ..... 71

– Desindustrializazioa: 1975etik aurrera ..... 77

**EMAKUMEEN AZTARNAK INDUSTRIALIZAZIO-PROZESUAN, ETA INDUSTRIAREN AZTARNAK EMAKUMEENGAN** ..... 83

– Garai bateko oroitzapenak ..... 83

- Herriaren hedapenaren eta aldaketa etengabeen lekuko izatea ..... 85
- Bizimoduen gako batzuk ..... 88
- Industriari lotutako zerbitzuak eta jarduerak ..... 92
- “Bizitza horrelakoa zen” ..... 94

– Emakumeen aztarnak enpresa eta lantegietan .................... 99
• Emakume langileak .................... 99
• Sexuaren araberako lan-banaketa .................... 103
• Lanaren esanahiak .................... 105
• Lanaren aldaketak .................... 106
• Fabrikaren luzapena etxean .................... 107
• Itsasoko produktuen enpresak .................... 109
• Langileen eskubideen aldeko borroka .................... 111
• Lanetik harago .................... 114

– Emakumeen aztarnak beste jarduera ekonomiko batzuetan .................... 116
• Baserritarrak .................... 116
• Dendariak, saltzaileak eta “ekintzaileak” .................... 119
• Emakume enpresariak .................... 126
• Orratz arteko lanbideak .................... 127
• Ostalariak, zerbitzariak eta sukaldariak .................... 131
• Ugazabandreak .................... 132
• Garbitzaileak .................... 135
• Zaintzaileak .................... 139
• Eskulangintza eta beste manufaktura batzuk .................... 142
• Bitartekoak lortzeko beste jarduera batzuk .................... 143

**OROIMEN SOZIALEKO PROZESUARI BURUZKO GOGOETAK** .................... 147

**ONDORIOAK** .................... 153

**ITURRIAK** .................... 165

**ERANSKINAK** .................... 171

# SARRERA

XIX. mendean Errenteriak izandako industrializazio-prozesua gertaera garrantzitsutzat deskribatu izan dute, herriaren bilakaera markatu duen gertaeratzat[1]. “Manchester txikia” ezizena Errenteriari lotuta dago, eta bere izaera definitzen du. Hain zuzen ere, kazetariek erabili zuten izen hori, 1903an, bertako industriaren erakusketari buruz hitz egiteko[2]. Geroago, Miguel Ángel Barcenillak ikerketa bati titulu hura jarri zion. Herriak XX. mendearen bukaera arte mantendu zuen izaera industriala, eta XXI. mendean ere izaera horrek nolabait bizirik dirauela esan genezake. Izan ere, enpresa eta lantegi esanguratsuak aurki ditzakegu oraindik Errenterian. Euskal Industria Katalogoaren arabera, Errenteriako enpresa batzuek elikadura-industrian dihardute (ogia, hestebeteak, aurrez prestatutako janaria); beste batzuk gailu, material eta instalazio elektrikoen ekoizpen eta muntaketan aritzen dira; txapa metalikoetan, pinturan eta beste produktu batzuetan; horiez gainera, paper-fabrika ere bada.

Gaur egun, oraindik, herriko egutegietan, aldizkarietan eta herriaren irudiak erakusten dituzten beste bitarteko batzuetan askotan erabiltzen dituzte industrien logotipoak eta arkitektura, herriaren ikur bereizgarri gisa iraun dutenak.

Industrien inguruko alderdi asko herriaren nortasunaren jatorri dira. Tailerrek, lantegiek eta beste gune industrial batzuek, urteen joanean, herriaren paisaia osatu dute, eta, horregatik, Errenteriako belaunaldi askoren oroimenaren erreferentzia bihurtu dira. Hala eta guztiz ere, ez da batere ezaguna herriko emakumeek prozesu horretan izandako partaidetza, ezta industriaren eta herriaren

---

[1] GOÑI, Joseba: “¡La pequeña Manchester ya tiene su historia y su vate!”, *Oarso*, 35. zk., 2000, 172. or.

[2] *Ibidem*.

eraldaketa-prozesuak ia mende eta erdian emakumeen bizitzetan izandako eragina ere. Oro har, esan dezakegu historia ofiziala emakumeek eta mugimendu feministak herriari egindako ekarpen preziatua aintzat hartu gabe idatzi izan dela. Alegia, ez dira kontuan hartu emakumeen bizipenak, partaidetza, presentzia, esperientziak, lorpenak eta borrokak. Edo, aintzat hartu izan direnean, gehienetan, ez dute emakumeen eta feminismoaren esperientziak eskaintzen dizkigun alderdi, gune eta ekarpenek merezi eta behar duten tokia hartu. Ikerketa honetan, beste modu batera jokatu dugu: emakumeen eta talde feministen inplikazioa aintzatetsi nahi izan dugu, herriaren historiako agente eta subjektu aktibo baitira.

Herriaren historiaren bestelako ikuspegia proposatu nahi izan dugu, XX. mendean industrializazio-garaia ezagutu zuten emakumeen oroimenetik eta kontakizunetatik abiatuta. Horretarako, ikerketa-prozesuan herriko emakumeek beren bizipenak eta jarduerak kontatu dizkigute, garai edo gertaeren gainean dituzten ikuspuntuak partekatu dituzte, eta beren esanahia aztertu dute. Halako moldez, non haien kontakizunak Errenteriako emakumeen aztarnak identifikatzeko aukera eskaintzen baitigun.



“Galletas Olibet - La Ibérica” fabrikako langileak 1914. urte aldera. (Argazkia: *Álbum-gráfico-descriptivo del País Vascongado: años de 1914-1915*, 94. orrialdea).

Ez da lan historiografikoa, oroimen-lana baizik, hau da, helburua da pertsonak eta taldeak iraganarekin eta *euren oroitzapenekin* lotzea, haien borrokak, gertaerak eta gizarte-prozesuak berreskuratuz, askotariko esanahiarekin. Gizartea eraldatu nahi dugu, eta bertan eragin[3].

Esan dugunez, zenbait aztarna identifikatzera bideratutako lana da zehazki. “Emakumeen aztarnak”[4] emakumeentzat nabarmenak izan diren gertaera, gune eta uneen adierazpen sinboliko edota materialak dira. Nabarmenak, hainbat arrazoirengatik: garrantzi eta esanahi kolektiboa dutelako, luzaroan irauten duten gertaerak edo ekintzak direlako edo emakumeen ingurunean eragina izan dutelako.

Emakumeen aztarnak aztertzea eta proposatzea, berez, oroimen-lana da, talde zehatz baten oroimenari lotutako sorkuntza-prozesu aktibo eta produktiboa. Eta memoria sortzeko oinarriak ezartzen ditu, aukera eskaintzen duelako, batetik, oroitzapenen gainean eztabaidatzeko eta horiei esanahi kolektibo bat emateko, bestetik, oroitzapen horiek agenda eta dinamika publikoan txertatzeko, eta azkenik, oroitzapen horiei merezi duten aitorpen soziala emateko[5].

Emakumeen aztarnak industrializazio-prozesuan azpimarratzea erabaki dugu, izan ere, prozesu hori herriaren historiako garai garrantzitsuenetako bat da. Hori dela eta, prozesu horretan emakumeek izan zuten protagonismoa nabarmendu nahi genuke.

Aztarnen kontzeptuaren bidez, arreta berezia eskain diezaiekegu emakumeen ekintzak herriko bizitzaren hainbat eremutan eta inguruko genero-rol eta harremanetan utzitako arrastoei, lausoak edo ahaztuak batzuetan, eta oso garbiak beste batzuetan. Ekintza agian txiki baina iraunkorren emaitzak edo lorpen handien emaitzak aztertzea lagungarria da jarduera eta zeregin ugari jardun etengabe baten aztarnatzat ulertzeko, denboran barrena lotuta dagoen jarduna, eta, hortaz, gizarte baten esperientziaren eta ikaskuntzen orainarekin eta etorkizunarekin konektatua.

---

[3] MACEIRA OCHOA, Luz: *Museo, memoria y derechos humanos: itinerarios para su visita*, *Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*. Bilbao: Universidad de Deusto, 2012, 17., 25. or.

[4] FERNÁNDEZ, Zaida: *Mapa de las Huellas de las Mujeres en Basauri*, Ayuntamiento de Basauri, Basauri, 2011.

[5] MACEIRA OCHOA, Luz: *Museo… op. cit.,* 25.-26. or.



IX. Argazki erakusketaren "Errenteriako seme-alabak: Niessen (1951-1966). Entxufe baten istoria" katalogoa[6].

Emakumeen bizitza, ekintzak eta aztarnak herriaren industrializazio-prozesuarekin eta garapenarekin nola lotzen diren ulertzeko, funtsezkoa da prozesu horri ikuspegi zabal batetik erreparatzea. Ikuspegi horrek barne hartzen ditu hainbat dimentsio eta espazio: batetik, fabrikak eta enpresa handiak, urteen joanean milaka pertsonari enplegua eman zietenak eta eragile ekonomiko indartsua izan zirenak; bestetik, industria txikia, oinarriko ekonomia, bultzada eta laguntza ekarri zituena, eskainitako oinarrizko produktu eta zerbitzu guztiekin; eta, azkenik, erreprodukzioaren edo zaintzaren ekonomia. Azken horren barruan daude ia beti gutxietsi izan diren arren herritarren biziraupena bermatzen duten eginkizunak: etxeko lanak, jatekoa eta arropa garbia edukitzeko aukera eta zaintza mota

[6] Testu honetan azaltzen diren argazki historikoak eta publizitate-irudiak hainbat iturritatik eskuratu ditugu: Errenteriako Udal Artxiboa, industria eta erakusketetako katalogoak, udal-argitalpenak, webguneak, etab. Beste batzuk Errenteriako Udal Artxiboko espedienteetatik hartu ditugu.

oro jasotzeko aukera ematen digutenak. Beste era batera esanda, onartu egiten da oso garrantzitsua dela industria eta hari lotutako prozesuak modu integralean aztertzea, eta industrializazioaren inguruan garapen-kontzeptu malguagoa eta inklusiboagoa proposatzea, hots, emakumeek garatutako bestelako jarduerak ikusaraziko dituen kontzeptua. Bide horretan, emakume langileen esperientziak, bai elikagaiak lantzen edo ekoizten dituztenenak, bai lan "informalak" eta ezkutuko ekonomiako beste lan batzuk egiten dituztenenak, lagungarriak izango dira emakumeek historia industrialean egindako urratsak eta utzitako aztarnak ulertzeko.

Industriaren garapenak bi menderen arteko epe luzea hartzen badu ere, lan honetan zuzeneko oroitzapena nabarmentzen da, garai horretan bizitako emakumeek kontatutako esperientziak. Haien kontakizunen bidez argi eta garbi ezagutu dezakegu nola aldatu zen herria, nola aldatu ziren hiri-diseinua, harreman sozialak, bizitza ekonomikoa eta industria-sarea. Garai horretan nabarmena izan zen emakumeen protagonismoa, haiek ere eraiki baitzuten enpresez, berrikuntzez eta lanez betetako iragan eta paisaia hura.

Hainbat hilabete eta saiotan, emakumeek partekatutako informazio zabala bildu dugu. Askotariko emakumeak elkartu ditugu, adin, bizipen eta lan-ibilbide ugaritakoak. Haien ahotsak testuan txertatu ditugu, zuzeneko testigantzen bidez. Testigantzek ez dute emakume horien bizitza pertsonala bakarrik adierazten; haien aztarnei buruzko ikerketa hau gorpuzten dute, egiturari eta edukiari dagokionez.

Herriko eta herrian aritutako emakume langileen oroimen kolektiboa berreskuratu egin behar da, eta beste talde eta belaunaldi batzuei ezagutzera eman; izan ere, herriaren iraganari buruzko ezagutza sozialeko ekarpen baliotsua da, bertako historia nahiz historiografiaren gaineko eta bertako emakumeen gaineko bestelako ikuspegi bat, oroimen-lan esanguratsu bat.

Emakumeen kontakizunekin batera ageri dira datu historikoak eta bertako historian adituak direnen ekarpenak, Errenteriako industrializazio-prozesu luzean emakumeen bizitzan eta lanean esanguratsuak izan diren zenbait elementuri buruzkoak.

Dokumentu honen eduki nagusia bi atal handitan banatu dugu: lehenengo atalean, "Errenteria, herri industriala: kontatu beharreko historia", XIX. mendetik XX. mendearen azken laurdenera arteko gertaera historikoak jaso ditugu. Edukiaren zatirik handiena bigarren mailako iturrietatik (bibliografikoak eta dokumentalak) jasotakoa da. Hala ere, gertakizun eta data batzuk emakume elkarrizketatuen oroitzapenak dira. Atal horretan, testuinguruko hainbat

elementu aurkeztu ditugu, eta baita herriaren industrializazio-prozesuarekin lotutako gako historikoak ere.

Bigarren atalean, “Emakumeen aztarnak industrializazio-prozesuan, eta industriaren aztarnak emakumeengan”, iturri nagusia taldeko oroitzapen-prozesuan eraikitako eta bildutako kontakizunak dira, hau da, emakume langileen ahotsak. Lan-esperientzia propioa kontatzeaz gain, emakumeen lanbideak identifikatu dituzte, baita emakumeen presentzia nabarmena izan zuten beste jarduera ekonomiko eta espazio batzuk ere. Horiek gogora ekarrita, herriaren garapenean betetako eginkizunari buruz hausnartu dute.



Emakumeen lan-taldea. (Argazkia: Gema Mariezkurrena).

# LAN-PROZESUA

Lan honetan jasotako kontakizuna hainbat hilabetetako proiektu baten emaitza da, eta proiektu hori Udaleko Berdintasun Sailaren baitan kokatuta dago. Errenteriako Berdintasun Kontseiluak herriko historia eta memoria berreraiki nahi zuen genero-ikuspegia aintzat hartuta, eta, interes horri erantzuteko, Berdintasun Sailak beharrezko izapideak egin zituen zenbait ekimen babesteko eta sustatzeko, proiektu hau, besteak beste.

Lan- eta ikerketa-prozesuak fase bat baino gehiago izan zituen: prestaketarako fasea, ikerketarako fasea eta kontrasterako eta atzeralikadurarako fasea.

Lehenengoa, prestaketarako eta sentsibilizaziorako fasea, 2012ko irailetik 2013. urtearen hasierara arte garatu genuen. Etapa horretan, harremanetan jarri ginen herriko hainbat emakumerekin: talde feministak, Berdintasun Kontseilua eta Udaleko teknikariak eta politikariak, zehazki, Maite Blanco, berdintasunerako teknikaria, eta Garazi Lopez de Etxezarreta, Berdintasun Saileko zinegotzia. Gure asmoa zen proiektua mugatzea, lehentasunezko lerroak eta proiektua garatzeko kontuan hartu beharreko testuinguruzko baldintza batzuk identifikatzea. Halaber, zenbait dokumentutan bilaketak egin genituen, ikerketa-prozesua bideratzeko. Hori guztia abiapuntutzat hartuta, erabil zitekeen metodologia finkatu genuen, baita proiektuan jarduteko modua ere.

Horrez gainera, zenbait hitzaldi antolatu genituen, herritarrak proiektu honetan parte hartzera gonbidatzeko, eta ekitaldi publiko bat ere egin genuen, ekimena aurkezteko.

Hurrengo fasean, ikerketan, lan egiteko talde bat osatzea lortu genuen: hainbat ezaugarri eta ibilbidetako emakumeak ziren, eta oroimen kolektiboko saioen bidez

beren ezagutzak, bizipenak, kontakizunak eta emakumeek herriko industrializazio-prozesuan utzitako aztarnen gaineko iritziak trukatzeko prest zeuden. Emakume horiek oinarrizko edo erreferentziazko talde moduko bat izan ziren. Otsailetik aurrera hasi ginen talde horrekin aldizkako lana egiten, eta 2013ko azarora arte aritu ginen horretan, intentsitate handiagoz edo txikiagoz, unearen arabera.

Metodologia partizipatiboa erabili genuen, eztabaidarako eta trukerako espazioen bidez eta elkarrizketa kolektiboak eginez partaide bakoitzak iraganeko gertaerei buruzko ideiak, pasadizoak, oroitzapenak, iritziak eta ikuspegiak adierazteko, eta informazioa trukatzeko. Betiere, zenbait galdera abiapuntutzat hartuta eta oroimena pizteko teknikak baliatuz, ikerketaren helburuarekin lotutako gai orokorrak lantzeko, eta, batzuetan, aurretiko eztabaidetatik edo iturri dokumentalen azterketatik sortutako gai zehatz batzuk. Horrez gainera, emakume batzuek argazkiak eta dokumentuak ekarri zituzten saioetara, eta horiek baliagarriak izan ziren taldearen elkarrizketa sustatzeko, edo ikerketarako iturri gisa.



Lan-saioa. (Argazkia: Luz Maceira Ochoa).

Taldea pertsona berrientzat irekita egon zen prozesu osoan, egoki iritzi baikenion, bai metodologiaren aldetik, bai gaien aberasgarritasunaren aldetik. Herriaren iraganari buruzko elkarrizketa eta lan-esperientzia pertsonalen trukea aberastu eta zabaldu egin zitezkeen etengabe, hortaz, ez zen ezinbestekoa izan oroimen kolektiboko taldean hasieratik parte hartzea. Hala bada, espazio ireki eta eroso bat eraiki genuen, eta emakumeek askatasuna izan zuten bertara joateko eta beste herritar, lagun, senide edo lankide ohi batzuk gonbidatzeko, eta interesgarriak iruditzen zitzaizkien gaiez mintzatu ziren. Saio horietan bildu genuen landako informazio gehiena.

Landa-lana hiru espazio eta dinamikatan egin genuen: nagusia, aipatutako oinarrizko taldea izan zen, baina beste bi espazio ere izan ziren.

Espazio horietako batean, aurretik deskribatutakoen antzeko saio bana egin genuen hainbat talderekin, baina ez zen prozesu bat izan, saio bakarra baizik, jarraipenik gabea. Modu horretan lan egin genuen Errenteriako zenbait auzotako talde batzuekin, Agustinetako, Pontikako, Kaputxinoetako, Gabierrotako eta Galtzarabordako erretiratu-elkarteen inguruan deituak eta egituratuak. Eta baita sindikalista talde txiki batekin ere. Saio horien helburua oinarrizko taldean jasotakoa kontrastatzea zen, batetik, eta informazioa emango zuten taldeen hedadura geografikoa zein soziologikoa eta gaien hedadura zabaltzea, bestetik.

Hirugarren espazioak eta dinamikak pertsona edo talde “aditu” batzuen lankidetza izan zuen oinarri. Horien artean, Errenteriako feministen talde txiki bat, aktiboki parte hartu zuena proiektuaren diseinuan eta sustapenean, eta herriaren errealitatearekiko lotura zuzena izan zena. Udaleko pertsona batzuk edo ikerketaren testuingurua edo gaiak ezagutzen dituztenak erreferentzia espezializatua izan ziren proiektuaren zenbait etapatan, eta lagundu egin ziguten kontaktuak bilatzen, eta informazioa dokumentatzen edo kontrastatzen. Batzuetan, lan-elkarrizketen bidez egin genuen hori; beste batzuetan, elkarrizketa pertsonalen bidez, eta, beste batzuetan, bitarteko birtualak, telefonoa edo bestelako komunikabideak erabilita. Eta tokiko historian adituak ere elkarrizketatu genituen, hala nola Miguel Ángel Barcenilla.

Landa-prozesua amaitzeko, ibilaldi gidatu bat egin genuen Errenteriako erdigunetik. Herriaren historiari eta haren iragan industrialari buruz hitz egin zen bertan, eta elkarren artean bizitza ekonomiko, sozial, kultural eta laboraleko zenbait elementu kokatu eta gogoratu genituen. Ibilaldia 2013ko azaroaren 8an izan zen, eta Lierni Gartzia izan genuen gidari. Interesa zuen pertsona orok izan zuen parte hartzeko aukera, eta informazio gehiago biltzeko balio izan zuen, baita erreferentziazko hainbat espaziotako emakumeekin harremanetan jartzeko eta egiten ari ginen prozesua beste pertsona batzuei ezagutzera emateko ere.





Ibilbidea Errenteria industrialean barrena. (Argazkiak: Luz Maceira Ochoa).

Ibilbidea amaitzean, jarduera bat egin genuen Merkatuzarren, non ikusgai zeuden 1954ko erakusketa industrialaren urteurrena oroitzeko antolatu zuten erakusketako panel batzuk, Udaleko Kultura Sailaren baitakoak.





Erakusketako panelak ikusten. (Argazkiak: Luz Maceira Ochoa).

Era berean, ikerketa-fasean barrena lana osatu genuen, dokumentuak bilatuz eta artxiboak nahiz bibliografia aztertuz.

Elementu osagarri bat, oso garrantzitsua, *Ahotsak* ahozko artxiboaren lana izan zen. Errenteriako zenbait emakumeri egindako 20 elkarrizketa baino gehiagoren material osoa lortu genuen, eta informazio-iturri ezinbestekoa izan zen[7].

[7] Ikusi *Ahotsak* proiektuaren webgunea: www.ahotsak.com

Prozesuaren azken fasea ikerketaren atzeraelikadura izan zen. Metodologia partizipatiboaren baitan gauzatutako lana kontrastatzeko prozesu bat garatu genuen. Horretarako ere zenbait estrategia erabili genituen. Batetik, hainbat adituk edo herria eta bere dinamika ongi ezagutzen duten pertsonak bildutako informazioa aztertu zuten, hura zehazten eta egiaztatzen laguntzeko; halaber, Errenteriako Berdintasun Kontseiluari eta oinarrizko taldeko partaideei ere aurkeztu genien dokumentua, atzeraelikadura egiteko edo ñabardurak nahiz aldaketak eransteko. Bestetik, emakumeen aztarnen gainean eztabaidatzeko lan kolektiboa egin genuen. Hainbat belaunalditako pertsonek truke-lana egin zuten (horretan aritu ziren guztiek ez zuten landa-laneko prozesuan parte hartu), eta galderak egin zizkieten protagonistei eta aztarnen berri eman zutenei (oinarrizko taldea). Jardun horri esker, ideiak trukatu zituzten, eta gaiak sakontzeko, iritziak partekatzeko eta emakumeen aztarnei buruzko lehen bertsioari ekarpenak egiteko aukera izan genuen. Bereziki interesgarria izan zen Koldo Mitxelena Institutuko pertsonalak saio horri emandako erantzuna. Horrez gainera, dokumentua zabaldu genuen, eta iradokizunak eta materialak jaso genituen posta elektronikoz.

## Taldeen ezaugarri orokorrak

Oinarrizko taldeak 17 partaide izan zituen, baina haien presentzia ez zen jarraitua izan. 8 edo 9 emakumek parte hartzen zuten, batez beste, saio bakoitzean; hortaz, komunikazioa eta elkarrizketa arinak ziren, eta partaide bakoitzak bazuen nahikoa denbora hitz egiteko. Landa-laneko gainerako saioetan (erretiratuen elkarteak eta sindikalistak) 34 emakume gehiagok eta 10 gizonek parte hartu zuten. Beraz, esan dezakegu guztira 60 pertsonak baino gehiagok lagundu zigutela kontakizun hau eratzen. Kopuru horri beste 23 emakume gehitu behar zaizkio, *Ahotsak* proiektutik ateratako lekukotzak, hain zuzen ere. Ondorioz, informazioa dokumentatu zuten taldeetan herritarren ordezkaritza nahiko zabala eta anitza zegoela esan dezakegu.

Oro har, talde guztietako partaideak adinekoak ziren; gazteek ez zuten apenas parte hartu. Aztertutako garaia nahiko urrun geratzen denez, batez ere jende nagusiak parte hartu zuen oroimen kolektiboko prozesuan. Adina ez zen taldeetan parte hartu ahal izateko nahitaezko baldintza, baina partaideetako askok 60 urtetik gora zeuzkaten, proiektuan esku hartzen hasi ziren emakumeen kontaktu gehienak adin-tarte horretako pertsonak baitziren. Feministak eta sindikalistak izan ziren partaide gazteenetako batzuk, baina, orokorrean, 42 eta 83 urte bitarte zituzten partaideek (landa-laneko hiru espazioetako partaideak).

Taldean parte hartu zuten emakume askok Berdintasun Kontseiluan edota emakume-elkarteetan, auzo-elkarteetan, gobernuz kanpoko erakundeetan eta elkarte

feministetan ere parte hartzen dute. Hala ere, beste partaide batzuek ez dute loturarik elkarte horiekin, eta erretiratuak edo etxekoandreak dira. Nagusi gehienek lan egin zuten 1950eko hamarkadan eta aurreko garaietan. Batzuek lana utzi zuten ezkontzerakoan; beste emakume batzuek, ordea, ez. Batzuek hurrengo hamarkadetan lan egin zuten, 1970eko hamarkadaren amaierara arte. Eta beste batzuek, gazteenek, ez zuten belaunaldi eta esperientzia hori bizi izan, baina iragana eta Errenteriako emakumeei gertatutakoa ezagutzeko gogoa zuten. Emakume horiek enpresetan lan egin zuten, handietan eta txikietan, eta tailerretan, Eduardo Nogués, La Palmera, Esmalteria, Pakers, Paisa, Niessen, Carassa eta Fabril Lanera enpresetan, besteak beste. Batzuk Errenterian, Oiartzunen edo inguruko beste herri batzuetan jaiotakoak dira; beste bat Iruñean jaioa, baina Gerra Zibila baino lehen iritsi zen Errenteriara; beste bat Galiziatik etorritakoa da; eta beste batzuk immigrazio-garaian etorri ziren, XX. mendearen azkeneko hamarkadetan.





Lantaldearekin saioa. (Argazkiak: Gema Mariezkurrena).

*Ahotsak* artxibotik hartutako elkarrizketak 1920tik 1940ra arteko hamarkadetan jaiotako errenteriar emakumeei egindakoak dira. Hortaz, Errenteriako industrializazio-prozesuaren garaian lan egin zuten.

Erretiratuen elkarteekin saioren bat egin genuen. Bertako kideek 65 urte baino gehiago zituzten. 1960tik 1980ra bitartean lan egin zuten; batzuek aurreko urteetan ere bai. Galletas Packers fabrikan, destilategian, Sin Rival izeneko tindategian, Niessenen, Fabril Lanera fabrikan, manta-fabrikan, Luzuriagan, Esmaltería Guipuzcoana enpresan, Tejidos de Lino lantegian, Pekinen, Paisan, Carassa laborategietan, Oarso paper-fabrikan, Simil Cuero enpresan, garbiketako fabriketan eta hainbat bakailao-fabriketan ibilitako emakumeek eta langile ohien alabek hartu zuten parte saioetan. Eta, baita ere, baserritar batek, etxeetako langile batzuek, zenbait jostunek, zerbitzarik, negozio txikietako dendarik (torloju-denda, elektrizitateko elementuak), espartingilek eta elikagai-denden edo saltokitxoen (gaztainak, karameluak, ogitartekoak) arduradunek. Batek Hernaniko paper-fabrikan lan egin zuen, eta beste batek, Zumarragako galdategian. Gizonei dagokienez, mekanikari batek, arotz batek eta Luzuriagan eta Paisan lan egin zuten batzuek parte hartu zuten.

Talde horietako pertsonak hainbat hiri eta erkidegotatik etorriak ziren: Caceres, Nafarroa, Segovia, Leon, Palentzia, Galizia, Valladolid, Burgos, Salamanca eta Errioxa, besteak beste. Kasu askotan, garai hartako auzo eta etxebizitza berrietara etorri ziren, eta gaur egun, oraindik, haietan bizi dira.

Sindikalisten talde txiki bat ere izan genuen: LABeko bi emakume eta CCOOko gizon bat. 40-50 urte inguru zituzten guztiek.

Talde guztien partaidetza borondatezkoa izan zen. Gehienetan, deialdi irekiak egin ziren, kartelen bidez edo auzo-elkarteetako eta erretiratuen elkarteetako bestelako baliabideen bidez, Udaleko Berdintasun Sailaren kontura. Ahoz ahoko deialdiak ere egin ziren, izan ere, prozesuko partaide batzuek beste emakume batzuk gonbidatu zituzten parte hartzera.

Ikus dezakegunez, hemen jasotako ahotsak emakume “ezezagunenak” dira: herritarrak, erretiratuak, etxekoandreak, artisauak, saltzaileak, haurtzainak, sindikalistak, aktibistak, ekintzaileak eta langileak. Ez dira historialariak, politikariak, idazleak, artistak edo entzute handiko herritar aitortuak. Baina oso-oso garrantzitsuak izan ziren herriaren eraikuntzan eta bertako industrializazio-prozesuan.

# ERRENTERIA, HERRI INDUSTRIALA: KONTATU BEHARREKO HISTORIA

Atal honetan, Errenteriako garapen ekonomiko eta industrialaren laburpen bat egingo dugu, baina interes berezia eskainita emakumeek historia horretan izan zuten presentziari. Herriaren iragan industrialaren gainean asko idatzi bada ere, ezer gutxi aipatu da emakumeek prozesu horretan izandako garrantziari buruz. Eta kontatu beharreko historia da hori.

Mende batetik gorako historia da, herriaren eta herritarren bizitzan modu askotan eragin duena, iraganeko kontua izan arren.

Hemen laburbilduta datoz bilakaera horretan emakumeekin zer gertatu zen ulertzeko alderdi nagusiak, lagungarriak, halaber, iragan hori emakumeei esker gertatu zela ulertzeko. Emakumeek subjektu historiko gisa aztarnak utzi dituzten hainbat espazio eta garai identifikatu ditugu, espazio hauek, besteak beste: baserriak, etxeak, lantegiak eta enpresak, dendak, garbitokiak, langileen mobilizazioak, gizarte-elkarteak eta beste hainbat kolektibo non lan egin eta arrastoa utzi zuten.

Zenbait garai aztertuta, egiazta dezakegu desberdintasun-egoerek eta genero-diskurtsoek nahiz -harremanek eragina izan zutela emakumeen bizitzan eta lan egiteko moduan, baina, era berean, argi ikus dezakegu aztarna garrantzitsu bat, hots, emakumeek eragina izan zutela udalerriaren bilakaeran, diskriminazio-moduak ugariak izan arren, edo horiei aurre eginez.



La Papelera Española fabrika (1919ko *Rentería* aldizkarian).

Laburpen hau sei garaitan banatuta dago. Banaketa hori egiteko, aintzat hartu dugu industriek zer-nolako dinamika zuten herrian eta zer-nolako lotura bizitza sozial, politiko eta ekonomikoarekin. Hauek dira sei aldiak:

– Lehenengo fabrikak: 1845etik 1880ko hamarkadara arte.

– Industriaren goraldia: 1880tik 1910era arteko hamarkadak.

– Gorabeherak industrializazio-prozesuan eta herrian: XX. mendearen 20ko eta 30eko hamarkadak.

– XX. mendearen erdialdea (1940-1960).

– 1960-1975: industriaren garapen-garaia.

– Desindustrializazioa: 1975etik aurrera.

Atal honen xedea da zenbait garaitako emakumeen lana eta aztarnak hainbat belaunalditan barrena lotuko dituen ibilbide bat zirriborratzea. Ikerketa honen izaeragatik, eta interes berezia duelako euren kontakizuna eraiki dezaketen emakumeen lekukotzak jasotzeko, azterketa historiografikoa landako lanaren mende jarri

dugu. “Lasterbide” gisa, artxibo historikoak eta jatorrizko beste iturri batzuk baino gehiago erabili ditugu erraz eskura daitezkeen iturri bibliografikoak. Industriaren historia genero-ikuspegia aintzat hartuta berridaztea edo kontatzea denbora eta ahalegin handia merezi dituen lana da, azterlan honetan egindakotik harago doana. Hori dela eta, bigarren mailako iturriak izan ditugu material nagusi, garai historiko luze bateko gakoen eta emakumeek garai horretan utzitako aztarnen laburpen bat proposatzeko.

## Lehenengo fabrikak: 1845etik 1880ko hamarkadara arte

Errenteria landako herria izan zen XIX. mendearen erdialdera arte. 1802an, biztanleen erdiek baino gehiagok egiten zituzten nekazaritzarekin eta arrantzarekin lotutako lanak[8]. Herritarren bizi-eremu nagusia baserria zen, eta familia-eredu bereizgarria, familia tradizional zabala, hainbat belaunalditako senitartekoak espazio berean biltzen zituena. Baserriaren ustiapen tradizionalean beharrezkoa zen eskulan intentsiboa, eta, hortaz, familiako kide guztiek lan egiten zuten horretan, haurrek barne, eta emakumeek funtsezko eginkizuna zeukaten.

Ordurako, bazen meatzaritzako eta ontzigintzako industria txiki bat. Baina 1845ean hasi zen herriaren industrializazioa, Errenteriako lehen lantegi modernoa instalatu zutenean: Sociedad de Tejidos de Lino enpresa, herritarren artean “Fabrika Handia” izenez ezaguna. Lantegiaren ur-iturria lantegia bera baino askoz lehenago Beingoerrotako fanderiarako eraikitako ubide bat zen, ibaiko ura Fanderian hartzen zuena. Gaur egun, Agirre Lehendakariaren plaza dago fabrika egon zen tokian. Lantegi haren sorrerak ez zuen industria herriko ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren eragile nagusi bilakatu, baina industrializazio-prozesuaren hedapenaren erreferentzia nagusitzat har daitekeen gertaera izan zen.

1845etik 1859ra bitartean, hainbat neurritako sei lantegi ireki zituzten herrian. Real Compañía Asturiana izenekoa berunaren galdaketan aritzen zen, eta Saturio y Timoteo Arizmendi izenekoa, berriz, larru-zurraketan. Horiek biak salbuespena izan ziren: gainerako lau lantegietan lihozko ehunak egiten zituzten, eta emakumeek presentzia nabarmena zuten.

---

[8] BARCENILLA, Miguel Ángel: “Industria gizartearen hasiera”, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta (zuz.), *Errenteriako Historia*, Errenteriako Udaleko Kultur Batzordea, 1996, 178. or.

**Lehen lantegiak**

Sociedad de Tejidos de Lino (1845)
Salvador Echeverría y Cía. (1855)
Sorondo Primos (1857)
Gamón Hermanos (1858)
Saturio y Timoteo Arizmendi (1858)
Real Compañía Asturiana (1859)

1850erako, Fabrika Handiak 500 langile zeuzkan, gizon eta emakume, eta 1861erako salgai berdina ekoizten zuten beste hiru enpresa zeuden herrian. Lantegi horietako ehungailu gehienetan emakumeak aritzen ziren, eta ia guztiek makina bat baino gehiago izaten zuten beren ardurapean; arreta eta koordinazio handia behar zituzten horretarako. Emakume horiei "telariak" esaten zieten. Emakumeek presentzia handia izan zuten Errenteriako lehen lantegi moderno haietan. Urte hartan, 361 emakumek lan egiten zuten herriko fabriketan, hau da, langileen % 40 emakumeak ziren.

Zenbait faktorek eragin zuten Errenterian industria sortzea eta garatzea. 1841ean Esparteroren gobernuak aduanak mugara lekualdatzea agindu zuen, eta euskal lurralde foralak Espainiako barne-merkatuaren barruan geratu ziren, kanpoko lehiatik oso babestuta muga-zerga handien bidez. Horrez gainera, Oarsoaldeak industriarako oinarrizko elementuak zeuzkan: ur ugari, itsasoko garraioa, antzinako industria tradizionaletik jasotako aktiboak (burdina lantzeko burdinolak eta fanderiak), biztanle-dentsitate handia eta aurreko industriari lotutako egitura komertziala. Portuak eta trenak berebiziko garrantzia izan zuten. 1863an azken hori inauguratu zutenean, merkeago garraiatu ahal izan zituzten salgaiak penintsulako barnealdeko hirietara, garaiko merkatu nagusira, eta arindu egin zen gizon-emakumeen nahiz salgaien fluxua, ordura arte ere portuak sustatua.

Pixkanaka, lantegi modernoek tokia hartu zioten lantegi tradizionalen ereduari, eta horiexek izan ziren industrializazioaren protagonista eta ikur:

> Constituyó un nuevo tipo de factorías, diferentes de los talleres artesanales y de las manufacturas tradicionales precapitalistas. Se distingue de ellos por su mayor tamaño (…) por su arquitectura imponente y por el empleo casi exclusivo de operarios asalariados, que a diferencia de la época preindustrial, no tienen la posesión ni el control de los medios de producción, ni del tiempo de trabajo[9].

[9] BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado de Oarsoaldea. Vivir entre fábricas", *100 urteko garapena Errenterian eta bere eskualdean*, Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Agentzia eta Errenteriako Udala, 2004, 17. or.

## Herribildua aldatu eta handitu egin zen

Industrializazioaren hasierak eta haren testuinguruak ondorio zuzena izan zuten biztanlerian: hazi egin zen, etorkinen ondorioz. Miguel Ángel Barcenillaren hitzetan, hogeita hamar bat urtean, 1845etik 1875era, jendeak herritik alde egiteari utzi, eta biztanle berriak iritsi ziren. Erroldan erregistratutako etorkinen % 80 garai hartan iritsi ziren herrira, industriak sortzen hasi zirenean[10].

Errenteriako lehen belaunaldiko industria hartan jardun zuten langileak hurbileko landagunetik zetozen, nagusiki, bai herriko zein inguruko baserrietatik, bai ondoko herrietatik: Oiartzun, Lezo, Altza, Pasaia, Arano eta Goizueta. "Oiartzunetik soilik etorritakoak 391 ziren"[11]. Jende gehiena inguruko tokietakoa bazen ere, Nafarroako biztanleak herrira etortzen hasi ziren pixkanaka.

Industrializazioak berekin ekarri zituen hirigintzako aldaketak. Historian barrena, herriguneak handitu egin izan dira lantegien sorreraren ondorioz. Biztanleria hazi egin delako eta haien beharrak asetzeko zerbitzuak behar direlako gertatu da hori. Hala bada, herrian industriak ezarri heinean, erdigunetik kanpo geratu ziren nekazaritzako jarduerak, eta, herria hedatu ahal izateko, eraitsi egin behar izan zuten harresia, herribilduen bereizgarria.

Espazio kontuetatik harago, harresia botatzeak pentsamoldearen aldaketa irudikatzen du, harresiek nolabaiteko estatusa ematen baitzieten antzina herriei, eta XIX. mendean "modernotasun zeinutzat zeukaten oro har, populazioaren ahalmen frogatzat, harresiak eraistea"[12].

Hirian izandako beste aldaketa bat etxebizitzen egituran eta banaketan gertatu zen: "Denborarekin, behe gehienetan zeuden ukuiluek leku egin zieten dendei, tailerrei eta langileen etxebizitzei, eta pisuak familia askoren artean banatu ziren"[13].

Gizartean eta lanean ere izan zen aldaketarik, eta pixkanaka merkataritza hedatuz joan zen, eta askotariko lanbide eta langintzak sortu ziren. Erroldak erakusten duenez, gero eta gehiago ziren zerbitzuen sektorean aritzen zirenak, hau da, industriakoak eta nekazaritzakoak ez ziren bestelako jarduera ekonomiko eta lanbide batzuetan: 1871n, 260 pertsonak zuten horrelako jarduera ekonomiko

---

[10] BARCENILLA, Miguel Ángel: "Industria gizartearen…", *op. cit.,* 171. or.

[11] *Ibidem*.

[12] *Ibidem,* 173. or.

[13] *Ibidem*, 174. or.

bat[14]. Apurka-apurka, denden eta lantegi txikien kopuruak ere gora egin zuen; gehienak familia-negozioak ziren, eta herrigunean kokatuta zeuden.

Lanbide horiek betetzen zituztenetako asko emakumeak ziren. Neskame eta haurtzain gisa aritu ziren, baina baita merkatari, saltzaile, maistra, jostun eta erizain gisa ere, eta Errenteria handitu heinean indarra eta garrantzia hartzen joan ziren beste ogibide batzuetan ere jardun zuten.

Balbina Etxeberriarena eta Leonardo Lecuonarena adibide argia da. 1858an, familia-negozio txiki bat ireki zuten, okindegi bat, Errenteriako Erdiko kaleko 6. zenbakian. Lantegi bat zuten, egurrezko labe eta guzti, eta han bertan saltzen zituzten euren produktuak. Balbina arduratzen zen negozioaz[15]. Negozio horrek 150 urte baino gehiago iraun zuen, eta urteek aurrera egin ahala asko handitu zen, okindegi industrial handi bat izatera iritsi arte.

Lekuona okindegiak, duela mende bat baino gehiagoko emakumeen lana erakusteaz gain, herrian gertatutako aldaketa bat irudikatzen du, bizimoduaren alderdi batean izandako aldaketa, hots, elikaduran. Herrian okindegi hura eta beste batzuk sortu eta hedatu ziren, eta, aldi berean, gari-ogiak arto-ogia ordeztu zuen biztanleen dietan[16].

## Baserria

Nekazaritzan eta arrantzan ziharduten biztanleen kopuruak nabarmen egin zuen behera XIX. mendearen amaieran: mendearen lehen urteetan herritarren % 56,5 aritzen ziren lehen sektorean; 1871n, berriz, % 38 besterik ez. Industriaren sektorean lan egiten zutenen ehunekoa handitu egin zen, noski, eta 1802an % 18koa izatetik zazpi hamarkada geroago % 46,8koa izatera pasatu zen.

Hala eta guztiz ere, baserriak bizirik iraun zuen Errenterian, industrializazioak zekarren garapen-modu berriarekin batera. Egia esan, baserria funtsezkoa zen industriari eusteko, elikagaiak ematen baitzizkien landako nahiz hiriko biztanleei, eta, gainera, merkataritza sustatu zuen. Lantegiek lehengo baratzeei tokia kendu zieten herriaren erdigunean, baina baserritar asko, emakume zein gizon, herrira

[14] *Ibidem,* 177. or.

[15] MITXELENA, Antton: “Lekuona”, *Oarso*, 43. zk., 2008, 22. or.

[16] Herrian barrena familia-negozio ugari sortu zituztenez, izan zuten tamainagatik, iraunkortasunagatik edo garrantziagatik literatura historikoan maizen erregistratuta ageri diren enpresak aipatu ditugu, nagusiki. Hala ere, okindegi horren adibideak argi erakusten digu herrian bazirela bestelako negozioak ere, gainerakoak bezain garrantzitsuak.

hurbiltzen ziren, batez ere azoka-egunetan, esnea, haragia eta barazkiak saltzera. Baserritar batzuek inguruko lantegietan ere egiten zuten lan, orduka.

Lehen fabriken garaian, industria berriak eta biztanle kopuru handiagoak eskari handia eta diru-sarrerak ekarri zizkieten baserriei, eta hobetu egin zen haien ekonomia. Ekoizpena garatzeko pizgarri izan ziren, eta abeltzaintza sustatu zuten batik bat[17].

Baserriaren funtzionamendua ulertzeko, ezinbestekoa da emakumeen lanari merezi duen garrantzia ematea. Emakumeak baserriarekin lotutako lanez arduratzen ziren, baita etxeko lanez eta zaintza-lanez ere, eta XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran haietako asko aritu ziren baserrian ekoitzitako produktuak herrietako azoketan saltzen.

## Bizi-baldintza gogorrak eta diskriminazioa

Industrializazioaren lehen garaian herria aldatzen eta handitzen hasi bazen ere, ez zen hazi biztanleriaren hazkundearekiko modu proportzionalean, eta biztanle gehienak aurretiko hiri-eremuetan pilatu ziren, nagusiki alde zaharrean. Pilaketak izan ziren herritarren bizitokietan, eta, ondorioz, higieneko eta osasuneko arazoak sortu ziren.

Etxebizitza kaxkarrez eta osasun-arazoez gain, industriako lehen belaunaldi hartako langileek lan-baldintza ezin txarragoak izan zituzten. Hain ziren txarrak, ezen higienistek –garai hartako medikuak, hirietako biztanleen osasuna kontrolatzen zutenak ingurumeneko estrategien eta hiri nahiz etxebizitzen azpiegituren bidez– “infernuko lantegiak” esaten baitzieten Errenteriako orduko fabrikei. Instalazio itxiak eta gaizki aireztatuak ziren, eta “1870era arte, lanegunak hamabi eta hamahiru ordukoak izan ohi ziren (…), normalean ez baitzen lantegitik ateratzen hamaiketakoa egin eta bazkaltzera joateko”[18].

XIX. mendearen amaierako errenteriar emakumeek fabriketan, tailerretan, baserrian, etxean eta beste hainbat tokitan lan egiten zuten, eta gehien-gehienek gizonezko lankideek baino askoz lan-baldintza okerragoetan, ordainsari txikiagoaren truke eta aintzatespen gutxiagorekin, eta lan-karga handiagoarekin. Industrializazio-prozesuak gaur egun lanaldi bikoitz edo hirukoitz gisa ezagutzen duguna ekarri zien emakumeei. Errenterian, emakumeek lantegietan egiten zuten

[17] BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado de Oarsoaldea…”, *op. cit.*, 17. or.

[18] BARCENILLA, Miguel Ángel: “Industria gizartearen…”, *op. cit.*, 190.-191. or.

lana oso garrantzitsua zen, baina haiek lanean hasteak ez zuen berekin ekarri etxeko lanak eta zaintza-lanak berdintasunez banatzea, ezta zeregin horietarako laguntza-zerbitzuak sortzea ere, hortaz, lantegiko lana etxekoari gehitu zitzaion. Errealitate horrek ondorio larriak izan zituen; izan ere, egiaztatuta geratu da, langile emakumeen kasuan behintzat, haien osasuna gizonezko langileena baino gehiago ahultzen zela, fisikoki akituago zeudela eta heriotza-tasa handiagoa zutela, eta, zenbait ikerlanen arabera, hori erraz azal daiteke kontuan hartuz gero etxeko nahiz kanpoko lanak eta zereginak antolatzeko moduak ondorio hau izan zuela: "kasurik gehienetan, emakumeak lanegun bikoitza egin behar zuen: lantegian 10-12 ordu sartu eta gero, etxeko lanak egiten hasi behar zuen"[19]. Horrek argi eta garbi irudikatzen du sexuaren araberako lan-banaketa[20].

Horrez gainera, emakumeek laneko diskriminazioari aurre egin behar zioten. Orduz geroztik, eta gaur arte, gizonen eta emakumeen soldaten arteko desberdintasuna izan da diskriminazioaren alderdi nabarmenetako bat. Garai hartako ikerlan historikoek diotenez, Errenterian:

> Horren ondorioz, emakume langileak erabat bazterturik eta gutxietsita zeuden lantokietan, gutxiago kobratzen zuten (lan berberak egiten bazituzten ere), gizonen agindupean zebiltzan beti, eta euren kexak ez zituzten aintzat hartzen (gizonek abalatu izan ezik) (…) Industriako lanpostuetan, emakume heldu batek gizon baten soldataren erdia irabaz zezakeen[21].

## Krisia industrializazio-prozesuan

Industrializazioko lehen aldi horretan aldaketa handiak gertatzen hasi ziren Errenteriako egitura ekonomikoan, egitura demografikoan, hiri-egituran eta gizarte-egituran. Hiru mila biztanle baino gutxiago zituen, eta horietatik mila baserrietan bizi ziren. Industriako langileen proportzioa, biztanle guztiekiko, historia osoko handiena zen. Une hartan, Errenteriak nekazaritzatik eta arrantzatik bizi zen herri izateari utzi zion, eta herri industrial bilakatu zen pixkanaka. Eta 1871.

---

19 *Ibidem*, 191.-192. or.

20 Sexuaren araberako lan-banaketa tradizionalaren oinarrizko ideia da lan ordaindua ("lan produktiboa") gizonei dagokiela, eta etxeetan nahiz komunitatean egiten den lan ordaindu gabea ("lan erreproduktiboa"), berriz, emakumeei. Sexuaren araberako lan-banaketa hori ordaindutako lanean eta ordaindu gabekoan egiten da; izan ere, lan ordainduaren eremuan emakumeek lan batzuk bakarrik betetzen dituzte, eta kargu batzuk bakarrik lor ditzakete, gizonen karguen bestelakoak –eta orokorrean parekotasunik gabeak–. Normalean, emakumeek kategoria profesional baxuagoak eta kontratu kaxkarragoak dituzte, eta gizonek baino gutxiago irabazten dute.

21 BARCENILLA, Miguel Ángel: "Industria gizartearen…", *op. cit.*, 192., 194. or.

urterako industria herriko sektore ekonomiko nagusia izan arren, inguru horretan izan zuen lehen krisia.

1868an, desagertu egin zen liho-fabrika bat, txikiena eta gainerakoak baino gutxiago mekanizatua zegoena, eta ekoizpena beheraka hasi zen gainerakoetan. Beherakada horren jatorria Espainiako ekonomiaren zenbait krisi izan ziren, lotura zutenak bai muga-zergen ezarpenarekin (1869), bai karlistaldiarekin. Gerrak, 1872tik 1876ra luzatu zenak, herriko ekoizpena geldiarazi zuen denbora batez[22], eta XIX. mendeko 70eko hamarkadaren amaieran egoera zaila zen.

Hala ere, baziren zenbait elementu positibo. Gerraren eta I. Errepublikaren testuinguruan, aurrerapenak egin zituzten 1873ko uztailaren 24ko Legea sortzeko. Lege hori lantegietako lanari eta haur langileen eskolatzeari buruzkoa zen, eta laneko legediak Espainiako estatuan gerora izandako garapenaren abiapuntutzat har dezakegu. Lege horrek adingabeen lana arautzen zuen, haiek lan batean onartzeko gutxieneko adinak, lanaldiaren mugak eta ordutegiak. Halaber, nahitaezko neurri gisa ezartzen zuen zenbait fabrikatan, tamainaren eta langile taldearen ezaugarrien arabera, lehen laguntza kirurgikoko zerbitzuak eta botika-kutxa edukitzea, baita instalazioen segurtasun- eta higiene-baldintzak egiaztatzeko proiektu bat ere. Alabaina, Legearen araudia ez zen garatu, eta, hortaz, ez zegoen modurik ez zigorrak ezartzeko, ez abian jartzeko lantegiak ikuskatzeko mekanismoak. Labur esanda, dokumentatuta dago legea aldizkari ofizialeko paperean bakarrik argitaratu zutela eta ez zutela sekula aplikatu. Hala eta guztiz ere garrantzitsua izan zen, agerian utzi baitzuen Estatuak esku hartu behar zuela lan-harremanetan eta horretarako beharrezkoa zela legedi bat garatzea[23].

## Industriaren goraldia: 1880tik 1910era arteko hamarkadak

Udalerriaren susperraldi ekonomiko eta industriala 1880ko hamarkadan hasi zen. Batetik, 1881etik aurrera berriz gora egin zuelako biztanleen kopuruak, karlistaldiaren ondotik murriztuak. Euskal Herriko hainbat tokitatik iritsitako gizon-emakumeei esker handitu zen, batik bat. Bestetik, gertaera garrantzitsu bat jazo zelako: La Ibérica fabrika sortu zen 1886an, Olibet e Hijos frantziar enpresaren jabetzakoa. Gaileta-fabrika hura martxa onean hazi zen 1916-1917 arte[24], eta

[22] BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado de Oarsoaldea…", *op. cit*., 19. or.

[23] GARCÍA FERNÁNDEZ, Guillermo: "Los inicios del reformismo social en España: la primera legislación social y la comisión de reformas sociales", *Gaceta Laboral*, 14. lib., 2. zk., 2008ko abuztua, 258.-260. or.

[24] BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado de…", *op. cit*, 16. or.

banilla-usainez bete zituen herriko txokoak. Hura ireki eta hogei urte baino gutxiagoan beste hamaika enpresa sortu zituzten herrian, eta, lantegien kopurua handitzeaz gain, industriara aniztasuna iritsi zen, Gipuzkoak oso berezkoa izan duen industria-garapeneko ereduaren ezaugarria.






Olibet enpresako paketatzaileak. (Iturria: *Errenteriako Historia,* 195. or.).

**Aldi honetan sortutako lantegiak**

| | |
|---|---|
| 1886 | La Ibérica (gailetak) |
| 1894 | Albayalde (pinturak) |
| 1890 | Vasco-Belga (paper-fabrika) |
| 1892 | Fabril Ibero-Belga (tapiztegia) |
| 1892 | La Margarita (destilategia) |
| 1897 | Euskaria (sagardoa) |
| 1899 | Fabril Lanera (artilea) |
| 1901 | Manufacturas el Yute (ehunak) |
| 1902 | Mármoles San Marcos (marmola) |
| 1903 | Henry Garnier (destilategia) |
| 1903 | Molinao (irinak) |
| 1912 | Papelera Española (papera) |

Hemen aipatu beharreko datu garrantzitsu bat da garai hartan emakume enpresari handi bat izan zela Errenterian. Haren historia oso ezaguna ez bada ere, Cesárea Garbuno y Arizmendik, Fanderiako errotaren jabearen alabak, ezkonsaritzat jaso zuen errota, Fabrika Handiko Londaiz familiako kide batekin, Ramónekin, ezkondu zenean. Bikoteak sozietate bat sortu zuen errota ustiatzeko, eta, senarra hiltzean, Cesáreak negozioa hedatu, eta irin-fabrika bilakatu zuen. Gero Luciano Mercaderrekin elkartea eratu zuen, eta 1883an Mercader y Viuda de Londaiz konpainia sortu zuen, Estatu osoko lehen petrolio-findegia ireki zuena Molinaon (Pasaia), gaur egun ere martxan dagoena. Negozio hark erosi, findu eta saldu egiten zituen petrolioa eta beste olio mineral batzuk; eta nabarmentzeko datu gisa, "hainbat ontzi propio eduki zituen, Estatu Batuetatik petrolio gordina garraiatzeko"[25]. Horrek ontzigintzaren eremuan kokatu zuen enpresa, modu batean edo bestean.

Denbora batez, Cesárea Garbuno arduratu zen sozietatearen ordezkaritzaz eta administrazioaz, eta hori ez zen oso ohikoa tamaina horretako sozietate batean: 60 eta 70 langile bitarte zituen 1894an[26]. Bazkidea hil zenean, konpainiak Viuda de Londaiz y Sobrinos de L. Mercader izena hartu zuen.

[25] UNSAIN AZPIROZ, José María: "Hiztegi biografikoa". *Donostia, itsas hiria,* Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia, 2008.

[26] TRANCHE IPARRAGUIRRE, Mercedes: "Aportaciones oiartzuarras a la industrialización", Oiartzunen emandako hitzaldia, 2006/11/29.

Horrez gainera, Eugenio Londaiz semearekin eta beste kide batzuekin batera, beste sozietate bat eratu zuen 1908an, Londaiz, Ubarrechea y Compañía, zenbait irin-fabrika ustiatzeko, bata La Fanderia, Errenterian, eta bestea Urumeakoa, Astigarra eta Hernani artean. Azken horrek garrantzi handia izan zuen[27]. Konpainia handi horiez gainera, Cesáreak likoreen biltegi bat eta bestelako negozioak izan zituen Errenterian eta Donostian[28].

## Oparotasuna eta pobrezia

Industriak aurrera egin zuen, baina ez, ordea, biztanleen bizi-baldintzek. Aldi honen lehen urteetan hiriko biztanleen bizimoduak okerrera egiten jarraitu zuen. 1898an, gizonezko langile baten batez besteko urteko ordainsaria 770 pezetakoa zen. Emakumezko langile batena, berriz, 400 pezetakoa. Haurrena, 260 eta 300 pezeta bitartekoa. Biziraupen hutserako ordainsariak ziren, eta familiako kide baten baino gehiagoren diru-sarrerak beharrezkoak ziren gastuak ordaindu ahal izateko. Garbitzaile nahiz neskame gisa edo beste zeregin batzuetan aritzen ziren emakumeek are gutxiago irabazten zuten[29].

Diru-sarrerak oso txikiak zirenez, langileriak pilatuta bizitzen jarraitu behar izan zuen, eta higiene zein elikadura kaskarrarekin. Langile heldu baten batez besteko soldataren % 80 elikadurara bideratzen zuten[30]. Biziraupeneko egoera hartan, edozein gertaerak edo gorabeherak miseria gorrian utz zezakeen langile-familia bat. Seme-alaba txikiak zeuzkaten alargunak eta aita edo senarra gaixorik edo langabezian zeukaten familiak ageri ziren sarrien udalerriko behartsuen zerrendetan. Hiriko familia horiek landagunean izandako babesa eta elkartasun-sarea galdu zituzten pixkaka-pixkaka[31].

Hala eta guztiz ere, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran aurrera egin zuen "nekazaria eta langilea errenteriar berbera bilakatzeko"

---

[27] *Ibidem*.

[28] Miguel Ángel Barcenilla, 2013/12/4ko elkarrizketa. Historialariak adierazi digunez, gutxi ikertu da pertsonaia horri buruz, eta, orokorrean, Cesárea Garbuno, Londaizen alarguna, ez dute sartzen Errenteriako enpresari nabarmenen artean. Nolanahi ere, herentzia-sistemak eta XIX. mendeko industria-familien artean ondarea mantentzeko eta kapitala pilatzeko erabilitako estrategiak aztertuta, enpresaritzat identifika dezakegu emakume hori. Baliteke aparteko kasua izatea, edo agian beste emakume batzuek ere, oinordeko edo alargun, eginkizun garrantzitsua izan zuten herriko industriaren eta ekonomiaren garapenean, haien izenak eta ekintzak ezagutzen ez baditugu ere.

[29] BARCENILLA, Miguel Ángel: "Industria gizartearen…", *op. cit.,* 194. or.

[30] BARCENILLA, Miguel Ángel: Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia, Errenteria, 2013ko apirilaren 25a.

[31] BARCENILLA, Miguel Ángel: "Industria gizartearen…", *op, cit*. 195. or.

prozesuak –nekazari eta langile gizon eta emakume, erantsiko genuke guk–; esaldi hori erabili zuen Joxeba Goñi historialariak fabriketako lehen langile-belaunaldien izaera "landatarrak" erakusten zuen nahasketa bereizgarriari buruz hitz egiteko, landako pentsamoldea eta pentsamolde industriala ondo-ondoan ipini zituen nahasketa, denboraren poderioz eta gero eta indar handiagoz bizimodu hiritar eta industriala nagusitu arte iraun zuena[32]. Gainera, urte haietan apenas hazi zen landako biztanleria udalerrian. Ez zegoen atzera bueltarik industriaren hazkundean, ezta herriaren eraldaketan ere. Epe labur samarrean, 1860. urtetik 1910. urtera, bikoiztu egin zen Errenteriako biztanleen kopurua: urte gutxi batzuetan gertatutako hazkundeari zegokion kopurua aurreko mendeetan guztira izandako biztanle-kopurua baino handiagoa izan zen[33].

## Aldaketak, legeak eta lana

Aldaketek, batzuetan geldiek eta beste batzuetan bizkorrek, isla izan zuten legediaren eta enpresen martxa errealaren arteko tentsioan.

Espainiako estatua erreforma-prozesu batean eta borroka politiko eta ideologikoetan murgilduta zegoen, eta lan-arloa arautzeko interesa pizten hasia zen. 1883an sortu zuten Gizarteko Erreformen Batzordea, Lan Ministerioaren aurrekari moduko bat, besteak beste publikoki adierazi zuena nekazaritzako zein industriako langile-klaseen bizi-baldintzei eta lan-baldintzei begirako kezka. Haren zeregin nagusia zen informazioa ematea, sentsibilizatzea eta apurka-apurka ezartzen joango ziren araudien oinarritzat erabili ahal izateko ikerketak prestatzea[34].

1883tik 1888ra, Batzorde horrek inkesta eta txosten nazional bana egin zituen, erabilgarriak izan zirenak emakumeentzako lan-eskaintza kuantitatiboaren garrantzia balioesteko ez ezik baita emakumezko langileen egoera agerian uzteko ere. Txosten horietako bat euskal emakumeen lanari buruzkoa zen, eta probintziako ongizate orokorra ahalbidetzen zuen alderdi boteretsuenetako bat zela aipatzen zuen, eta bertako aberastasuna garatzen laguntzen zuela[35]. Honako hau azpimarratzen zuen horri buruz:

---

32 GOÑI GALARRAGA, Joseba: *Historia de Rentería*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, San Sebastián, 1969, 71.-72. or.

33 *Ibidem,* 73. or.

34 GARCÍA FERNÁNDEZ, Guillermo: "Los inicios del reformismo…", *op. cit.,* 262.-265. or.

35 ARBAIZA, Mercedes: "La construcción social del empleo femenino en la sociedad industrial vasca (1850-1935)", VII Congreso de la Asociación de Historia Económica, Zaragoza, 2001eko iraila, 1. or.

> A la mujer vizcaína se la ve compartir con los labradores rudas faenas que exige la agricultura (...). En la clase obrera, o atenida a un jornal puramente eventual, no se limita la mujer de esta provincia a vivir dentro de su casa, cuidando tan sólo de las labores puramente domésticas, sino que, además, después de llenar aquéllas, se dedica a trabajos, a las veces demasiado rudos y excesivos, pero que sin duda alguna contribuye su producto a aumentar la holgura de las familias y ha hacer más difícil la miseria en los casos de enfermedad, crisis industriales, etc.[36]

Egoera horrek oro har Gipuzkoa osoan eta zehazki Errenterian gertatzen zena islatzen zuen, zalantzarik gabe. Gizarte Erreformen Batzordeak sortutako antzeko txostenen ondorioz, aitortu egin behar izan zuten emakumeen irudi berri bat, lantegietan lanean, femeninotzat jotzen ez zituzten zereginetan (ez femeninotzat, ez sedentariotzat, ez arintzat), eta aurre egin behar izan zioten irudi horri, kezka sakona eta ezinegona sortzen baitzuen estatus politikotik hurbil zeuden espainiar gizarteko sektore batzuetan. Nolanahi ere, baziren kezka horiei uko egiten zieten sektoreak ere, eta, iritziak iritzi, errealitateak kolokan jarri zuen laneko espazioen arteko bereizketa hura, baita emakumeek eta gizonek ustez "berezkoak" zituzten rolen eta gaitasunen arteko bereizketa ere. Hala ere, emakumeentzat "egoki" zenari buruzko iritziak eta emakumeak "etxetik urruntzeak" familiengan izango zuen eraginari begirako atsekabea oinarritzat hartu zituzten gizarte-arloko eta lan-arloko lehen legerako: Emakumeen Lana Babesteko Legea, 1900. urtekoa[37].

Urte gutxi batzuk lehenago, 1886ko ekainean, Errege Dekretu bat atera zuten, langileei nolabaiteko babesa eman ahal izateko laneko arriskuei begira. Dekretuak onartzen zuen enpresaburuak erantzukizuna zuela kalteak ordaintzeko edo langileei kalte-ordainak emateko, baina, dekretuak berak jasota zituen salbuespenak eta enpresaren erantzukizuna justifikatzeko zailtasunak tarteko, ez zen ia inoiz aplikatu. Hala ere, 1900. urteko Istripuen Legearen aurrekaria izan zen, zeinak, bestek beste, handitu egin zuen enpresaren erantzukizuna eta Laneko Ikuskaritza sortu zuen, neurri berrien ezarpena kontrolatzeko[38].

Badakigu jaiotzen ari ziren lege horiek Errenterian partzialki bakarrik aplikatzen zituztela XX. mendearen hastapenetan. 10 urtetik beherako haurrei lana emateko debekua bete zuten, esaterako, baina lege beraren beste xedapen batzuk ez ziren

---

[36] ARBAIZA, Mercedes: "La construcción...", *op. cit.,* 1. or.

[37] ARBAIZA, Mercedes: "La construcción...", op. cit., 2. or.

[38] GARCÍA FERNÁNDEZ, Guillermo: "Los inicios del reformismo...", *op. cit.,* 262.-265. or.

betearazi, 14 urtetik beherakoen lanaldien iraupenari buruzkoa, besteak beste[39]. Praktikan, ez zegoen inolako segurtasunik lanean, ez istripuei begirako estaldurarik, ez kontraturik, ezta lan-baldintzak aldatzeko edo indarreko legeak betearazteko eskatuko zuen erakunde sindikalik ere.

## Azpiegiturak, zerbitzuak eta tokiko garapena

XX. mendearen lehen urteetan bildu zen industria hirigune historikoan, eta aldatu egin ziren eremu hartako etxebizitzen itxura eta antolamendua. Biztanleak eta enpresak ez ezik, ugaritu egin ziren, halaber, errepideak eta izaera publikoko beste azpiegitura batzuk. 1888an inauguratu zuten Donostia eta Errenteria batzen zituen tranbia, eta 1899an ezarri zuten estazio telegrafiko orokorra, nahiz eta tokiko zenbait industriak sare telefoniko pribatuak zituzten pare bat urte lehenagotik[40]. Urte horietan ekin zioten, baita ere, argi elektrikoaren instalazioa prestatzeari; oraindik urte batzuk igaroko ziren argia modu orokortuan hornitu arte, baina, lan horien ondorioz, zutoinak, kableak eta lanparak agertu ziren herrian, eta paisaia aldatu zuten. Une horretatik aurrera, zerbitzuak eta komunikazioak ordura arte landagune izandako eremuetara hedatu ziren, pixkanaka-pixkanaka, hala nola Alabergara edo Morrongilletara. Eremu hiritarra erdigune bilakatu zen: bertan pilatu ziren komunikazioak, gobernuaren bulegoak, zerbitzuak, dibertimendua eta lanerako zentroak. Herriak zerbitzu eta komunikabide ugari zeuzkan, herritar guztiek horiek erabiltzeko aukera berbera ez zuten arren[41].

XX. mendearen hasieran, nabaritzen hasi ziren erdiguneko zerbitzuak hobetzeak eta hiri-espazioa zabaltzeak ekarritako ondorio positiboak, batik bat, etxebizitzen auzoak eraiki zituztenetik herriko langileentzat.

Tokiko garapena beste espazio edo esparru batzuetatik ere etorri zen, ez industriaren esparrutik bakarrik. 1880. urtetik aurrera progresiboki hazten joan zen eskolatutako mutikoen kopurua, eta, 1903rako, erdigunean bizi ziren 6 eta 9 urte bitarteko mutiko guztiak zeuden eskolatuta. Adin bereko neskatxa eskolatuen kopurua % 73ra iritsi zen. Landaguneetan haur gutxiago zeuden eskolatuta: adintarte horretako nesken % 48,5 eta mutilen % 62,5. Eskolaldi luzeagoa izateko aukerak zabaltzen joan ziren pixkanaka.

---

39 BARCENILLA, Miguel Ángel: Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia... *op. cit.*

40 GOÑI GALARRAGA, Joseba: *Historia... op. cit.,* 76. or.

41 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Industria gizartearen...”, *op. cit.*, 188. or.

## Lantegien hedapena

1890ean, 364 emakumezko langile zeuden, eta 1903an, 479, hortaz, mantendu egin zen aurreko urteetako ehunekoa: industriako enpleguen % 40 emakumeek betetzen zituzten[42].

Emakumezko langile "ospetsuak" izan ziren Joxepa Antoni Aranberri "Xenpelar" (1865ean jaioa) eta haren ama, Maria Luisa Petriarena Berrondo (1833an jaioa). Pertsonaia ospetsuak dira, baina ez "Xenpelar" bertsolari famatuaren senideak izateagatik, baizik eta haiek ere bertsolariak izan zirelako, Fabrika Handiko langile izateaz gain. Gizonezko ahaidearenak bezain ezagunak ez izan arren, emakume haien bertsoetan ere islatuta zegoen lantegietan egiten zuten lan gogorra. Joxepa Antonik liho-fabrikan lan egin zuen 1877tik 1937ra arte. 1900. urteko erroldan jasotakoaren arabera, Biteri kalean bizi zen (gaur egun 37. zenbakia duen etxearen bigarren solairuan), eta "telari" gisa erregistratuta zegoen. Maria Luisa ama ehungintzako langile porrokatua izan zen, lanaldi gogorrak betetzen zituena, beste emakume askoren antzera:

> Emakume langilea zen Maria Luisa, etxetik kanpo, Fabrika Handian lan egiten zuen anaiarekin batean, eta langilea etxean. Garai hartako gizonek ez bezala, lantegiko ehungintzako lan gogorraz gain, etxeko lan ez oso arinak ere bere kontu hartu beharko zituen[43].



Joxepa Antoni Aranberri.

*Markolako patatak* bertsoaren estrofa honetan, hirurogei urtez lantoki izan zuen Fabrika Handian erretiroa hartzea eskatzen zuen Joxepa Antonik:

---

[42] BARCENILLA, Miguel Ángel: Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia..., *op. cit*.

[43] PEREZ GAZTELU, Elixabete: *Joxepa Antoni Aranberri* "Xenpelar", Errenteriako Udala, Errenteria, 2013, 22. or. Goian ageri den argazkia ere argitalpen honetatik aterata da.

*"Irurogei bat urte aldian,*
*oso ez badira ere,*
*gure lantegi aundi orretan,*
*lana egiñak gerade,*
*uste dedanez bi gizonekin*
*bots bat emakume gaude;*
*Bagues jaun, ez asarretu*
*bertsuak gaizki badaude[44]".*

Bizi-baldintza gogor samarrek markatutako garai hartan gertaera garrantzitsu bat jazo zen: XIX. mendearen amaieran elkar laguntzarako elkarte batzuk jaio ziren, langileei, artisauei eta merkatariei laguntza eta estaldura mediko hobea emateko. Olibeteko enpresak, La Ibérica izenekoak, horrelako elkarte bat sortu zuen 1894an. Behar-egoeretan laguntza emateaz gain, talde horietako batzuk sentsibilizazio sozialerako eta aldarrikapenerako espazio bilakatu ziren gerora.

1899an, Fabril Lanera lantegia eratu zuten, Pekingo errota zaharraren eta antzinako baserriaren gainean eraikia. Lantegi hark eta sortzen joan ziren gainerako guztiek goitik behera aldatu zuten orduko Errenteria eta bertako paisaia. 1901ean, 546 familia bizi ziren herriaren erdigunean. Pare bat urte geroago, paper-fabrikak, Fabrika Handiak eta Olibetekoak mila pertsonari ematen zieten lana guztira.

1903an, Errenteriako Tokiko Industrien Erakusketa egin zuten, egunkarietan oihartzuna izan zuen gertakaria[45]. Une hartan, herria indarraldian zegoen, eta errenteriarrak harro zeuden, urte gutxian enpresa ugari eta boteretsuak ezarri baitzituzten, Errenteria probintzia osoko industriagune nagusi bilakatu zutenak, eta agian baita Gipuzkoatik kanpoko industriagune nagusi ere, Nicolas Urgoiti mediku, enpresari eta zinegotziak 1902an adierazi moduan[46]. Erakusketari esker, bertakoak zein kanpokoak konturatu ziren Errenteriak izaera industrial indartsua zuela eta izaera horrek errenteriarren etorkizuna markatuko zuela[47].



1903ko erakusketaren albuma. (Errenteriako Udal Artxiboa B/6/3 bis/1).

44 *Ibidem,* 46. or.

45 Ikusi 1. eranskina: *El Pueblo Vasco* egunkarian argitaratutako albistea.

46 Hemen aipatua: BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado…", *op. cit.,* 14. or.

47 GOÑI GALARRAGA, Joseba: *Historia…*, *op. cit.*, 75. or.

Ordurako, hainbat tamainatako hamabost lantegi zeuden, eta herriaren berregituraketa, industria-instalazioen ugalketaren araberakoa, eredugarritzat jotzen zuten. Lantegi horiek industrializazioaren aurreko aldikoen ezaugarri berdintsuak bazituzten ere, hala nola barne merkatura bideratuta egotea, kontsumoko produktuetan espezializatuta egotea, enpresa astunik ez izatea eta produktu anitz ekoiztea, izan zen desberdintasun nabarmenik, kanpoko inbertsioaren garrantzia, besteak beste: atzerriko inbertsioa, batik bat Frantziakoa eta Belgikakoa, eta baita Madrilgo, Donostiako eta Bilboko inbertsioa ere[48].

Lekuona sendiaren lantegiari eta horrelako beste enpresa txiki batzuei ere onura egin zien dinamika hark. 1902an, familiaren bigarren belaunaldiak, bereziki Maria Antonia Lekuonak, bere gain hartu zuen lantegiak handitzeko eta okindegia hedatzeko ardura[49].

## Emakume langileak

Neurri txikiko baina berrikuntza ugariko herri hartan, aldaketak antzeman ziren jendearen pentsamoldean, eragin handiagoa baitzuten kanpoko modek eta ideiek ondoko landa-giroak baino[50]. Bizitzeko era eraldatuz joan zen. Eta emakumeen zein gizonen bizimodua eta garapenerako nahiz lanerako eremuak ere bai.

Aldi honetako hamarkadetan barrena, zerbitzuen sektoreak indartzen jarraitu zuen, batik bat irakaskuntzarekin, osasunarekin, abokatutzarekin, merkataritzarekin, garbiketarekin, ostalaritzarekin, elikadurarekin, garraioarekin, komunikazioekin eta enplegu publikoekin zerikusia zuten zerbitzuetan. Eginkizun horietan ziharduten gizon-emakumeen kopurua etengabe hazi zen; izan ere, ikusi dugunez, hazten ari den industria-hiri batek berekin dakar beste jarduera batzuen gorakada. Zenbait unetan industriaren hazkundea gelditu egiten bazen ere, produktibitate edo mekanizazio handiagoaren ondorioz batez ere, gero eta zerbitzu gehiago behar ziren herrian.

---

48 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Industria gizartearen…”, *op. cit*., 175.-176. or.

49 MITXELENA, Antton: “Lekuona”, *op. cit*., 24. or.

50 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Industria gizartearen…”, *op. cit* 188. or.

Erroldetako datuei erreparatuta ezin dugu ziurtasunez jakin zerbitzu eta lanbide horietako zenbat gauzatzen zituzten emakumeek, baina oroimenean jasota dago izan zirela zeregin horietan aritzen ziren emakumeak: ile-apaintzaileak, sukaldariak, erizainak, mandatariak eta mezulariak, garbitzaileak eta sektore ekonomiko horretan ziharduten beste emakume batzuk. Berez, mandatari-lanak eta antzeko beste batzuk emakumeek egin izan zituzten, nagusiki[51]. Informazio espezifikorik eduki ez arren, pentsa dezakegu errenteriar emakume batek baino gehiagok lan egin zuela halako ogibideetan.

Esaten denez, industrializazioak bizkortu egin zuen lantokiaren eta bizitokiaren arteko banaketa, nahiz eta, aurretik ikusi dugunez, horrek ez zuen ekarri emakumeak bi mundu horietako batetik kanpo geratzea; aitzitik, aldi berean egin behar zituzten etxeko lanak eta diru-sarrera handiagoak izateko aukera ematen zieten etxetik kanpoko beste jarduera batzuk. Etxeko lan guztiekin gertatu ohi denez, ordain ekonomiko bat edo soldata bat jaso gabe egiten zuten lana "ez-lan"[52] bilakatu zen, nahiz eta askotan ahalegin hori bizitza eta pertsonak zaintzeko ezinbesteko zereginetara bideratzen zuten –eta duten gaur egun ere–, hala nola garbiketara.

Jasota dagoenez, garbitzaileak jantzien garbiketan espezializatutako profesionalak ziren, eta hura zen lanbide gogorrenetako bat. Familiako kideen jantziak zaintzeaz gain, emakumeek beren zerbitzuak eskaintzen zizkieten hotelei, udatiarrei edo enpresei. Sarri, lisatu ere egiten zuten arropa. "Pieza bakoitzeko hainbesteko bat ordaintzen zen, aldez aurretik zerbitzua eskatzen zutenek ezarria edo bi aldeek adostua, eta, garai hartan izaten zen legez, kopuru hori normalean urria izaten zen"[53].

Emakumeek sukaldari, neskame, inude nahiz haurtzain gisa egiten zuten lana ere gutxi ordaintzen zuten, eta gizartean ez zegoen aitortuta, baina, neurri handi batean, ogibide horiek gizon-emakumeen bizitzarako eta garapenerako oinarrizko baldintzen euskarri ziren, eta ezinbesteko ekarpena familien ekonomiarentzat.

---

[51] URDANGARÍN ALTUNA, Carmelo eta IZAGA REINER, José María: *Euskal lanbide tradizionalak*, Gipuzkoako Foru Aldundia. Helbidea: http://www.aintzinakolanbideak.net

[52] RUIZ LOZA, María Silvia eta TRANCHE, Mercedes: *Historia de las mujeres en Irun 1931-1992*, Ayuntamiento de Irun, 2011, 30. or.

[53] URDANGARÍN ALTUNA, Carmelo eta IZAGA REINER, José María: *Euskal lanbide…*, *op. cit.*




Garbitoki zaharreko eszena (1929ko *Rentería* aldizkarian).

Hona hemen 1902an Errenteriako emakumeek etxetik kanpo zeuzkaten lanbideak eta eginkizunak eta horietako bakoitzeko emakumezko langileen kopurua:

| HIRIAN | | | |
|---|---|---|---|
| Espartingilea, 2 | Eskribaua, 2 | Haurtzaina, 1 | Arrantzalea, 2 |
| Sukaldaria, 3 | Ikaslea, 3 | Inudea, 2 | Jornaleroa, 31 |
| Jostuna, 34 | Tabako-saltzailea, 1 | Langilea, 114 | Neskamea, 92 |
| Merkataria, 1 | Nekazaria, 1 | Ile-apaintzailea, 1 | Ehulea, 107 |
| Hargina, 1 | Garbitzailea, 1 | Atezaina, 2 | Dendaria, 5 |
| Saskigilea, 1 | Lisatzailea, 6 | Jabea, 9 | Tabernaria, 3 |
| Zurgina, 1 | Maistra, 3 | Papergilea, 3 | Irazkigilea, 3 |

| LANDAGUNEA | | |
|---|---|---|
| Nekazaria, 330[54] | Neskamea, 1 | Langilea, 3 |
| Ehulea, 7 | Jornaleroa, 2 | Zurgina, 1 |

[54] Kontsultatutako iturriak erroldako datuak jasotzen ditu. Bertan, 274 nekazari eta "beren eginkizunetan" aritzen ziren 60 emakume (SL inizialekin, "sus labores") ageri dira, baina, egileak berak argudiatzen duen moduan, zaila da pentsatzea baserritarrek ez zituztela laborantzako lanak eta baserriko beste jarduera batzuk gauzatzen etxeko lanez gain. VALVERDE, Lola: "Rentería: demografía y sociedad, 1888-1905", *Oarso*, 1985, 33. or.

| EGOERA ZIBILAREN ARABERA[55], HIRIAN | | | |
|---|---|---|---|
| **Ezkonduak** | | **Alargunak** | |
| Ehulea, 46 | Dendaria, 3 | Ehulea, 27 | Merkataria, 2 |
| Langilea, 15 | Irazkigilea, 3 | Neskamea, 7 | Tabako-saltzailea, 1 |
| Jostuna, 8 | Inudea, 1 | Langilea, 7 | Garbitzailea, 1 |
| Jornaleroa, 8 | Espartingilea, 1 | Jabea, 7 | Tabernaria, 1 |
| Mandataria, 1 | Tabernaria, 1 | Dendaria, 2 | Sukaldaria, 1 |
| Nekazaria, 1 | Atezaina, 2 | Ostalaria, 1 | |
| Merkataria, 1 | Lisatzailea, 3 | Arrantzalea, 1 | |
| Hargina, 1 | Eskribaua, 1 | Jornaleroa, 2 | |
| **EGOERA ZIBILAREN ARABERA, LANDAGUNEAN** | | | |
| **Ezkonduak** | | **Alargunak** | |
| Nekazaria, 140<br>Langilea, 1<br>Ehulea, 2 | | Nekazaria, 42 | |

Emakumeen lanbideak etxetik kanpo 1902an. Iturria: Lola Valverde (1985)[56].

Ikus dezakegunez, emakumeak jarduera anitzetan aritzen ziren, kontuan hartu gabe enpresetan izaten zituzten ofizio ugariak.

XX. mendearen hastapenetan, 1903. urtearen inguruan, 689 gizonek eta 479 emekumek lan egiten zuten herriko lantegietan, hau da, Errenteriako biztanle guztien % 27k baino zertxobait gehiagok[57]. Orduan martxan zeuden hamalau fabrikek 1.168 pertsonari ematen zieten lana. % 40,6 emakumeak ziren. Horietatik, % 12,5ek 16 urte baino gutxiago zituzten, eta % 16,2k, berriz, 50 urte baino gehiago[58].

Emakumezko langileen ehunekoa Gipuzkoako beste eremu industrial batzuetakoa baino handiagoa zen, eta datu hori oso garrantzitsua izan zen herriarentzat. Zenbait kasutan, emakume askok lan egiten zuten leku berean, eta, Miguel Ángel Barcenillak aztertutakoaren arabera, errealitate horrek bultzatuta irudi publiko eta

55 Erabilitako erreferentziak ez du zehazten taularen lehen atalean ageri diren datuak, egoera zibilaren arabera bereizi gabeak, emakume ezkongabeenak edo emakumezko biztanle ororenak diren. Baliteke emakume ezkongabeei buruzkoak izatea, egoera zibilaren arabera banatutakoekin alderatuta jarduera eta zifra desberdinak baitaude. Gainera, ezkonduen eta alargunen egoera zibila aintzat hartzen duten estatistika espezifikoak emateak badu nolabaiteko zentzurik, garai hartan, idealki, ez baitzegokien etxetik kanpo lan egitea.

56 VALVERDE, Lola: “Rentería…”, *op. cit.,* 29.-33. or.

57 BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado de Oarsoaldea…”, *op. cit.,* 14. or.

58 Errenteriako Udala, “Herria ezagutzen”, hemen eskuragarri: http://www.ondarea-errenteria.net/euskara/unitate-didaktikoak.

sozial bat eraiki zen “emakumezko langileari” buruz, lehen ezagutzen ez zuten figura bati buruz. Hori horrela izanik ere, emakumezko langileen ikusgaitasuna ez zen islatuta ageri diskurtso ofizialetan, eta are gutxiago legedietan edo emakumeen lan-baldintzak edo emakumeek lan egin ahal izateko baldintzak hobetuko zituzten neurri politiko nahiz sozialetan. Gizonezko lankideek baino gutxiago irabazten jarraitzen zuten, batzuetan haien erdia baino gutxiago, eta ez zeukaten lan-baldintzei begirako abantailarik. Ikuspegi batzuen arabera, egoera horrek borrokara bultzatu zituen emakumeak, eta, urteak igarota, lan-arloko hobekuntza asko lortzera[59].

Urte haietako lan-baldintzak ez ziren iraganekoak baino hobeak. Lantegietan ohikoak ziren osasungaiztasuna, aireztapen eskasa, diziplina zorrotza, denboraren eta mugimenduen gehiegizko kontrola eta 10 edo 11 orduko lanaldi nekagarriak, ordu gehiagoz ere luza zitezkeenak. Emakumezkoen tailerretako baldintzak are okerragoak ziren.

Esan dugunez, teorian mutikoek –eta neskek– 10 urtetik aurrera bakarrik lan egin zezaketen, eta lanaldi murriztuan, baina praktikan araudi hori ez zen beti betetzen[60]. 1904an, Askotariko Lanbideen Sozietatea eratu zuten, baina urte batzuk igaro arte ez zuen aldarrikapenezko jardunik garatu.

## Garai hobeak eta ekintza politikoa

1905ean, hamabost fabrika zeuden, eta 1.178 pertsonari ematen zieten lana. Espainiar merkatura bideratutako kontsumoko industria zen nagusi.

1910. urtearen inguruan, nabaritzen hasi zen herritarren bizi-maila suspertzen hasi zela, baina, antza denez, hobekuntza gizonek nabaritu zuten lehenengo, eta astiro iritsi zen emakume eta haurrengana[61]. Erosteko ahalmena handitu zen ordurako, soldatak zertxobait igo zirelako; herritarren elikadura hobea zen, eta higiene-baldintzek nahiz etxebizitzetako azpiegiturek hobera egin zuten, estolderia, uraren sistema eta beste zerbitzu batzuk hedatu egin zirelako eta beste lan publiko batzuk gauzatu zituztelako, hala nola azoka berria eta garbitoki berria. Arlo sozialean, elkar laguntzarako sozietateak orokortu egin ziren, eta kontsumo-kooperatibak sortu ziren.

Hiru alderdi azpimarra ditzakegu elkar laguntzarako sozietate haiei buruz: soziabilitaterako eta asoziazionismorako espazio garrantzitsuak izan ziren, bestelako erakunde

---

[59] BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia …, *op. cit.*

[60] BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado de Oarsoaldea…”, *op. cit.*, 14. or.

[61] BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia …, *op. cit.*

batzuen aurrekariak, sindikatuenak eta beste erresistentzia-talde batzuenak, besteak beste. Sozietate haietan, antolakuntzari, diziplinari, biltzarretako partaidetzari, kudeaketari eta beste arlo batzuei buruz ikasi zuten. Eta gainera, bitarteko egokia izan ziren langileen nortasuna eraikitzeko, behar-beharrezko kontua, aintzat hartuta gizartea eraldatzen ari zela eta haren jatorria oso bestelako errealitate soziopolitiko, ekonomiko eta laboral bat zela; testuinguru hartan, funtsezkoa zen harremanak egitea eta balio nahiz jarrera berriak sendotzea. Elkar laguntzarako sozietateak identifikazio kolektiboko espazioak izan ziren, trukerako espazioak. Baina, horrez gainera, hau izan zen horrelakoek Errenterian izan zuten berezitasunetako bat:

> La presencia de mujeres como socias de pleno derecho, algo que se corresponde, lógicamente, con su presencia laboral en la industria local. Así sociedades como "La Ibérica", "La sociedad de socorros mutuos de La Fabril Lanera", "Alkar-Laguntza", etc… admitían socias, aunque eso sí, pocas veces aparecían en las Juntas Directivas y, cuando lo hacían (por ejemplo en la de "La Fabril Lanera" y en la de "Tejidos de Lino", los cargos de Presidente y Secretario lo ocupaban los varones, mientras que las mujeres eran, como mucho, vocales). Esa presencia femenina implicaba también otro dato curioso, la expresa exclusión del parto como motivo de pago de prestaciones por enfermedad (aunque en el reglamento de la sociedad de socorros mutuos "Alkar-Laguntza" se prevea ayuda de 1 pts. durante tres semanas después del parto)[62].



Fabril Lanera lantegiko telariak, 1930. urtean. (EUA A014F041).

[62] LUENGO TEIXIDOR, Félix: "Sociabilidad y socorros mutuos: las sociedades de socorros mutuos de Rentería (1890-1930)", *Bilduma,* 9. zk., 1995, 34. or.

Urte haietako beste aldaketa bat izan zen zenbait fabrikak lan-arloko legeak aplikatu zituztela, lanaldiaren murrizketari buruzko xedapenak, hain zuzen ere. Esan beharra dago ez dirudiela kooperatiba haiek probintziako beste toki batzuetan izandako eragina edo garrantzia lortu zutenik Errenterian. Haien eragina eta iraunkortasuna behintzat ez daude argi jasota. Neurri batean, laguntza-sozietateak, elkarte alderdikoiak edo politikoak izan zituzten abiapuntu, eta batzuek, ziur asko, enpresa bera, baina ez ziren oso ohikoak izan, eta ez zuten lortu hurbileko beste batzuen hedadura, Lasarteko kotoi-fabrikako kooperatibarena, esaterako[63].

Industrializazio-prozesuaren aldi hartan ere Errenteria hazi egin zen tamainan eta azpiegituretan: biztanleen kopuruak gora egin zuen; 1912an La Papelera Española ezarri zuten, orduan harridura sortu zuen hormigoizko eraikin batean; zertxobait geroago, Papelera Oarso, makina ezin modernoagoekin[64]. Eta urte horretan bertan beste obra publiko garrantzitsu bat egin zuten: topoa edo Donostia eta Hendaia lotzen dituen mugaz haraindiko trena.

Manufacturas el Yute fabrikako langileek, gizon zein emakume, 1913an egin zuten Errenterian ezagun den lehen greba[65]. Lantegi horretan haria ehundu eta prestatzen zuten, eta emakumeek espartinak egiten zituzten, sortaka, beharbada nork bere etxean. Esan ohi da emakumeak otzanagoak zirela eta joera txikiagoa zutela altxamendurako, eta horregatik, aitortzen du Miguel Ángel Barcenillak, harrigarria da herriko lehen greban emakumeek parte hartu izana, edo are gehiago, greba hura sustatu izana[66].

Urtebete lehenago, 1912ko otsailean, hein batean talde feministak ekin eta ekin aritu zirelako, "Aulkiaren Legea" onartu zuten; horren arabera, industriako enpresariek aulki bat ipini behar zieten emakumezko langileei, atseden hartzeko aukera izan zezaten[67]. Urte bereko uztailean beste lege bat onartu zuten, emakumeek gauean lan egitea debekatzen zuena. Lege horien oinarrizko ideia zen emakumeak ahulak zirela eta babestu egin behar zirela, edo beharrezkoa zela haiek etxean mantentzea, etxetik kanpo lan egiten zuten denbora murriztuta[68], baina azkenean hasi ziren laneko baldintzak hobetzen saiatzen.

---

[63] BARCENILLA, Miguel Ángel, 2013/12/4ko elkarrizketa.

[64] GOÑI GALARRAGA, Joseba: *op. cit.*, 75. or.

[65] BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado de Oarsoaldea…", *op. cit.*, 26. or.

[66] 2013/12/4ko elkarrizketa.

[67] LOZA, Silvia; RUIZ, María; TRANCHE, Mercedes: *Historia de las mujeres… op. cit.*, 31. or.

[68] GARCÍA NINET, José Ignacio (dir.): *Curso sobre prevención de riesgos laborales*, Colecció Manuals 13. Universitat Jaume I, Castelló, 1998, 245.-246. or.

Legedi orokorreko aldaketez gain, beste aldaketa batzuk ere gertatu ziren hurbileko udalerri batzuetan. Irunen, esaterako, pospolo-fabrikako emakumezko langileek sindikatu feminista bat sortu zuten: Pospologileen Sindikatu Feminista[69]. Emakumeak protagonista izan zituen Errenteriako lehen greba hark eta Irungo mobilizazioak zenbaterainoko lotura izan zuten ez dakigun arren, nolabaiteko eragina izan zela pentsa dezakegu. Miguel Ángel Barcenillak azaltzen duenez, tranbia –zaldiek tiratua– erregulartasunez igarotzen zen, eta herrien arteko komunikazioa arina eta etengabea zen. Ideien eta mugimenduen zirkulazioa gizon-emakumeena bezain arina zela pentsa dezakegu[70].

1914an Lehen Mundu Gerra hasi zen, eta eragina izan zuen herriko industrien garapenean. Hasieran, eragina kaltegarria izan zen, ekoizpenak behera egin baitzuen, eta langabeziak, berriz, gora; gero, ordea, Espainiako estatuak, neutraltasunari eutsita, borrokan ari ziren herrialdeek utzitako merkatuak bete zituen, eta ekoizpenak gora egin zuen ia industria-sektore guztietan, eskaria gero eta handiagoa zelako. Ondorioz, Errenteriako hainbat enpresatako langile taldea handitu egin zen. 1915ean, La Ibérica fabrikak bikoiztu egin zuen, ia, langileen kopurua; Sociedad de Tejidos de Lino lantegiak ia-ia hirukoiztu egin zuen; Olibet enpresak 154 langile zituen, aurreko hamabi urteetan baino % 60 gehiago, eta Papelera Vasco-Belga ere antzeko proportzioan hazi zen aldi horretan.

Urte haietarako, 29 fabrika zeuden Errenterian, eta haien produktibitateak zein balioak gora egin zuten zenbait hobekuntza teknologikori esker, baina horrek ez zuen berekin ekarri ezinbestean langileen kopurua handitzea. Lanpostu gehiago sortu gabe produktibitatea haztea izan zen industrializazio-aldi horren beste ezaugarri bat.

Lehen Mundu Gerrak tokiko ekonomiari ekarri zizkion hasierako onurak enpresaburuen kapitaletan bakarrik islatu ziren, ez langileen soldatetan. Horrez gainera, eragin positiboak ez zuen asko iraun; izan ere, gerra amaitzean Europako herrialdeek berriro heldu zietenez beren jarduera ekonomikoei eta merkatuei, euskal enpresek atzera egin behar izan zuten, eta krisialdi gogorra igaro zuten. Herritarren erosteko ahalmena murriztu egin zen.

---

[69] LOZA, Silvia; RUIZ, María; TRANCHE, Mercedes: *Historia de las mujeres… op. cit.*, 31. or.

[70] Miguel Ángel Barcenilla, 2013/12/4ko elkarrizketa.

**Desberdintasunak**

Gizonen eta emakumeen soldatek desberdinak izaten jarraitzen zuten. 1915ean, bai paper-fabrikan bai Sociedad de Tejidos de Lino fabrikan, gizonek 4 pezeta irabazten zituzten, eta emakumeek, berriz, 1,5. Fabril Lanera lantegian aldea txikiagoa zen, baina bazen alderik: gizonek 2,75 pezeta jasotzen zituzten, eta emakumeek, 1,75. La Ibérica enpresan, gizonek 3,75, eta emakumeek 1,75.
Iturriak: Barcenilla, 2004, 323. or. eta Luengo, 1988, 184. or.

Itxuraz, aldi horrek barne hartzen dituen urte guztietan, hau da, lau bat hamarkadatan, ez zen aldarrikapenezko mugimendurik eta gatazka sozialik izan, 1913ko greba izan ezik. Egile batzuen ustez, hazkunde industrial neurritsuak kultura eta bizimodu tradizionalen eta industrializazioak ekarritakoen arteko egokitzapen geldia ahalbidetu zuen: ekonomiak eta harreman sozial berriek ez zuten gogor talka egin, eta gizartean giro baketsua nagusitu zen[71]. Beste batzuen ustez, Errenteriaren joera industrialak nolabaiteko berdintasunezko kutsua edo kutsu demokratikoa izan zuen, ez zuelako izan ez nagusien klase kapitalistarik, ez jauntxo-jarrerako kontrolik[72]. Hala eta guztiz ere, Europako zein tokiko gizartean aldaketak gertatu zirelako eta herrian alderdi politiko ugari eta hauteskundeetako lehiak garatu zirelako, baldintza berriak sortu ziren langileen mugimendurako. 1917tik aurrera, langileen mugimenduak askoz garrantzi handiagoa izan zuen Errenterian.

## Gorabeherak industrializazio-prozesuan eta herrian: XX. mendearen 20ko eta 30eko hamarkadak

1917tik 1939ra bitarteko aldian, Errenteriaren egoerak, bertako industriek eta haien inguruan egituratutako bizitzak aldaketa eta gorabehera asko izan zituzten. Batetik, langileen mobilizazioa handia izan zen, lehen aipatu dugunez. Aldi horren hastapenetan greba bat baino gehiago egin zuten, eta emakumeak protagonista garrantzitsu izan ziren. Beste batetik, krisiak eta suspertze ekonomikoko prozesuak izan ziren, eragina izan zutenak enpresen dinamikan, herriaren bizitzan eta, noski, emakumeen lanean. Urte haietan Europan eta Espainian piztutako gerrek eta haien emaitzek zenbait modutan eragin zuten, jakina, herriko industrializazio-garapenean. Garai hartako langile-mobilizazioek eta egoera politiko, ekonomiko

[71] BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado de Oarsoaldea…", *op. cit.*, 26. or.

[72] GOÑI GALARRAGA, Joseba: *Historia…, op. cit.*, 77. or.

eta sozialak interakzio sakona izan zuten. Lan-arloko gertaerek eta baita emakumeen egoerarekin lotutakoek ere ingurune zabalago baten eragina jaso zuten, kontinente osoan garatutako ideia eta ekintzen eragina.

Lehen Mundu Gerra 1918an amaitu zen; Europako herrialdeek berriro heldu zieten beren ekoizpenari eta merkatuei, eta euskal enpresa eta ekonomiaren hazkundea gelditu egin zen. 1920ko hamarkadaren hasieran, Europa osoan barrena hedatuta zegoen krisiak ehungintzari eta paper-industriari eragin zien bereziki, Errenterian ere bai, noski: “Papelerak, esaterako, astean zenbait egunez gelditzen zituen bere lantegiak eta horrek langileen diru-sarrerak asko gutxitzea ekarri zuen. Era berean, langabezia handitu zen, eta horrek ahuldu egin zituen langileen eskabideak; izan ere, langileak aski zuten beren lanpostuei eustearekin. Krisialdia laster amaitu bazen ere ohiko lan-erritmora itzulita, lanpostuen ezegonkortasunak eta langileen erosmen-ahalmenak berdin jarraitu zuten”[73].

## Langileen mobilizazioak, lan-arloko aldarrikapenak eta emakumeen protagonismoa

Zailtasunez jositako aldi hartan, langileen pentsamoldea nabarmen aldatu zen. 1917an, UGT eta CNT sindikatuek greba orokorra deitu zuten, eta lantegiak bi egunez egon ziren geldirik. Bizi-mailak okerrera egin ahala, nahigabea gero eta handiagoa zen, eta jendeak kemen handiagoz parte hartu zuen langileen mobilizazioetan. 1918an, hainbat langile-mugimendu nabarmendu ziren Gipuzkoa osoan, eta gizarte-asaldura handia garatzen hasi zen. Hurrengo bi urteetan UGTren tokiko zenbait sindikatu sortu ziren.

Baina lan-baldintza eta bizi-baldintza kaskarrak ez ziren izan mobilizazioaren eragile bakarrak; ordurako bazegoen gaitasuna zalantzan jartzeko nagusiaren eta Estatuaren agintea, ordura arte tabu izan zena[74].

1919ko urrian, aurretik Estatu osoan izandako aldarrikapenen ondorio gisa, indarrean sartu zen 8 orduko lanaldiaren dekretua, eguneko eta asteko lanaldia murriztu zuena, astean gehienez 48 ordu lan egin zitezkeela finkatuta. Neurri hori lagungarria izan zen lan-baldintzak eta bizi-baldintzak hobetzeko.

Urte hartan bertan, Manufacturas el Yute fabrikako emakume batzuek –“Caralt Pérez y Cía” izenez zen ezaguna, Kataluniako enpresa horrek erosi eta

---

[73] Errenteriako Udala, “Herria ezagutzen”, *op. cit*.

[74] BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit*.

modernizatu baitzuen fabrika– greba deitu zuten: matxinadak izan ziren, eta ohartarazpenak egin zizkieten, ordena publikoa manten zezaten. Eta 1920an hamar greba baino gehiago egin zituzten Errenterian. Honako hauek ziren eskaera ohikoenak: soldatak igotzea, aparteko orduak ordaintzea, istripu bat izanez gero estaldura eskaintzea, lantokietan hobekuntzak egitea, nagusiek sindikatuak onartzea eta elkartzeko eskubidea izatea. Lanarekin zerikusia zuten alderdietatik harago, alderdi politikoek, prentsak eta iritzi publikoak jendarteko harremanak eta lan-harremanak aldatzen ari zirela onartzea lortu zuten, eta arazo soziala buruhauste bilakatu zen[75]. Okinek, upelgileek, aterkigileek, ehungintzako langileek, metalurgiako langileek, tranbia-gidariek edo gozogileek euren sindikatuen gorakada baliatu zuten aldarrikapenak proposatzeko, eta, kasu askotan, grebak bi aldeen arteko negoziazioen bitartez amaitu ziren. 22 mila jardunaldi baino gehiago galdu ziren, guztira, greben ondorioz, eta mila langiletik gora parte hartu zuten horietan, gizon zein emakume[76].

Horrez gainera, urte nahasi hartan 50 lan-gatazka baino gehiago izan ziren Gipuzkoa osoan, eta emakumeek gatazka horietan izandako partaidetzaren ehunekoa industrian zuten presentziaren parekoa izan zen, gutxi gorabehera. Egia esanda, probintzia osoko datuei erreparatuz gero, badakigu emakumeen partaidetza gizonena baino handiagoa izan zela mobilizazioetan. 1917tik 1920ra, langileen % 85 inguruk parte hartu zuten grebaren batean, baina emakumeen kopurua % 99koa izan zen, eta horrek esan nahi du enpresa batean greba deituta emakumeek gizonek baino adostasun handiagoz erantzuten zutela, ia ehuneko ehunean[77].

Manufacturas el Yute lantegiko langileek 1919ko uztailean egin zuten grebari buruz gauza bakarra dakigu, hots, indar publikoek esku hartu zutela jazo ziren istilu arinetan. Baina gauza jakina da, halaber, urte hartan bertan 200 emakume Errenteriako Emakumeen Sindikatu Katoliko Askeko kide egin zirela, eta sindikatu horrek arrakasta handia izan zuen, batik bat ehungintzako emakumezko langileen artean. Sindikatuak emakumeek soilik osatutako atal bakarra izan zuen, non eta Errenterian.

Emakumeen artean, garrantzia itzela izan zuen sindikalismo katolikoak. Sindikatu Katolikoak –ez Katoliko Askeak– oinarrizko heziketa eta formakuntza

---

75 Errenteriako Udala, “Herria ezagutzen”, *op. cit.*

76 LUENGO TEIXIDOR, Félix: “XX. mendearen hastapenak (1903-1931)”, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta (zuz.), *Errenteriako Historia*, Errenteriako Udaleko Kultur Batzordea, 1996, 259., 270. or.

77 LUENGO TEIXIDOR, Félix: “La mujer en el movimiento obrero: Una huelga en Rentería en 1920”, *Bilduma*, 2. zk., 1988, 182. or.

moral eta soziala ematen zien emakumezko langileei zenbait erakunderen bidez. Erakunde horietako batzuk Nazaret Zentroak ziren, eta Errenterian emakumezko afiliatu ugari lortu zituen[78].

Gipuzkoari buruzko datuek erakusten digutenez, emakumeek presentzia nabarmena zuten sindikatuetan, eta modu aktiboan ere parte hartzen zuten, nahiz eta zenbait taldek, esaterako anarkistek, ez zituzten emakumezkoen atalak eratu beren sindikatuetan. UGTk eta beste elkarte batzuek, ordea, izan zituzten emakumeen atalak, eta kasu batzuetan, industriako adarraren arabera, afiliatu gehienak emakumeak ziren. Horren adibide da jostunen eta sastreen adarreko "orratzaren sindikatua", Donostian[79].

Urtebete geroago, 1920an, Fabrika Handiko emakumeek ere greba egin zuten, lan-baldintzen hobekuntza eskatzeko eta kaleratu zuten lankide bati elkartasuna adierazteko. Grebak bi hilabete iraun zuen, eta emakumeek borroka galdu zuten[80].

Urte hartan Niessen eta La Ibérica fabriketan ere egin zituzten lanuzteak, eta batzordeetan emakumeek ere parte hartu zuten[81]. Niessenen, Pura Garmendia, Nemesia Arruebarrena eta Mercedes Elizondo sindikalistak izan ziren gatazkaren buru, eta horiek sinatu zituzten gatazka konpontzeko akordioak. Honako hauek adostu zituzten, besteak beste: astean gehienez 48 ordu lan egitea, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta lanegun eta egunsari erdia galtzeko zigorra, langilea, gizon ala emakume, ez bazen garaiz iristen lantegira[82]. Baina, Félix Luengok azaltzen duenez, beste edozein greba baino aipagarriagotzat jo izan da, emakumeek izan zuten protagonismoagatik, Tejidos de Lino fabrikakoa. Emakumezko Langileen Sindikatu Katoliko Askeak deitu zuen greba, bertako kideak baitziren lantegiko 60 emakume. Hasi zenean, lantegiak 27 gizoni, 3 gizon gazteri, 52 emakumeri, 95 emakume gazteri eta 2 neskatxari ematen zien lana, hau da, 179 pertsonari, 149 emakume eta 30 gizon[83].

Nagusiak ezarritako isun bat ordaintzeari uko egiteagatik lankide bat kaleratu zutelako egin zuten lanuztea. Araudiaren arabera, hainbat arrazoirengatik ezar ziezaieketen isuna langileei; esaterako, jantzigintzako atalean lanorduetan hitz egiteagatik 10 zentimoko zigorra jartzen zieten. Isuna ordaindu ezean, kaleratu

---

[78] *Ibidem*, 183. or.

[79] *Ibidem,* 182. or.

[80] Errenteriako Udala, "Herria ezagutzen", *op. cit.*

[81] LUENGO TEIXIDOR, Félix: "La mujer en el movimiento…", *op. cit.* 184. or.

[82] LUENGO TEIXIDOR, Félix: "XX. mendearen hastapenak…", *op. cit.,* 249. or.

[83] LUENGO TEIXIDOR, Félix: "La mujer en el movimiento…", *op. cit.* 184. or.

egiten zituzten langileak. 1920ko uztailaren 21ean, horrelako kaleratze bat gertatu zela, batzorde bat zuzendariarengana joan zen, eta kaleratutako langilea berriz onartzeko eskatu zion. Eskaerari emandako ezetzak greba ekarri zuen, eta fabrikako hainbat atalek egin zuten bat lanuztearekin. 98 langilek egin zuten greba, guztiak emakumeak; aitzitik, 30 gizonek lan egin zuten. Hau da, gatazka hark emakumeak izan zituen protagonista, buru eta euskarri. Hilabetetik gora iraun zuen, eta nagusiaren jarrera gogorraren ondorioz, emakumeek porrot ikaragarria ekarri zien akordio bat sinatu behar izan zuten azkenean, eta parte hartu zutenetatik hamabi ez zituzten berriz onartu eta kalean geratu ziren[84].

1921ean egoera bestelakoa izan zen. Greba bakarra egin zuten, Illarramendiren tailer mekanikoan[85]. Zahartzarorako Nahitaezko Aseguruari buruzko legedia onartu zuten. Baina urte horretako gertakari nabarmenena zera da, emakumeen jarduera industrian % 20 txikitu zela, hainbat arrazoirengatik, hala nola gizonek bakarrik betetzen zituzten sektoreek eta lanek hazkundea izan zutelako eta emakumeen lanaren gaineko legezko kontrola areagotu zelako. Azken neurri horrekin, emakumeei igo egin behar izan zieten soldata, eta ondorioz ez zen lehen bezain abantailatsua haiek kontratatzea[86].

## Beste emakumezko langile batzuk

Emakumezko langileen lan industrialaz eta mobilizazioez gain, gogoan izan behar dugu herriko biztanle aktiboen artean zeudela emakume baserritarrak ere. Ez daude jarduera ekonomikoen erroldetan erregistratuta, baina, aintzatespenen arabera, 20ko hamarkadaren hasieran emakumezko biztanle ekonomikoki aktiboen kopurua % 20-25 handiagoa izango zen Gipuzkoan baserritarrak kontuan hartuta. Ehuneko horri etxeko zerbitzuetan ziharduten emakumeak gehituz gero, emakume langileen proportzioa oso altua zen. Datuak osatugabeak badira ere, esan bezala, Errenteriako eta probintzia osoko eredu industrialaren bereizgarria zen emakumeen presentzia handiko industria-adarrak garatu zirela, hala nola jantzigintza, ehungintza, kimika-industria, baita presentzia txikiagoa izanik ere emakumeei lan ematen zieten beste industria-adar batzuk ere, paper-industria, elikagaigintza eta altzarigintza, besteak beste[87].

---

84 *Ibidem,* 185. or.

85 Errenteriako Udala, "Herria ezagutzen", *op. cit.*

86 *Ibidem.*

87 LUENGO TEIXIDOR, Félix: "La mujer en el movimiento…", *op. cit.,* 179.-186. or.

1920. urtetik aurrera, herriko biztanleria landatarra murrizten hasi zen, gelditu gabe, eta Errenteriako urbanizazioak aurrera jarraitu zuen: ordurako, etxebizitzek ura eta komuna zeuzkaten, azken hori partekatua.

Zerbitzuen sektoreko gainerako ogibideak eta jarduerak ere garatu ziren. 20ko hamarkadarako, garraioen eta komunikazioen sektorearekin lotutako lanak ugaritu egin ziren; izan ere, "Euskal Herria lehena izan zen komunikazio telegrafikoak abian jartzen, hein handi batean Europako mendebaldearekin lotzeko linea Frantziatik zetorrelako eta merkataritza itsasketak garrantzi handia zuelako". Telefonisten eta idazkarien lanek, emakumeek bakarrik egiten zituztenek, goraldia izan zuten garai hartan Gipuzkoan[88]. Miguel Ángel Barcenilla historialariaren arabera, Errenterian trenari lotutako lanak eta bulegoetakoak maskulinoak izan ziren urte askoan, jarduera kualifikatuak zirelako; eta, ziur asko, 20ko hamarkadan hasi ziren emakumeak beste toki batzuetan aspalditik erabat femeninoak ziren ogibide horietan sartzen[89]. Ez dugu datu ziurrik aurkitu emakumeak lan horietan sartzeko prozesuari buruz, ezta haien esperientziari buruz ere.

## Kontrol eta babes sozialak, eta industria-garapena

1923an, Primo de Riveraren diktadura hasi zen, eta, harekin batera, industriaren hazkunde-aldi bat, industriako produktuen gaineko protekzionismoak eta obra publikoen sustapenak bultzatua. Horren guztiaren ondorioz, kontsumoa handitu egin zen. Politika autarkikoa zen, hau da, autohornikuntzan oinarritua; hortaz, industriaren barneko garapena eta ekoizpena lortu nahi zituzten, Estatuak esku hartuta ekonomian: merkatuak, prezioak eta ekoizpena araututa; laguntzak emanda, eta muga-zergak kontrolatuta.

Bestalde, arlo sozial eta politikoan, nolabaiteko egonkortasuna nagusitu zen, sindikatu komunistak eta anarkistak debekatu zituztelako, paternalismoa ezarri zutelako eta aurreko urteetan onartutako lan-arloko legeen eragin lasaigarriak aurreko gizarte-asaldura baretu zuelako. Horrez gainera, erosteko ahalmena hobetu egin zen[90].

Primo de Riveraren politika sozial eta ekonomikoak beste mota bateko lehiakortasuna eta baliabide-arrazionalizazioa oinarri zituen logika ezarri nahi zuen, berekin ekarriko zuena enpresek antolakuntzako koordinazioa hobetu beharra eta

---

[88] URDANGARÍN ALTUNA, Carmelo eta IZAGA REINER, José María: *Euskal lanbide…*, *op. cit.*

[89] 2013/12/4ko elkarrizketa.

[90] Miguel Ángel Barcenilla, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

langileak eremu produktibo eta tekniko berrietara egokitu beharra. Logika horretatik, langileen mugimendua kontrolatuta zegoen, gizarteko diziplinarik ezak kalte egiten baitzion lanari eta suntsitu egiten baitzuen ekoizpena. Langileen gatazkak gainditzearen garrantzia azpimarratuta, ahalegina eskatu zioten langileriari, eta langileen elkarteei, berriz, elkarlana, guztien interesaren alde egiteko. Interes hura modernizazioa eta produktibitatea ziren. Askatasun sindikala galdu zuten, eta korporatibismoak aurrera egin zuen[91].

Arlo sozialean, nabarmentzekoa izan zen, baita ere, bi kooperatiba sortu zirela: bata, papergileena[92], eta bestea, Etxebizitza Merkeak Eraikitzeko Errenteriar Kooperatiba[93]. Bi-biak 1920ko hamarkadan sortu zituzten.

Testuinguru hartan sortu ziren, batetik, 1924an, Fábrica Electrotécnica Euzkaria enpresa, gero G. Echeverría y Cía, S.A. (Pekin) izena hartu zuena, eta bestetik, 1925ean, La Esmaltería Guipuzcoana, langile gehienak emakumezkoak zituena (% 70). Azken horrek lantegia handitu zuen urte gutxi batzuk geroago, eta, horretarako, Pekingo garbitokia bota zuen, 1930ean[94]. Udalak herri-lurrak saldu zizkion enpresari, eta lur horiek barne hartzen zuten garbitoki zaharra, ordurako bakarra herri osoan. Gertaera hori jasota dago garai hartako tokiko aldizkari batean:

> La municipalidad renteriana, deferente siempre con la expansión industrial, que marca los jalones de la creciente prosperidad de la villa, acordó acceder a los deseos de la Esmaltería. Y a falta del lavadero de Pekin, surgió imperativamente, con el imperio de las conveniencias del pueblo, la necesidad de la construcción del nuevo lavadero[95].

Nabarmentzekoa da industriekiko "begirune" hark eta haiek ezarritako "mugarri" batzuek biztanleak kontsumorako urez hornitzeko arazoak eragin zituztela, besteak beste, eta arazo hori areagotu egin zen urteek aurrera egin ahala, hamarkada batzuk geroago arazo larri izatera iritsi arte.

Errenteriako industrian emakumeek lanean jarraitu bazuten ere, emakumezko langileen kopurua murriztu egin zen, batetik, gutxitu egin zirelako emakumeak kontratatzeagatiko abantailak eta emakumeentzat "egoki" ziren lan edo sektoreetan ziharduten enpresak, eta bestetik, Primo de Riveraren diktaduraren

---

91 PÉREZ PÉREZ, José Antonio eta IBÁÑEZ ORTEGA, Norberto: "Orígenes y desarrollo del socialismo en el País Vasco", *Bilduma,* 19. zk., 2005, 114.-115. or.

92 EUA B/7/2/6.

93 EUA B/7/3/5.

94 Errenteriako Udala, "Herria ezagutzen", *op. cit.*

95 *Renteria* aldizkaria, 13. zk., 1930.

nazionalkatolizismoarekin nagusitu egin zelako emakumeek etxetik kanpo lan egitearen aurkako pentsamoldea:

> Había una presión muy fuerte para que las mujeres dejaran de trabajar. Había presión sobre ellas, y sobre el marido, porque si no era capaz de mantener a la familia, no era suficientemente hombre. Esa ideología insistía mucho en que el lugar de las mujeres era el hogar y su papel, criar hijos para la patria. Entonces se toleraba que trabajaran mientras eran solteras, pero al casarse, la idea era que tenía que dejar de trabajar[96].

Nolanahi ere, garai hartako diktadura "ahul" samarra zen. Paternalista zen, Miguel Ángel Barcenillaren esanetan, eta, hori dela eta, "zaindu" egin nahi zituen, nolabait, langileak eta, oro har, herritarrak[97]:

> Como necesita darse un barniz de modernidad, es la primera vez que se permite a las mujeres votar y ser concejales, cosa que hasta entonces no se había conseguido[98]. Es contradictorio, porque por un lado quiere mantener esa vida tradicional, pero a la vez quiere modernizarse y crea una especie de comités de obreros y permite que los sindicatos formen parte de eso. Y respecto a las mujeres, tolera derechos y hasta los consolida[99].

Eskubide horiek finkatuta, emakumeek, formalki, beren komunitateetako bizitza politikoan parte har zezaketen. Halaber, horien haritik onartu zuten, esaterako, Nahitaezko Erretiroaren Legea, 1931koa. Horrez gainera, Primo de Riveraren politiken artean, azpiegiturak garatzeko plan nazional bat prestatu zuten, eraginik izan zuena Errenterian: 1926an, hirigintzako lanak abiarazi zituzten Versallesen, Agustinetan, Gaztañon eta Morrongilletako kalezuloaren ondoan.

Denboraldi hartan, etengabe ireki zituzten jangaien dendak (28 ziren 1929an), saltokiak, kafetegiak eta tabernak, herritarrek gero eta diru gehiago eta aisiarako denbora gehiago zituzten seinale[100].

---

96 BARCENILLA, Miguel Ángel, 2013/12/4ko elkarrizketa.

97 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

98 Eskubide hori pixkanaka eskuratu zuten. 1924an, familiaburu ziren emakumeak izan zitezkeen hautesle eta hautetsi tokiko esparruan, eta hurrengo urtean, probintzietako eskualdeetan. 1926an plebiszitu bat izan zen (ez hauteskunde demokratikoak), eta emakume guztiei utzi zitzaien bozkatzen. 1927an, zenbait aulki gorde zituzten emakumeek parte har zezaten Kontsultarako Batzorde Nazionalean, eta batzorde horretan zeharka hautatu zituzten. Emakumeek II. Errepublikaren konstituzioan lortu zituzten bozkatzeko erabateko eskubidea eta beste organo politiko batzuetan parte hartzeko aukera gehiago.

99 2013/12/4ko elkarrizketa.

100 BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado de Oarsoaldea…", *op. cit.*, 25. or.




Irudia: *Anuario regional descriptivo, informativo y seleccionado de la industria, comercio, agricultura, arte y turismo del Norte de España*, 1932.

Bereziki interesgarria da nabarmentzea emakume bat baino gehiago zela horrelako negozioen buru, edo gutxienez titular. 1932ko erregistroan jasota dagoenez, Mendarteren alargunak gozotegi eta jangaien denda bat zuen; Jáureguiren alargunak, gozotegi bat; Lecuonaren alargunak eta Urrutiaren alargunak, okindegi bana; eta zazpi emakumek zeukaten jabetzan olioa, ozpina, lekale lehorrak, bakailaoa eta antzeko jakiak txikizka saltzeko postu edo saltoki bat: María Arandiak, María Ramona Argayak, María Arrondok, Berasateguiren alargunak, María Cortak, Cornelia Echevestek eta Gregoria Mayorrek. Feliciana Galarraga esne-denda baten jabea zen.












Ostalaritzari eta elikadurari lotutako negozio horiez gain, sei emakume ziren mertzeria baten jabe: Dorotea Berrondo, Echevarríaren alarguna, Manuela Iguarán, Francisca Inciarte, Manuela Jiménez eta Josefina Lorente. Beste lau, jostunak: Margarina Gamborena, Joaquina García, Alejandrina Montijo eta Guadalupe Moreno. Eta Fructuosa Urtea kortse-denda baten jabea zen. Prudencia Sorazuk jostailuen negozio bat zeukan. Horrelako saltokiez gain, erregistratuta daude margolarien negozio bat eta latorritegi bat Goeneagaren alargunaren izenean, eta Viuda e Hijos de Uranga izeneko egur-tailer nahiz zurgindegi bat[101].

Aurreko urteetan aldaketa handia gertatu zen pentsamoldean eta gizonen eta emakumeen arteko harremanetan. Gerra Handiak iraun artean, gizonak borrokara joan ziren, eta Europa osoko emakumeek bete zituzten ordura arte gizonenak izan ziren lanak eta eginkizunak, eta sexu bakoitzak betetzen zuen tokia eta haien arteko botere-harremanak aldatu zituzten zenbait gertaera jazo ziren. Herrialde batean baino gehiagotan, 20ko hamarkadara iritsi aurretik lortu zuten emakumeek bozkatzeko erabateko eskubidea; toki publikoetara joaten eta urte askoan debekatuta izan zituzten jarduerak egiten hasi ziren, kirola, esaterako. Janzkera aldatu zuten, eta gizonekin beste modu bateko harremana izaten hasi ziren[102]. Jarrera eta ideia berri haiek ia hamarkada bat geroago iritsi baziren ere herrira, testuinguru berria eratzen joan zen, eta apurka-apurka eta mailaz maila eragina izan zuen emakumeengan eta haien aldarrikapenetan. 1920ko hamarkadaren amaieran eta 1930ekoaren hasieran gizartearen pentsamoldea desberdina zen. Eta herria ere bai.

1930eko hamarkadaren hastapenetan, dozenaka artikulu desberdin fabrikatzen zituzten Errenterian. Testu honek, 1932koak, argi erakusten du tokiko ekoizpenaren aniztasuna:

101 *Anuario regional descriptivo, informativo y seleccionado de la industria, comercio, agricultura, profesiones, arte y turismo del Norte de España*, Anuarios Regionales de España, Madrid, 1932, 636.-637. or.

102 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

La villa de Rentería está caractérizada en los tiempos actuales por su inusitado movimiento industrial que crece progresivamente y que hoy constituye uno de sus florecimientos y riqueza.
Su amplio término municipal, bañado por el río Oyarzum, produce maíz y manzanas.
Riqueza pecuaria de las especies cerdal, bovina y lanar. Industria pesquera. Fabricación de alambres, carbonato de plomo (albayalde), alcohol, alpargatas, aserras maderas, barnices, batería de cocina, bizcochos, galletas, bloques de cemento, botones de cuero y asta, calzado, camas de madera, cepillos, electricidad, envases metálicos, espino artificial, fieltros (para la fabricación de papel y pasta), gaseosas, géneros de punto, artículos de goma, harinas, hilados de lana y estambre, lejías, artículos de material aislante, medallas, plumbato plímbico (minio), muebles, orfebrería religiosa, papel continuo, paquetería, muebles de acero, paraguas, pastas de madera, peinar lana, peines, perfumería, pintura, planchas de plomo, pulverizadores para tocador, puntas de París, tacones, suelas, sulfato de alúmina, lino, algodón, tirafondos de latón y hierro, tornillería, tubos de plomo y cinc.

Errenteriako ekoizpena 1932an. (Iturria: *Anuario regional descriptivo, informativo y seleccionado de la industria, comercio, agricultura, profesiones, arte y turismo del Norte de España*, 1932).

Enpresa ugari horien artean, Agustina eta Eladia Iradi, María Recalde eta Echeverríaren alarguna ehun-fabriken jabetzat ageri dira, eta Josefina Lorente, puntuzko ehunen fabrikaren jabetzat. Arribarrenaren alarguna erregistratuta zeuden bi espartin-fabriketako baten jabea zen, eta Valverderen alargunak inprimategi bat eta litografien enpresa bat zeuzkan[103]. Londaiz, Ubarrechea y Compañía

[103] Ikusi eranskinetan Valverderen alargunaren enpresako langile taldearen zerrenda (2. eranskina). Udal Artxiboan gordeta daude 30eko hamarkadako espedienteak, eta horietan aurki ditzakegu hainbat enpresatako langileen zerrendak, lanera itzultzeko edo lanetik kaleratzeko jakinarazpenak eta mota horretako beste dokumentu batzuk. Batik bat 1931ko datuak daude, urte horretan informazioa bildu baitzuten langabetuen errolda bat egiteko. EUA B/6/4/6. Espedientean jasotakoaren arabera.

izeneko errota garai hartako beste industria aktiboetako bat zen, eta sozietate horretan zegoen Cesárea Garbuno[104].

Zaila da jakitea zer ondorio zuen titulartasunak emakume haientzat, eta ziur asko ondorio hori aldatu egiten zen kasu batetik bestera eta denboran barrena edo negozioaren ibilbidean. Nolanahi ere, pentsa dezakegu negozioaren jabetzak edo enpresa-sozietateetako partaidetzak jarduteko nolabaiteko askatasuna edo gutxi gorabehera modu aktiboan parte hartzeko aukera emango ziela garai hartan, nahiz eta negozioa beste senide, administratzaile, bazkide edo langile batzuek gidatu.

1930eko hamarkadarako, herrian bertan jaiotako biztanleak % 45 bakarrik baziren ere, % 81 euskal probintzietakoak ziren, hau da, herrira kanpotik iritsitako biztanle gehienak ingurune euskaldunetatik zetozen, eta horrek erraztu egiten zuen bertakotzea[105].

1932an, azkenean, hirigintza-plan bat zehaztu zuten herrirako, Eraikuntzako Udal Ordenantzetan jasoa. Ordura arte, eraikuntza ez zen araututa egon, eta horregatik ezarri zituzten hainbeste lantegi hiriaren erdigunean eta inguruan; ordutik aurrera, hiriaren hazkuntza diseinatu nahi zuten, nahiz eta hazkuntza hori asko baldintzatzen zuen fabriken, tailerren eta logela-etxeen nahaspila batzuetan osasungaitzak[106].

Urte hartan hondamendiak ere izan ziren. Errenteriak uholdeen historia luzea badu ere, gogoan geratu dira 1932ko abuztuaren 27koa (urak 0,70 metro hartu zituen), 1933ko ekainaren 16koa (3,15 metro) eta urte bereko urriaren 23koa (3,65 metro). 1933koak izan ziren larrienak. Zenbait pertsona hil ziren; etxebizitzek kalteak izan zituzten, eta enpresa txiki zein handiek, galera materialak:

---

104 *Anuario regional descriptivo, informativo y seleccionado de la industria, comercio, agricultura, profesiones, arte y turismo del Norte de España*, Anuarios Regionales de España, Madrid, 1932, 636.-637. or. Pasaiak, udalerri mugakidea izaki, merkataritzako eta laneko truke handia zuen Errenteriarekin, eta ezaguna da han ere emakume asko izan zirela saltokien, elikagai-denden, okindegien eta bestelako enpresa nahiz negozioen buru, Lezon eta Oiartzunen ez bezala. Bi herri horietan Pasaian eta Errenterian baino askoz industria eta negozio gutxiago zeuden, eta Lezon ez dago emakumerik enpresa-jabeen artean, arropa-denda baten jabea izan ezik. Oiartzunen ere ez zen emakume asko negozioen buru, honako kasu hauek salbuetsirik: Michelenaren alargunaren elektrizitate-fabrika, Joaquina Artolaren izenean zegoen errota eta Bonifacioaren alargunaren izenean zegoen handizkako ardo-saltokia. 1932ko urtekari horren arabera, Pasaian, La Vasconia paperezko manufakturen fabrika Ribateren alargunarena zen data haietan; Pasaiako lau likore-fabriketatik bi emakumeenak ziren: Marie Brizard et Roger eta Viuda de Esteve Dalmasés. Mendíaren alarguna okindegietarako makinak eraikitzen zituen enpresa baten jabe gisa agertzen da; Cámararen alarguna eta ilobak itsasontzien enpresa kontsignatario baten titularrak ziren, eta aduanetako sei agentzia eta komisionista zeuden alargunen izenean (Fernándezena, Betsellereba, Ochoarena, Cámararena, Rodrigorena, Yurritarena) (*Ibidem,* 619.-620., 627., 629.-630. or.).

105 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

106 *Ibidem*.

saltokietan, tabernetan eta bulegoetan ur-lasterrak pertsianak apurtu zituen, eta kaleetan barrena arrastaka eraman zituen salgaiak eta salmahaiak. Paper-fabrikatik flotatzen ateratzen ziren paper-bobinak, ibaian behera. Eta enpresa askok eta askok ikusi zuten nola eramaten zituen urak beren produktuak[107]. Zenbait enpresa-espedientetan adierazita dagoenaren arabera, urte hartan, lanik ez zegoela eta, La Ibérica fabrikak lanaldiak murriztu zituen, eta Papelera Oarso enpresa gelditu egin zuten[108].




Fabril Lanera enpresaren inguruen egoera 1933ko uholdeen ondoren. (EUA A056F028).

## II. Errepublika, Gerra Zibila eta diktadura frankistaren hasiera: garai nahasiak industriarentzat eta ekonomiarentzat

1930eko hamarkada II. Errepublikak eta Gerra Zibilak markatu zuten[109], eta aurrerapausoak eta atzerapausoak izan ziren industriaren eta ekonomiaren arloe-

---

107 "50 años de las inundaciones", *Oarso,* 39. zk., 2004, 20.-21. or.

108 EUA E/3/16/4. Ikusi 3. eranskinean Niessen lantegiko gutun bat, 1931koa, Errenteriako alkateari idatzia orduko egoera ekonomikoaren berri emateko.

109 Hemen labur-labur aipatuta dagoen garai honen bilakaerari eta ondorioei buruzko azterketa sakon bat Pedro Barruso eta Mikel Zabaletaren lanean aurki daiteke (1996).

tan. Gizarte-mobilizazioak, politikako partaidetza eta ekintza sindikala bertan behera geratu ziren gerra iristean, baita lan-arloko legedian lortutako aldaketa positiboak ere, laneko kontratua eta negoziazio kolektiboa, besteak beste[110].

Errepublikak herrialdeko militantzia politikoaren eta sindikalaren eztanda ekarri zuen, eta, ondorioz, espazioak ireki egin ziren emakumeentzat. Euskal Herrian emakumeen antolamendua indartsua zen, eta askotan alderdi politikoen inguruan egituratuta egoten zen. Horrelako taldeen artean, nabarmentzekoak dira bi, jarduera bizia zutelako: Margaritak, Alderdi Karlistakoak, eta Emakume Abertzale Batza, Eusko Alderdi Jeltzalekoak. Alderdi horietako atal femeninoak ziren. Emakumeek fabriketan, tailerretan eta saltokietan egiten zuten lana errealitate saihetsezina zen ordurako, eta errepublikako legediak indargabetu egin zituen emakume ezkonduak lan-merkatutik kanpo uzten zituzten legeak[111]. Emakumeen eguneroko bizitzan eta eskubide zibiletan ere izan ziren aldaketak, Konstituzioak berdintasuneko eta askatasuneko ikuspegitik arautu baitzuen familiarekin zerikusia zuen oro[112].

1936an oso bizi-maila altua lortu zuten herritarrek. Gerran eta diktaduraren lehen urteetan galduta, hogei bat urte behar izan zituzten berriz maila horretara iristeko[113].

II. Errepublikan aurrerapauso eta lorpen handiak izan baziren ere, aitortu beharra dago horietako batzuk, bereziki emakumeen berdintasunari lotutakoak, zehaztu gabe geratu zirela edo adierazpen hutsak besterik ez zirela izan. Hainbat oztopo aurkitu zituzten, hala nola ohiturak, Eliza Katolikoaren eragina eta indargabetu gabeko lege diskriminatzaileak. Sindikatuak ere oztopo izan ziren[114]. Krisialdietan edo garai zailetan, gatazka sortzen zen gizonezko langileen eta emakumezko langileen artean, enpleguak nork lortuko, eta sindikatuek, beren adierazpenak eta programa ofizialak gezurtatuta, emakumeen enpleguaren murrizketen alde egin zuten beti[115].

1936ko irailaren 11n, erreketeak sartu ziren herrian; gerra Errenteriara iritsi zen, eta, Miguel Ángel Barcenillak azaltzen duen moduan, herritarren erdiek baino

110 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit*.

111 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Historia contemporánea de las mujeres en Euskal Herria”, Marta Agirrezabala, *et al., La mujer en Euskal Herria (Hacia un feminismo propio),* Egileak - Basanere Argitaletxea, Donostia, 2001, 43.-44. or.

112 LOZA, Silvia; RUIZ, María; TRANCHE, Mercedes: *Historia… op. cit.,* 41. or.

113 BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado de Oarsoaldea…”*, op. cit*., 35. or.

114 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit*.

115 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Historia contemporánea…”, *op. cit*., 44. or.

gehiagok Bilbora ihes egin zuten, hiri hura Eusko Jaurlaritzaren esku baitzegoen oraindik. Hala eta guztiz ere, herritar batzuk fusilatu egin zituzten. 30 edo 40 exekuzio inguru izan ziren, eta pertsona horietako asko ordezkapenez fusilatu zituzten: EAJko politikari batek alde egin bazuen, haren anaia edo emaztea hiltzen zuten, edo herrian geratutako edozein senide. Errepresioa gogorra izan zen, baina ez haiek nahi bezainbestekoa, ez baitzituzten aurkitu benetan garbitu nahi zituztenak. Ziur asko, portua eta trena, betiko komunikazio arinak, lagungarriak izan ziren herritik bizkor alde egiteko[116].

Herriko zenbait emakumek gogoan dute gerra. Hau kontatu digu haietako batek:

> *Gerra gure etxetik hasi zen, Santa Klara kalean, gorriak hilerrian baitzeuden, eta gu etxean (...) Leiho bat genuen, eta han jarri genuen etxean genuen guztia, baita pentsu-zakuak ere. Errementariaren emaztea gora igo zen, semearen biberoia berotzera, eta bala galdu batek hil zuen* (gazt.)[117].

Beste batek kontatu digunez, sirenak entzutean ezkutatu egin behar zuten, eta batzuetan fabrika abandonatu batean ezkutatzen ziren, edo etxeko lehen solairura jaisten ziren. Aipatu digu, halaber, egun haietan Sin Rival izeneko tindategia oso garrantzitsua izan zela eta handik jende asko irteten zela 12:00etan, fabrikaren hotsarekin. Gogoan du lurrun-hodiaren soinua, oso zaratatsua, ohi baino zaratatsuagoa. Ekainaren 19a zen, nazionalek Bilbo hartu zuten eguna.

Bilbo hartu zutenean, Errenteria utzi zutenak itzuli egin ziren, eta Manufacturas el Yute fabrikan giltzapetu zituzten, sailkatzeko: aske uzteko edo atxilotzeko[118]. Heriotza-zigorrek, atxilotzeek, kargu-garbiketek, erbesteraldiak, ondasun-bahiturek eta negozioak irekitzeko zailtasunek testuinguru ikaragarria eratu zuten. Industria geldirik egon zen hainbat hilabetez: merkatua gaizki zegoen; kontsumoak behera egin zuen, eta ez zegoen ez lehengairik, ez behar bezalako tresneriarik[119].

Gerrak, halaber, eginkizun ugari ekarri zituen emakumeentzat, batez ere elkarte politikoekin edo edonolako erakundeekin lotura zutenentzat, baina ez haientzat bakarrik. Hona hemen lan horietako batzuk: errefuxiatuei, zaurituei eta umezurtzei zaintza eta laguntza ematea; pertsona batzuei alde egiten laguntzea, eta gerran zuzenean laguntzeko jarduerak gauzatzea, ekintza armatuak barne. Begoña

116 2013/12/4ko elkarrizketa.

117 Argitaratzailearen oharra: (gazt.) laburdurak jatorrizkoa testigantza gaztelaniaz zela eta itzuli egin dela esan nahi du.

118 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

119 *Ibidem.*

Gorospek aztertu duenez, euskal udalerri askotan Emakume Abertzale Batza, Emakume Gazte Sozialistak edo Emakume Gazte Libertarioak taldeak emakumeak gerran antolatzeko eta aktiboki parte hartzeko espazio garrantzitsuak izan ziren, lan handia egin zutenak[120].

Eta, beste toki askotan gertatu zen bezalaxe, Errenterian ere errepresaliak hartu zituzten emakumeen aurka: dibortziatzeagatik, politikari izateagatik, Euskal Emakumeen Elkarteko edo sindikaturen bateko kide izateagatik, mezatara ez joateagatik edo senargai komunista edukitzeagatik. Ilea moztu, errizino-olioa eman eta herrian barrena erakusten zituztela kontatzen du Barcenillak[121].

Lehen urteetan, diktadurak ahalegin handiak egin zituen gizonen eta emakumeen esparruen arteko erabateko bereizketa ezartzeko, eta aurreko hamarkadetan konkistatutako espazio publiko gutxietatik kanporatu zituen emakumeak, lehenengo eskoletan, eta gero, 1938an, lan-arloan, Laneko Forua ezarrita, helburutzat zuena emakume ezkonduak tailerreko eta fabrikako lanetatik libratzea zenbait neurriren bidez: kontrolak, debekuak eta baita sariak edo pizgarriak ere[122].

1939an errazionamendua eta gosea izan ziren nagusi. Gerra Zibilak eta Bigarren Mundu Gerrak krisi ekonomiko larria sorrarazi zuten; erregimen frankistak isolamendua eta autarkia ekarri zituen; etxe askotan ez zegoen gizonik –hilda, atxilotuta edo erbesteratuta zeudelako–; errepublikanoen bandoko gizon-emakumeek errepresaliak pairatzen zituzten, eta lege-aldaketek mugatu egin zuten ezkondutako emakumeen enplegua eta lana. Testuinguru hura oso zaila zen herritar ororentzat, bereziki gerra galdu zutenenentzat eta emakumeentzat[123]. Egia esanda, Estatu osoan, gerraondoko miseriak emakumeei eragin zien bereziki. Nabarmen egin zuen gora, adibidez, prostituzioak, 1956ra arte onartuta egon zen praktikak[124].

1939an, enplegu-bulegoetan langile gisa izena ematea debekatu zitzaien emakumeei, familiaburu izanik lana familia mantentzeko behar zutenei eta ezkongabeei izan ezik[125].

Emakume askok dituzte gogoan garai haietako zailtasunak. Honela kontatu digu batek: “Gerran eta gerraondoan, errazionamenduarekin, Simonaren dendara

[120] GOROSPE, Begoña: “Eusko emakumeak: recogiendo su memoria desde una mirada feminista”, prentsan.

[121] 2013/12/4ko elkarrizketa.

[122] BARCENILLA, Miguel Ángel, “Historia contemporánea…”, *op. cit.*, 47.-48. or.

[123] LOZA, Silvia; RUIZ, María; TRANCHE, Mercedes: *Historia…, op. cit.* 83. or.

[124] ORTIZ, Manuel: “La mujer en la dictadura franquista”, Facultad de Humanidades de Albacete, Universidad Castilla La Mancha, maiatza, 2006.

[125] *Ibidem*.

joaten ginen, kartarekin; ez zegoen dirurik, eta dena errazionamendu-kartarekin egiten genuen"[126] (gazt.).

Gerraren ostean, herriko industria 1940. urtearen inguruan hasi zen hobetzen, berreraikitze-lanak abiarazi zituztenean.

Hala ere, enpresa batzuk denbora luzeagoz egon ziren egoera kaskarrean, hala nola gaileta-fabrikak. Batetik, gerraostean gailetak egiteko oinarrizko osagaien eskasia izan zelako, eta bestetik, erregimen berriak Loste, Fontaneda eta beste probintzia batzuetako beste zenbait gaileta-enpresaren alde egin zuelako eta zigortu egin zituelako euskal gaileta-fabrikak, probintzia "traidoreetakoak", kontsumo-eskubideak ordaintzeko erabiltzen ziren bulegoen kontrolaren bidez (fielatoak), irina, azukrea eta legamia ez hornituta[127].

## XX. mendearen erdialdea (1940-1960)

1940ko hamarkadaren hasieran, herriak 10.000 biztanle zituen, eta gizon-emakume haietatik 2.500ek lan egiten zuten industrian. Gerraosteko hamarkada horrek izan zuen aro industrial osoko biztanleria-hazkunde txikiena.

Frankismoaren lehen aldian, Estatuak hainbesteraino zuzentzen eta kontrolatzen zuen ekonomia, ezen baldintza eta baimen ugari ezarri baitzituen enpresak ireki edo handitzeko eta lehengaiak edo makinak inportatzeko. Paper eta baimenen egitura hartan, handiak ziren eraginkortasunik eza eta ustelkeria, eta enpresen hornidurarako nahiz garapenerako arazoak eragin zituzten. Horrez gainera, biztanleen bizi-maila eta merkatuaren kontsumo-ahalmena nabarmen murriztu ziren. Hala eta guztiz ere, Errenteriako industria batzuek lehiakortasuna mantentzea eta baita areagotzea ere lortu zuten[128].

1943an, 26 lantegi garrantzitsu zeuden herrian, eta industria-sektorean lan egiten zutenen kopurua 1932. urteko kopuruaren parekoa zen. La Esmaltería

---

[126] 1939ko abuztuan, errazionamendua ezarri zuten, eta lehen familien elikaduraren oinarri ziren artikuluak, hala nola ogia, luxuzko artikulu bihurtu ziren. Eskura zitezkeen elikagaiak mugatuak ziren, eta behar baino kaloria gutxiago zituzten. Funtzionarioek herriko uztetatik eta aziendatik jasotzen zutena egoki irizten zioten tokian banatzen zuten, eta pregoilariek edo aguazilek iragartzen zuten produktu jakin bat iritsi zela, jendeak adierazitako saltokian jaso zezakeena, errazionamendu-karta erabiliz. Familia bakoitzak karta bat zuen, kupoidun taloitegi moduko bat. Hiru karta mota zeuden, familiaburuaren maila sozialaren, osasunaren eta lanaren arabera. Orokorrean, oso jaki gutxi ziren, eta herritarrek gose handia izaten zuten. Testuinguru hartan, emakumeek familia jakiz hornitzeko egiten zuten lana funtsezkoa zen, eta esfortzu-ordu luzeak eman behar izaten zituzten horretan. LOZA, Silvia; RUIZ, María; TRANCHE, Mercedes: *Historia…, op. cit.,* 84. or.

[127] SÁNCHEZ, Esteban: *Artiach la fábrica de galletas de Bilbao 1907,* BBK, 2007, 139. or.

[128] BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado de Oarsoaldea…", *op. cit.*, 33. or.

Guipuzcoana, G. Echevarría y Compañía (Pekin), Real Compañía Asturiana de Minas eta Fabril Lanera enpresek 200 pertsonatik gorako langile taldea zuten, eta La Papelera Española fabrikak, 400 pertsonatik gorakoa[129].

Nolanahi ere, lanak ez zituen bizi-baldintza duinak bermatzen, eta, errealitatean, baldintzek okerrera egin zuten, Francoren diktadurak indargabetu egin baitzuen II. Errepublikako lan-arloko legedia, debekatu egin baitzuen negoziazio kolektiboa, langile-elkarteen aurkako errepresioa bideratu baitzuen eta laneko harremanak zorrotz kontrolatu baitzituen Sindikatu Bertikalaren bidez. Gobernuak kontrolatu eta izoztu egin zituen soldatak, eta prezioak goratu egin ziren. Gose-garaia izan zen langileen etxe askotan[130].

Erregimenak, gainera, emakumeak etxetik kanpoko lanetik urruntzen zituzten ideiak eta legeak berrezarri, eta haiek betiereko adingabe gisa tratatzen zituen arauak sortu zituen, senarren, aiten edo anaien ardurapean egon zitezen beti[131]. Lan-arloko legediak fabrikaren esklabotasunetik askatu nahi zituen emakumeak, zegokien eginkizuna bete zezaten, hots, etxeaz arduratzen ziren emazte eta ama izatea[132]. Hori lortzeko, herri-administrazioan eta enpresa askotan ezkondu ostean emakumeek lana utzi behar izatea berrezarri zuten; emakume ezkonduak kontratatzea debekatu zuten –edo haiek kontratatzeko senarraren baimena eskatu zuten–; emakumeei lanbide edo eginkizun ugari debekatu zitzaizkien, eta, merkataritzan aritzeko eta euren soldata edukitzeko ere, emakumeek baimena eskatu behar zioten senarrari[133]. Hala ere, emakume askok lanean jarraitu zuten Errenterian[134]. Hamarkada amaitzean, udalerriko jarduera-sektore guztietako enpleguen ia laurdenak emakumeek betetzen zituzten[135].

Gobernuaren murrizketen ondoriozko bizi-baldintza gogorrez gainera, 1940. urtetik aurrera salbuespenak ezarri zituzten emakumeen lana mugatzen zuten arauetan, Lanaren Arautegi Nazionalen bidez. 1942ko Arautegi Legeak nahitaezko neurri bihurtu zuen emakumeak lana utzi behar izatea ezkonduz gero, eta Estatu osoko hainbat enpresak beren araudietan sartu zuten klausula hori[136].

---

129 *Ibidem.*

130 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

131 Ikusi 4. eranskinean eskola batean garbitzaile baten kontra izandako kasua, non argi eta garbi identifika daitezkeen garai hartako ideia moralak.

132 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

133 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Historia contemporánea…”, *op. cit.*, 47.-48. or.

134 Ikusi 5. eranskinean adingabeen lan-kontratu bat, 1946koa, lan-prozesuko partaide batek ekarria.

135 BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

136 ORTIZ, Manuel Ortiz: “La mujer en la dictadura franquista”, *op. cit.*

Arautegi horien salbuespenak sektore espezifiko batzuetan baino ez zituzten aplikatu, hala nola zuntz artifizialen sektorean, irundako gaien sektorean, jantzigintzan, tindategien sektorean, Estatukoa ez zen irakaskuntzan, jantzien sektorean, jostailuen sektorean, emaginen sektorean eta bakailaoaren sektorean. Sektore horietan emakumeen presentzia hain handia eta ezinbestekoa zenez, ezinezkoa zen emakumeen ordez gizonak ipintzea, eta lan egiten jarraitu ahal izan zuten, egoera zibila edozein zutela ere[137]. Horrek azaltzen du urte haietan eta 1960. urtera arte Espainia osoan emakumeen soldatapeko lanak izan zuen gorakada[138], norbanakoen eta enpresen beharrak gobernuaren debeku eta salbuespenekin nahasita ageri ziren testuinguru hartan.

1942an, Manufacturas el Yute fabrikan obrak egin zituzten Oiartzun ibaia bideratzeko, ostatua bertan hartua zuen batailoiak bizi ahal izateko. Langileen batailoi horiek Lanaren bidez Penak Luditzeko Legeak osatu zituen, 1939an, eta atxilotuta egonik zigorrak espetxeetan bete ordez lan eginda ordaintzen zituztenek osatutako taldeak ziren. Eskulan merkea ziren –ia esklaboak–, eta azpiegiturako eta berreraikuntzako obretan erabiltzen zituzten. Oso lan gogorra egiten zuten, eta ordainsari oso txikia jasotzen zuten, familiei igortzen zitzaiena zuzenean, baina, gutxienez, kartzelan baino mugimendu-askatasun handiagoa zuten. Manufacturas el Yute lantegiko soldadu langileek bizi-baldintza ezin txarragoak zeuzkaten, eta batek baino gehiagok izan zuten tifusa. Batailoi horrez gainera, beste bi izan ziren Errenterian: bat Florentino Loidiri konfiskatutako etxe batean, eta beste bat Biteri eskoletan[139]. Batailoi horiek eraiki zuten Hondarribira doan Jaizkibelgo errepidea, edo gutxienez haren zati bat.

1940ko hamarkadan, hirigintzako zenbait lan eta herria hedatzeko obrak gauzatzeko plana prestatu zuten, baina garai hartako udal-finantzekin ezinezkoa izan zen asmo horiek garatzea.

1950ean, herriak 13.000 biztanle zituen. 1.270 emakumek lan egiten zuten udalerriko ekonomia-sektore guztietan, eta biztanle aktibo guztien % 64k industria-sektorean ziharduten, hau da, lana zuten hiru pertsonatik bi fabriketan aritzen ziren. Beraz, lantegiak gazteentzako jomuga nagusi eta penintsularen barnealdeko nekazaritza-eremu deprimituetako langileen erakargarri bilakatu ziren[140].

---

[137] LOZA, Silvia; RUIZ, María; TRANCHE, Mercedes: *Historia… op. cit.*, 145. or.

[138] BARCENILLA, Miguel Ángel, “Historia contemporánea…”, *op. cit.*, 49. or.

[139] ZABALETA, Mikel: “Frankismoa Gerran eta Gerraondoan”, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta (zuz.), *Errenteriako Historia,* Errenteriako Udaleko Kultur Batzordea, 1996, 409. or.

[140] BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado…”, *op. cit.*, 33. or.

XX. mendearen erdialdeko hamarkada horretan, etxebizitzen eskasiak arazoak sortu zituen berriz: immigrazio-fluxuak berdin jarraitu zuen, eta, 1950eko datuen arabera, 160 familiak gela bat bakarrik zeukaten. Familia horien erdiak baino gehiago hiruzpalau kidekoak ziren, pilaketa handia zen, beraz. Orduan ekin zioten aurreko urteetan aurreikusitako hirigintzako proiektuak gauzatzeari: Alaberga auzoa 1952an eraiki zuten, 563 etxebizitzarekin; ibaia Fanderiatik Zumardiraino bideratu zuten; Santa Klara kaleko ermita eraitsi zuten; udal-merkatua lekuz aldatu zuten; Foru plaza zabaldu zuten; lorategi bat jarri zuten Biteri eskolen eta Nafarroako hiribidearen artean, eta hiriko lurzorua Lartzabal auzo berriraino hedatu zuten[141]. Era berean, Ondartxo auzoa handitu zuten; Iztietako paduren lehorketa eta eraikuntza abiarazi zuten, eta Gabierrota auzoko lehen etxeak eraiki zituzten[142].




Alfonso XI kalera ematen duen aldea 1955ean. (Argazkia: Errenteriako Udal Artxiboa A006F041).

[141] BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

[142] BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado de…”, *op. cit.*, 35. or.

1954an, bizi-maila 1936. urtekoarekin parekatu zen. Industriak erritmo ona hartu zuen berriz, biztanleen kopurua eta herria bera handitzearekin batera. Aldi hartan, kanpotik iritsitako biztanle gehienak Gaztelan sortuak ziren.

Urte hartan bertan beste erakusketa bat egin zen, 1903koaren antzekoa, eta hainbat tamainatako 51 enpresak parte hartu zuten. Errenteriako industriaren egituran aldaketa nabarmen bat gertatu zen; izan ere, askotariko produkzioari eusten bazion ere, metalurgiaren sektorea gainerakoek baino eragin handiagoa izaten hasi zen, bi urte lehenago, 1952an, Victorio Luzuriaga enpresa instalatu baitzen herrian, José Oruetaren galdategi zaharra ordeztu eta handitu zuena[143].

Urte haietan bazen lana, eta orduan hasi zen sortzen 70eko hamarkadara arte iraun zuen kultura bat, batik bat gizonei eragiten ziena, non aprendiz gisa sartzen ziren fabriketan, eta hor egiten zuten aurrera bizitza osoan: aprendiz ondoren ofizial, ofizial ondoren arduradun eta horrela egiten zuten ibilbide profesionala. Lanbide-heziketa balioesten zen, baita sustatu ere, enplegua lortzeko bide erraza zela uste baitzuen jendeak. Enpresa eta kargu anitz zeudenez, jarduera bat baino gehiago probatzeko aukera izaten zuten, gustukoa aurkitu arte. Garai hartako ideia zen lana bizitza guztirako zela, baina 1975eko krisialdiak aurkakoa erakutsi zien[144].

Dinamika horren ondorioz, eta hori bultzatzeko, ugaritu egin ziren lanbide-heziketako eskolak: 1952an, La Asunción (garai bateko gaueko Arte eta Lanbide Eskola) handitu zuten, formakuntza denbora osoz eskaintzeko, eta 1958an Ciudad Laboral Don Bosco zentroa ireki zuten[145]. Emakumeetako batek gogoan dauka neskak ikusten zituela “uniformea jantzita, ogitarteko bila joaten Kaputxinoetara. Mantal zuri-urdina eramaten zuten. Elektrizitateko eta telebistako ikastaroak egiten zituzten, eta horrelakoak” (gazt.). Baliteke emakume batzuek halako ikasketak egin izana, baina duela gutxi arte egon da, eta oraindik ere badago, genero-arrakala lanbide-heziketan, eta ogibide edo arlo jakin batzuk, hala nola elektrizitatearena, sozialki ez dira emakumeentzako modukotzat hartu, edo ez dira erakargarriak izan haientzat, hainbat arrazoi izan direla tarteko. Kontuan hartzen badugu denbora luzez hezkuntzan bereizketa izan zela, gizonek eta emakumeek eskola-aukera desberdinak izan zituztela eta aztertzen ari garen garaian eta testuinguruan ez zela

---

143 *Ibidem*, 33. or.

144 BARCENILLA, Miguel Ángel, 2013/12/4ko elkarrizketa.

145 BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado de…”, *op. cit.*, 34. or.

aukera-berdintasunik egon, pentsa dezakegu emakumezkoen formakuntza horrelako eskoletan salbuespena izango zela[146].

Hogei urte haietan, XX. mendearen erdialdean, frankismoaren testuinguruan, langile-mugimendu gutxi izan ziren. Batetik, lana zegoelako eta ekonomiaren suspertzeak aurrera egiten zuelako, eta bestetik, diktaduraren aldi hori aurrekoa baino askoz errepresiboagoa eta zurrunagoa izan zelako. Hala ere, 1947tik 1956ra bitartean indar antifrankistek zenbait greba deitu zituzten, eta nolabaiteko jarraipena lortu zuten eskualdeko industrian[147]. 1956an paper-fabrikan egin zuten grebak, esaterako, bost egun inguru iraun zuen, eta produkzioa geldiarazi zuen.

1959an, erregimenak beste norabide bat hartu zuen politika ekonomikoan, eta apurtu egin nahi izan zuen faxismoak Alemanian eta Italian porrot egin ostean Espainiaren gainean ezarritako isolamendua; alde batera utzi zuen autarkia, eta nazioarteko ekonomiara ireki zuen merkatua. Irekiera horrek eta nazioarteko onarpena jasotzeko beharrak –ez onarpen ekonomikoa bakarrik– aldaketak eragin zituzten arlo askotan, hala nola lan-arloan[148], eta berriz gertatu ziren eraldaketak eta hazkundea emakumeen lanean eta bizitzan.

Hamarkada horren amaieran hasi ziren ezartzen erreforma ahul batzuk emakumeen gaitasun juridikoari begirako sexuagatiko diskriminazioaren aurka, nahiz eta diskriminaziorik eza babesten zuen printzipio horrek desberdintasunak ezartzen zituen: ezkongabe adinez nagusientzat bakarrik zen aplikagarria. Zertxobait geroago, 1961eko uztailaren 22ko Legeak debekatu egin zuen sexuaren araberako lan-diskriminazio oro, eta, berariaz, soldatari lotutako diskriminazioa. Ezkonduz gero lana utzi behar izateari buruzko klausulak bertan behera utzi zituzten lege horren ondorioz[149].

## 1960-1975: industriaren garapen-garaia

Estatuak autarkismoari uko egin zionean, udalerriko hazkunde-parametro guztiak izugarri hazi ziren. Lantegien kopurua, industriako langileen kopurua eta produkzioaren kantitatea eta kalitatea oso bizkor handitu ziren, eta oso kopuru altuak lortu zituzten. Ekonomia industriala bizkortu egin zen. Egia da zenbait lantegi

---

146 Emakumeek herrian oro har zer-nolako hezkuntza jaso zuten, lanbide-hezkuntzan zer presentzia izan zuten eta genero batean zein bestean zer profil nahiz ogibide nagusitu ziren ikertzea interesgarria izango litzateke. Udal Artxiboan gaueko eskolei eta arte nahiz lanbide eskolei buruzko dokumentazio ugari dago, oso erabilgarria horrelako ikerlan baterako.

147 BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado de…”, *op. cit*., 34. or.

148 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Historia contemporánea…”, *op. cit.,* 49. or.

149 ORTIZ, Manuel: “La mujer en la dictadura franquista”, *op. cit.*




“Oroimenaren mapa”, taldeko lan-saioa, 2013.

garrantzitsu itxi egin zituztela: Pakers gaileta-fabrika, 150 emakumezko zein gizonezko langile izatera iritsi zena; manta-fabrika, Papresa paper-fabrikan kokatua, 100 bat langile zituena, eta Fabril Lanera, S.A, 200 langilekoa. Baina, aldi berean, beste asko sortu ziren, eta metalurgikoak izan ziren nagusi. Ondorio gisa, industria-sektorean ziharduten herritarren kopurua % 69koa izan zen 1960an[150].

1965ean, 216 enpresa industrial zeuden, eta 4.000 pertsonari baino gehiagori ematen zieten lana; hau da, hiru langiletik bi fabriketan aritzen ziren. Enpresa horietako asko txiki samarrak ziren arren, 100 langile baino gutxiagokoak, asko ziren, eta ehunka pertsonarentzako lana zuten. Eta gainera, hurrengo urteetan ere hazten jarraitu zuten.

XX. mendearen 60ko hamarkadako errenteriarrak industria artean bizi ziren. Biztanleen bizitza eta hiriko paisaia herriko industrien garapenaren inguruan egituratzen zen, inoiz baino nabarmenago.

---

150 BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado…”, *op. cit.*, 36. or.

Hainbat usainek betetzen zuten gainezka herria: usain gozo eta atseginak, Olibeteko gaileta-fabrikakoak eta ordurako okindegi ez ezik gozotegi ere bazen Lekuona lantegikoak (1963an lokal handi batean instalatu, eta sektoreko erraldoi txiki bilakatu zen, eskualde osoan hedatu zena)[151]; eta usain desatseginak, Levaduras el Danubio Azul destilategikoak eta paper-fabrikakoak.

## Aldaketa demografikoa

Industriaren garapen-garaiak ezaugarri izan zuen udalerriko biztanle kopuruaren gorakada nabarmena, arrazoi nagusitzat izan zuena probintziako gainerako tokietatik eta Estatu osotik jende asko eta asko iritsi izana, ekoizpenaren hazkunde-erritmo hari eusteko ezinbestekoa. 1960an, 18.642 biztanle izatera iritsi ziren (50eko hamarkadan baino ia 6 mila biztanle gehiago), eta, data horretatik aurrera, Errenteriako biztanleen hazkunde-erritmoa ikaragarri handitu zen. Esan genezake Gipuzkoa osoko hazkunde-erritmo biziena izan zuela Errenteriak 60ko eta 70eko hamarkaden artean. Biztanleen kopuruak gora jarraitu zuen 1975era arte, eta urte hartan lortu zuen erroldatutako gizon-emakumeen gehieneko historikoa: 46.329 pertsona. 1963an, hamar biztanletik sei bakarrik ziren Errenterian sortuak.

Industria eta biztanleria hedatzen ari ziren testuinguru hartan, hirigintzako eredua drastikoki aldatu zen, auzune handiak eraikitzen hasi baitziren Iztietan eta Galtzarabordan. Auzo horietako bakoitzean mila etxebizitza inguru eraikitzeko asmoa zuten, etxebizitzen beharra asetzeko. Eskaria oso handia izan zenez, aurreikusitako denboraren erdian eraiki behar izan zituzten etxebizitzak. Emakume batek kontatu digu nolakoak ziren Iztietako baratzeak auzune bilakatu aurretik, eta beste batek gogoan dauka Galtzarabordaren eraikuntza: “Etxebizitzak non egongo ziren ikustera etorri ginenean, hau zulo bat besterik ez zen, eta etxe hauek egin zituzten, eta gero gainerakoak, txikiagoak. Etxe horien guztien eraikuntza-prozesua ezagutu dut” (gazt.). Adineko beste emakume batek Errenteriaren paisaian gertatutako aldaketa handiak aipatu dizkigu:

> *Lehen, denak herrikoak ginen, eta han bizi ginen. Gero, 60ko hamarkadan, jendea etortzen hasi zen, eta biztanle gehiago izan zituen herriak. Hau (Galtzaraborda) mendia zen; lehen, bidezidorrak zeuden fabrikara igotzeko edo San Andres kooperatibara joateko, eta ondoren eraikinak, bata bestearen ondoan* (gazt.).

[151] MITXELENA, Antton: “Lekuona”, *op. cit.*, 26. or.

Gero Gabierrotako, Agustinetako eta Morrongilletako auzuneak sortu zituzten. Eraikin garaiak eraiki zituzten, behar adina etxebizitza egin ahal izateko, eta joera hori areagotu egin zen hurrengo urteetan. 1971n eraiki zituzten Pontikako auzunea, ia Olibet osoa, 398 etxebizitza Beraunen eta 220 Kaputxinoetan. Ordurako, herriko biztanle gehienak hiri-eremuan bizi ziren. 50eko hamarkadaren amaieran herriak 4.000 etxebizitza bakarrik zituen; 70eko hamarkadarako, beste 6.000 eraiki zituzten, eta 1971tik 1975era bitartean, beste 4.500 inguru[152].

Enpresa askok etxebizitza propioak eraiki zituzten beren langileentzat: Niessenek fabrika kokatuta zegoen kalearen beste aldean egin zituen etxeak, Biteri eskolen inguruan, gorantz; ingeniaria eta zuzendaria bizi ziren bertan; La Papelera Española enpresak errepide nagusian egin zituen langileentzako etxeak. Geroago, beste etxe multzo bat eraiki zuen Miguel Aldunzin kalean, horiek ere langileentzat, eta gaur egun hortxe jarraitzen dute, egoera ezin hobean. Kontatu digutenez, dorre bereizgarriz osatutako Kaputxinoetatik Errenteriaraino joateko udareondoetatik igaro behar zen. Auzo berriak herrian integratzen joan ziren, nola edo hala.

## Langileen egoera

Miguel Ángel Barcenillak gogoratzen duen moduan, langile-kulturak aldaketa nabarmena izan zuen garai hartan. 1961ean, indarrean sartu zen Hitzarmen Kolektiboen Legea, negoziazio kolektiboa onartu zuena eta langileen aldarrikapenetarako bide berriak ireki zituena. Ezkutuko langile-elkarteek lekua kendu zioten, pixkanaka eta itzalpean, Sindikatu Bertikalari. Handituz zihoan langileen presioa, eta, hazkunde ekonomikoko urte haietan, hobekuntzak lortu zituzten soldatetan eta lan-baldintzetan. 60ko hamarkadaren azken urteetan enplegu osoa, Gizarte Segurantzako estaldura zabala eta lanpostu finkoen orokortzea eskuratu zuten industriako enpresetan.

Nolanahi ere, lan-baldintza haiek ez zuten lortu gatazka sindikalak, mobilizazio politikoak eta hirigintza duin baten aldeko aldarriak baretzea. Etxebizitza-arazoak eta pobrezia-arazoak ez ziren arindu. Izatez, ongintzako elkarteak sortzen hasi ziren, familia pobreei laguntzeko[153]. Lan-arloari dagokionez, 1962an greba bat egin zuten Luzuriagan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eskatzeko.

1961ean, Estatu osoan indarrean sartu zen "61eko Legea", sexuaren araberako lan-diskriminazio oro debekatzen zuena, eta zehazkiago, soldatari lotutako

[152] BARCENILLA, Miguel Ángel: "El pasado…", *op. cit.*, 36. or.

[153] BARCENILLA, Miguel Ángel, Errenteriako emakumeen historiari buruzko hitzaldia…, *op. cit.*

diskriminazioa. Lege hori inflexio-puntua izan zen, emakumezko langileen kontrako politika baztertzaileak etetera behartu baitzuen enpresa asko[154]. Protesten ondotik Luzuriagan eta beste fabrika askotan lanpostu berdinean ziharduten gizon nahiz emakumeek soldata berdina jasotzea lortu bazuten ere, errealitatean soldata-diskriminazioa ez zen desagertu, lanpostuetan desberdintasunak baitzeuden. Nagusiki emakumeek betetako lanpostuak, produkziokoak, okerren ordaindutakoak ziren, eta gizonek gauzatutakoek berriz, mekanikakoek, ordainsari hobea zuten.

Industrializazioko aldi horretan, aurrekoetan bezalaxe, emakumeek presentzia handia izan zuten langile gisa fabriketan. Testuinguru hartan gertatu ziren aldaketa kulturalei, legegintzako aldaketei eta aldaketa sozialei esker, emakumeek are partaidetza nabarmenagoa izan zuten produkzioaren eta industriaren alorrean. Batik bat, ezkonsariaren sistema desagertu zelako eta horrek erraztu egin zuelako emakume askok lanean jarraitzea ezkondu ondoren ere.

Orduko pentsamoldean agertu zen aldaketa garrantzitsu bat lanaren garrantziari buruzkoa izan zen. Emakumeek soldata-berdintasunaren aldeko borrokan eta langile-mugimenduan parte hartu zutelako, mugimendu feminista hasiberriaren eragina nabaria zelako eta laneko mugak agintzen zituzten araudiak murriztu zirelako, emakumeek beste esanahi bat eman zioten enpleguari, eta ahalduntzeko tresnatzat hartu zuten. 60ko hamarkadan, familiaren behar ekonomikoei erantzuteko behin-behineko jarduera izateari utzi, eta kutsu sinbolikoko beste gauza batzuk lortzeko bide bilakatzen hasi zen, independentzia bermatzeko bide, esaterako.



Emakumezko langileak Niessen fabrikatik irteten. 60ko hamarkada. (Argazkia: Errenteriako Udal Artxiboa A006F062).

1970eko hamarkadak ezaugarri izan zituen langile-kontzientziaren hedapena eta lan-eskubideen aldeko borroka eta aldarrikapena industrian. Herriko enpresa

154 ANCIZAR, Arantza Ancizar: *Voces femeninas tras la sirena de la fábrica. Las trabajadoras de Edesa, 1941-1985.* Ayuntamiento de Basauri, Basauri, 2008, 59. or.

indartsuenetako emakumezko zein gizonezko langile ia guztiek egin zituzten grebak eta mobilizazioak, eta ia urtero izan ziren horrelakoak.

Hainbat arrazoik azaltzen dute hori. Alde batetik, ez zegoen hitzarmen kolektiborik industria-sektoreka, hortaz, zenbait sektoretako enpresa gehienek elkarrekin egiten zituzten grebak. Horrez gainera, mugimendu sindikala, itzalpean egonda ere, oso bateratuta zegoen, eta helburu berberak zituen. Beste alde batetik, garapen industrialeko etapan erabat aldatu ziren ekoizteko eredua eta modua. Industria modernoa bazen ere, eskuz ekoizten zen, gerora ezarriko zena baino erritmo motelagoan eta ez hain estuan; 60ko hamarkadaren erdialdean, baina, aldatu egin zen hori. Ekoizpen-erritmoa nabarmen handitu zen, eta orduan hasi zen teknifikazio-prozesu bat, langile taldearen gaineko kontrol are zorrotzagoa ekarri zuena. Kateko produkzioaren ondorioz, lanaldiak askoz gogorragoak eta estresagarriagoak ziren. Presioa eta esplotazioa ezaugarri zituen une hartan, langile-kontzientzia eta kontzientzia sindikala indartu egin ziren. Horregatik ugaritu ziren soldata hobea, lanorduen murrizketa eta beste zenbait neurri eskatzeko grebak.

Eraldaketa sozial haiei eta aldarrikapen haiei errepresio biziz erantzun zioten agintariek, eta industriagune garatuenetan izan ziren gatazka gehien, eta intentsitate handieneko grebak eta errepresioa[155].

## Emakumeak beste lan-eremu batzuetan

Beste garai batzuetan bezalaxe, hamarkada horietan ere merkataritzako eta zerbitzuetako jarduerak ugaritu egin ziren, industriaren garapen handiarekin batera: ile-apaindegiak, jostundegiak, jostuntzako eta brodalanen tailer txikiak, lurrindegiak eta drogeriak eta abar luze bat. Lanbide horietatik gehienak herriko emakumeek bete zituzten.

Herrian, garapen industrialeko garai harekin lotutako beste fenomeno interesgarri bat ekonomatuen sorrera izan zen: enpresek sortu eta kudeatutako dendak, kalitatezko produktuak merke eskaintzen zizkietenak fabriketako langileei. Denboraren poderioz, denda horietako batzuk supermerkatu-kate bihurtu ziren, edo desagertu. Ekonomatua ez zeukaten enpresa guztiek; legez, 1.000 langiletik gora zituztenak bakarrik zeuden behartuta horrelako kooperatiba bat sortzera. Paper-fabrikak bere ekonomatua sortu zuen, 1959an, langileei nolabaiteko abantailak eskaintzeko soldatak igo gabe, bertako produktuak oso merkeak baitziren. Garai hartan, Luzuriaga galdategiak eta RENFEk izan zuten, besteak beste, ekonomatua.

[155] *Ibidem*, 93. or.

Ekonomatuen irekierak lanpostu gehiago sortu zituen, batik bat emakumeentzat, askok lana lortu baitzuten saltoki horietako dendari gisa. Hala bada, produkzioan ia emakumerik ez zuten enpresatan, hala nola Luzuriaga galdategian eta paper-fabrikan, emakumeak sartu ziren beste espazio edo atal horien bidez.

Beste saltoki txiki batzuek zailtasunak izan zituzten ekonomatuekin lehiatzeko, eta, 70eko hamarkadaren hasieran, herriko denda txiki ugarik ateak itxi behar izan zituzten. Nolanahi ere, beste gertaera bat izan zen, nagusiki, merkataritzan eragin negatiboa izan zuena: desindustrializazio-prozesua hasi zen herrian. 1973an hasitako nazioarteko krisiak eragin zuzena izan zuen Errenterian handik denbora gutxira.

## Desindustrializazioa: 1975etik aurrera

Krisi ekonomikoak herriko bizitza hankaz gora jarri zuen denbora gutxian, eta, 1975etik aurrera, haren eragina nabarmena izan zen: langabezia-tasak gora egin zuen, % 20tik gorakoa izatera iristeraino, eta, pare bat urtean, herriko fabrika indartsu eta aitortuenetako asko itxi egin zituzten, Fabril Lanera, Sociedad de Tejidos de Lino (Fabrika Handia) eta Luzuriaga, besteak beste. Eta lekualdaketak ere gertatu ziren: urte batzuk lehenago, 1970ean, Paisa eta Olibet enpresenak; gero, Niessen Oiartzunen instalatu zuten (1980), eta Esmaltería Guipuzcoana urte batzuk geroago birkokatu zuten (1994).

> *Duela 35 bat urte herriko enpresa indartsuenak desagertzen hasi ziren: Niessen, Pekin… Desagertu zen lehenengoetako bat Fabril Lanera izan zen –pauma bat zuena logotipo gisa–. Esmalteria eta Cafeteras Omega ere duela urte asko desagertu ziren* (gazt.).

Krisiarekin batera, produkzioko prozesuak eta faseak gero eta gehiago automatizatu eta espezializatu ziren, eta, ondorioz, produkzioa fase edo osagai bakoitzean espezializatutako enpresetan bereizi zen. Horretarako, beharrezkoak ziren eraldaketa sakon eta bizkorrak, bestelako kudeaketa-moduak eta ezagutzak[156].

Ez zen erraza izan krisialdian aldaketa horiei heltzea. Irekita jarraitu zuten herriko industria gehienek drastikoki murriztu zituzten langile taldeak, eta joera hori mantendu egin zen hurrengo urteetan: 1981ean, G. Echeverría y Cía, S.A. (Pekin)

---

156 MERINO, Juan Carlos: “La transformación estructural de las empresas y del tejido industrial”, *100 urteko garapena Errenterian eta bere eskualdean*, Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Elkartea eta Errenteriako Udala, 2004, 45. or.

enpresak 398 langile zituen; 1994an, berriz, 119 bakarrik, hau da, laurdena baino zertxobait gehiago[157].

Industriek sortzen zuten kutsadura ere haiek hiritik ateratzeko beste alderdi garrantzitsu bat izan zen. Betidanik izan ziren arazoak, baina 60ko hamarkadaren amaieran erreklamazioak eta kexak ugaritu egin ziren, eta hiriaren bideraezintasuna areagotu egin zen. Kamioien trafiko handia, partikula kutsatzaileen isurketa, zarata, Oiartzun ibaira isuritako lokatz industrialak, uraren erabilerari eta hornikuntzari lotutako gorabeherak eta beste zenbait arazo sortzen ziren lantegien inguruan. 1963an, kexa bat aurkeztu zuten Gráficas Urezbea enpresaren kontra, sortzen zuen zaratagatik[158]; eta 1969an, Gabierrotako Laguntasuna elkarteak Victorio Luzuriaga enpresak eragindako kalteak kontrolatzeko esku har zezala eskatu zion Udalari, nahiz eta irtenbidea atzeratzen joan zen Errenteriako lantegia itxi eta 1983an jarduera Pasai Antxora eraman zuen arte[159]. Hura izan zen hiri-eremuko azken galdategia, baina, esan bezala, asko eta asko izan ziren urte batzuk lehenago berregituratzen, ixten edo lekualdatzen hasi ziren enpresak.




Errenteriaren ikuspegia airetik. (Iturria: http://www.ondarea-errenteria.eus).

---

157 BARCENILLA, Miguel Ángel: “El pasado…”, *op. cit.*, 38.-40. or.

158 Errenteriako Udal Artxiboa, 150. kaxa, 9. espedientea. 1963. urtea.

159 LACUNZA, Juan Miguel: “La empresa Victorio Luzuriaga en Rentería”, *Oarso,* 47. zk., 2012, 29.-30. or.

Herriko fabriken eta biztanleria aktiboaren kopuruak erdira murriztu ziren 1975etik 1989ra bitartean. 1975ean, biztanleen bostenak bakarrik ziren Errenterian sortuak, eta ordurako kanpotik etorritako biztanle ugari zegoen, Gipuzkoatik eta Euskaditik iritsitakoak batzuk, eta Estatuko beste toki batzuetatik iritsitakoak gehien-gehienak, nagusiki Gaztela eta Leondik, Galiziatik, Andaluziatik eta Extremaduratik (jatorri horietakoak ziren biztanleen erdiak baino gehiago). Urte hartatik aurrera, ordea, biztanleen kopurua beheraka hasi zen, ziztu bizian. Lanik ez zegoenez, etorkinek alde egin zuten herritik, eta industrializazio-prozesua hasi zenetik lehen aldiz gertatu zen hori. Bi hamarkada eskasean, biztanleen kopurua 40.000tik behera geratu zen.

Kondizio haiek industriak Errenterian izandako prozesuaren eta garapenaren amaieraren hasiera markatu zuten. Lantegiak ia erabat desagertu ziren herriko paisaiatik eta lan-arlotik. Hamarkada batean baino gutxiagoan, Errenteriak fabrika artean bizitzeari utzi zion, eta industria nola desegiten zen ikusi zuen, nola galtzen zuen bere eragile ekonomiko eta soziala. Beste era batera esanda, ordutik aurrera Errenteria ez zen izango industriaren sinonimo.

Industria-enpresa gutxi samar mantendu zituzten irekita, eta enpresa txiki eta ertainak ziren: industriako ETEen garaia zen. Gune asko zeuden, baina espezializatuagoak, indarrean zegoen produkzioko logikari jarraiki. Horrelakoetan, indartu egin zen profil tekniko-enpresariala[160].

Horrez gainera, industrialdeetan kokatu zituzten, hiriaren kanpoaldean, edo mugan, edo udalerri mugakideetan; hortaz, fabrikak desagertu egin ziren erdigunetik. Salbuespen bakarra paper-fabrika izan zen: zailtasun handiak ditu beste nonbait birkokatzeko, eta gaur egun ere ibai ondoan jarraitzen du, Papresa izena hartuta. Industrialdeak modu koordinatuan sortu zituzten Oarsoaldeko mankomunitatean, eta koordinazio horren xedea izan zen udalerrien arteko lankidetzaren bitartez industriaren sektoreari eustea[161].

Fabrika artean hazi ziren emakume eta gizon haietako askok fabrikak nola desegin zituzten ere ikusi zuten, eta horrek izandako ondorioen lekuko izan ziren. Honela kontatu digute:

> *Fabrikak erdigunetik kendu, eta industrialdeak osatu zituzten Errenterian. Araudi berria onartuta, fabrikek ezin zuten herrien erdiguneetan kokatuta egon, eta industria kanpoaldera eraman zuten* (gazt.).

[160] MERINO, Juan Carlos: “La transformación…”, *op. cit.*, 45. or.

[161] *Ibidem,* 47. or.

> *La Papelera Española da herriaren erdialdean kokatuta jarraitzen duen enpresa bakarra. Gainerakoak itxi egin zituzten, edo lekuz aldatu zituzten, industrialdeetara, adibidez Carassa, edo beste herri batzuetara, adibidez, Niessen* (gazt.).

Aldaketa horiek gertatu zirenetik, ekonomia berri gisa ezagutzen dena sortu zen herrian. Hau da, ekonomia-eredu berri bat, non industria ez den erabat desagertzen baina eragile nagusitzat dituena hirugarren sektorea, administrazioa, merkataritza eta zerbitzuak, eta eraikuntza.

Errenteriako antzinako fabrika entzutetsuen ibilbidea urrundu egin da herritik eta bertako biztanleen bizitzatik. Niessen enpresa, adibidez, Oiartzungo Aranguren industrialdera lekualdatu zuten, eta atzerriko enpresatako bazkideak izaten hasi zen, eta, azkenik, bateratze-prozesu bati ekin, eta 1998an 140 herrialdetan lan egiten duen multinazional baten eskuetan geratu zen: Asea Brown Bovery taldea[162].

Herriko erdigunean antzina fabrikak zeuden tokietan etxebizitzak, plazak, eraikin kulturalak eta merkataritzako eraikinak altxa zituzten. Pekin udaltzaingoaren behin-behineko egoitza izan zen. 1981ean, Udalak Paisa enpresa kokatuta zegoen orubea plaza bilakatzea erabaki zuen; gaur egun, Musika plaza izenez da ezaguna. Esmaltería Guipuzcoana, 1994an eraitsia, aparkaleku izan zen denbora batez, eta gero 115 etxebizitza eta plaza bat eraiki zituzten bertan. Niessen enpresa kokatuta egon zen orubean merkatua, Niessen zinemak, Errenteria Hiria Kulturgunea, plaza bat, Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa eta Errenteria Musikal Udal Kontserbatorioa daude gaur egun. Hona hemen emakume batek adierazitakoa:

> *Fabriken eraikin gehienak desagertu egin dira, eta horien lekuan plazak eta etxeak eraiki dituzte. Koldo Mitxelena plazari jende askok esaten dio Esmalteria plaza, hor baitzegoen kokatuta fabrika* (gazt.).

¡Niessengo plazan eta beste batzuetan adreilu gorriko tximiniak eraiki dituzte, Errenteriako goraldi industrialaren ikur eta oroigarri, eta, zehatzago, toki horietan kokatuta egondako enpresen aztarna gisa[163].

Herriko fabriken desagertze etengabeak domino-efektua izan zuen, eta saltoki askok itxi behar izatea ekarri zuen.

---

162 “Niessen. Una marca en constante evolución”. *100 urteko… op. cit.*, 106.-107. or.

163 Pedro Picavearen lanak, besteak beste, XX. mendearen amaieran herrian gauzatutako hirigintzako eta antolamenduko planak eta ekintzak lantzen ditu, eta auzo bakoitzean egindako lan eta izandako aldaketa nagusiak dokumentatzen ditu. PICAVEA, Pedro: “Errenteria gaur egun 1975-1996”, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta (zuz.), *Errenteriako Historia*, Errenteriako Udaleko Kultur Batzordea, 1996, 501.-526. or.



Esmaltería Guipuzcoana enpresaren garai bateko instalazioak. (Argazkia: Jesús Hospitaler, *Errenteriako Historia*, 512. or.).

*Nik fabriken itxiera bizi izan nuen. Bere garai onena ezagutu nuen eta bere garai txarrena. Gainera, Olibet fabrika guk oso ezaguna genuen, hor pastelero frantzesa oso famatua zegoen. Burgosera joan zen. Orain dela 30-35 urte hasi ziren fabrikak ixten eta horrek bere eragina izan zuen herriko dendetan. Guk gure denda itxi genuen garai hartan.*

*Industriaren krisia herrira iritsi zenean, jende askok alde egin zuen Errenteriatik. Fabrikak desagertuz joan ziren heinean, biztanleria murriztuz joan zen. Jende askok hartu zuen aurretiko erretiroa, eta jaioterrira itzuli zen* (gazt.).

Aldaketa handiak gertatu badira ere, bizitasuna, giro handia eta mugimendua dago oraindik, emakumeek kontatu digutenez. Haien ustez, Errenteria eta haren dinamismoa, aniztasuna eta denbora luzez hiria bera eratu zuten jarduera anitz eta erakargarriak ez ziren industriarekin hil.

# EMAKUMEEN AZTARNAK INDUSTRIALIZAZIO-PROZESUAN, ETA INDUSTRIAREN AZTARNAK EMAKUMEENGAN

## Garai bateko oroitzapenak

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, XIX. mendearen amaieratik 1970eko hamarkadara arte Errenteria izaera industrial argiko herria izan zen, eta emakumeen aztarnek eragina izan zuten izaera horretan. Denbora horretan, garapenaren eragilea izan zen industria, baita herriko bizitza soziala, hiria bera eta herritarren harremanak nahiz bizitza pertsonalak baldintzatu eta aldatu zituen alderdi nagusia ere. Belaunaldi gazteentzat ez bezala, lehenagoko belaunaldientzat Errenterian bizitzea "fabrika artean bizitzea" zen, zalantzarik gabe:

> *Guretzat, gizon eta emakume, Errenteria industria izan da. Errenterian industriarik izan ezean, alde egin behar izango genuen. Errenteria, industriarik gabe, ez zen Errenteria izango. Industriak bizitasuna eman dio herriari. Denak zuen zerikusia industriarekin eta fabrikekin. Horrek ekarri zuen merkataritza, eta herriak komunikazio ona izatea eta handitzea eragin zuen*[164] (gazt.).

Testuaren atal honetan, Errenteriako zenbait emakumeren eskutik ezagutuko dugu nolakoa izan zen garai hura eta nolakoak izan ziren bizitza industrial haiek,

[164] Aipamenei dagokienez: aipamen batzuk oroitzapen-saioen grabaketetatik ateratakoak dira, eta beste batzuk, *Ahotsak* proiektutik hartutakoak. Oroitzapen-saioetako adierazpen gehienak gaztelaniaz eginak dira, eta hemen euskarazko itzulpena ageri da, parentesi artean zehaztuta jatorrizko hizkuntza. *Ahotsak* proiektutik hartutako aipamenak, berriz, euskarazkoak dira jatorrian, eta zeuden bezala utzi dira.

eta, batik bat, nola lan egin zuten fabriketan eta beste esparru askotan. Azalpen horiei esker, emakumeen presentzia-eremuak zehaztuko ditugu, eta herriaren garapenean zer-nolako ekarpena egin zuten jakingo dugu. Herriak askotariko industria zuen, eta komunikazio-sare ona. Bi ezaugarri horiek ospe handia eman zioten, eta inguruko herrietako, Euskal Herriko beste eskualde batzuetako eta beste toki askotako herritarrak bertara hurbiltzen hasi ziren, zerbitzuak eta produktuak kontsumitzera. Horrek, era berean, ondasunak eta zerbitzuak areagotzea eragin zuen: ugaritu egin ziren dendak, tabernak eta kontsumo nahiz zaintzako beste zerbitzu batzuk, non emakumeek eginkizun nabaria izan zuten. Haien esperientziak, oroitzapenak, iritziak eta bizipenak komatxoen artean agertuko dira idatzi osoan.



Emakume taldea. 60ko hamarkada. (Argazkia: Tomás Urra).
VI. Argazki erakusketaren “Errenteriako seme-alabak: Errenterian bizi (1914-1965)” katalogoa.

Hainbat belaunalditako emakumeekin egin ditugu elkarrizketak, zaharrenak, 1930eko hamarkadakoak. Haien oroitzapenekin, Errenteriaren eta bertako industrializazioaren garapenaren irudi bat osa dezakegu, XX. mendearen 30eko, 40ko, 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadak barne hartuko dituena.

Errenteria aipatuko dugu batez ere, baina hura Oarsoaldearen parte da Lezo, Oiartzun eta Pasaiarekin batera, eta emakumezko langileen fluxu handia zegoen herri horien artean; hortaz, Errenteriako emakume langileen oroitzapen eta esperientzietan beste herri horietan kokatuta zeuden lantegi garrantzitsuak ere ageri dira.

Luzaroan izan zuen izaera industrialak herritarrek berek eta kanpotarrek aitortutako nortasuna eman zion Errenteriari, baita nazioarteko ospea ere, industria anitz eta oparoarengatik. Era berean, errenteriarrek ere garapen industriala lotutako nortasuna bereganatu zuten: "galletagileak" esaten zieten, eta Errenteriari, "herri galletagilea", bi gaileta-fabrika baitzeuden instalatuta, haietako bat mugan:

> *Fabrika ugari zeuden Errenterian ni txikia nintzenean eta gero ere bai. Erreza zen lana aurkitzea fabriketan. Oiartzungo eta Irungo jendea etortzen zen lanera. Orduan zeuden fabrika asko: Pekin eta Lanera, bata bestearen aurrean, "La Alcoholera", hori geltoki alboan zegoen; eta gero bi gaileterak, Olibet eta Packer, eta papelera, "fábrica de mantas", lino fabrika, Omega Kafeterak, Niessen, Paisa… Garai hartan Errenteria fabrikaz beteta zegoen, herri oso industriala izan zen.*
>
> *Garai hartan, Frantziako enpresa ugari kokatu ziren Errenterian, batez ere elikagaienak, gailetenak* (gazt.).
>
> *Ibaiaren horman, idatzita zegoen letra handiz: ´Rentería cuna de las galletas María* (gazt.).
>
> *Errenteriari 'Manchester txikia' esaten zioten, industria ugari eta askotarikoa zuelako* (gazt.).
>
> *Errenterian beti izan da lantegi asko, lantegi pilo bat egon da Errenterian. Horregatik, deitzen zaio Errenteriari 'La Pequeña Manchester', industria pilo bat zegoelako.*
>
> *Errenterian bizitzea fabrika artean bizitzea zen. Enpresa handi oso ezagunak zeuden, baina baita enpresa txiki asko ere. Atari bat, taberna bat, denda bat eta tailer bat, hori guztia ikusten zen Errenterian. Kanpoaldeko auzoak ez ezik, erdigunea ere tailer txikiz eta saltoki txikiz beteta zegoen* (gazt.).

## Herriaren hedapenaren eta aldaketa etengabeen lekuko izatea

Aurreko ataleko berrikusketa historikoan ikusi dugu Errenteriako garapen industrialak ondorio zuzenak eta zeharkakoak izan zituela, herriaren bizitza erabat

aldatu zutenak, oro har. Prozesu industrialaren hasieran, hurbileko hainbat lekutako gizon-emakumeak iritsi ziren, Errenteriako fabriketan lan egitera. Gero, nagusiki 1950eko eta 1960ko hamarkadetatik aurrera, etorkin-samaldak etorri ziren herrira Espainiako estatuko zenbait tokitatik. Emakumeek oso gogoan dituzte aldaketa haiek, eta argi dute ezin direla bereizi Errenteriak izandako garapen ekonomiko, industrial, sozial eta demografikotik:

> *Industria gure herriaren oinarria izan da luzaroan. Oso garrantzitsua izan da emakumeontzat. Industriak etorkin asko ekarri zituen, industriarik izan ez balitz etorriko ez zirenak. Industriarik gabe, herriaren historia bestelakoa izango zen. Errenteria Gipuzkoako herri industrialenetako bat izan da* (gazt.).
>
> *Errenteriako jende asko zegoen fabriketan baina baita beste leku batzuetako jendea ere: Lezo, Oiartzun, Pasaiako… jendea etorri zen lan egitera fabriketara.*

Industriaren garapenak eragindako immigrazio masiboaren ondorioz, beharrezkoa izan zen hirian aldaketak egitea. Biztanleen kopurua ikaragarri handitu zen, eta auzune berriak eraiki zituzten herritar guztiei aterpea eskaini ahal izateko: Gabierrota, Agustinak, Morrongilleta, Pontika, Olibet, Beraun…

> *Immigrazioa oso garrantzitsua izan da Errenterian. Auzuneak eraiki eta herria handitu egin zen, etorkin asko eta asko etorri zirelako herrira industriak erakarrita. Herriaren historia, gure iraganarena, zuzenki lotuta dago industriarekin eta immigrazioarekin* (gazt.).
>
> *Industriari esker, jende ugari etorri zen beste herri batzuetatik, eta hemen geratu ziren. Industriaren ondorioz, herriko ekonomia hazi egin zen, eta Errenteriak oso komunikazio ona izan zuen, eta jendea herrira etortzen zen, eta herria bizia eta girotsua zen* (gazt.).
>
> *Aldi batez Errenteria oso garrantzitsua izan zen. Oso ezaguna. Nazioartean ezaguna. Frantziako enpresak zeuden, eta alemaniarrak, suediarrak… Toki guztietatik jaso genuen immigrazioa, baita Europatik ere. Asturiastik, Galiziatik, Extremaduratik, Andaluziatik eta beste toki batzuetatik ere jende asko etorri zen lanera. Europatik jende ugari etorri zen Mundu Gerratik ihesi, baina beste batzuk negozioa egitera etorri ziren. Eta hemen lekukotu ziren* (gazt.).

Hamarkadak joan, hamarkadak etorri, biztanle berriak iritsi ziren herrira, eta bertakotzen joan ziren, nola edo hala. Azken etorkin-samalda izan zen ugariena,

60ko eta 70eko hamarkaden artean iritsitakoena. Ordura arte, fluxua etengabea izan zen, baina txikiagoa, eta jendea nahasi egiten zen: espazioak ez zeuden hain bereizita edo, hein batean, gehixeago integratzen ziren. Baina urte horietan joera hori aldatu egin zen; hedapen industrial handiak berekin ekarri zuen immigrazio ugaria, eta bizpahiru urtean eraiki zituzten auzo berriak, Beraun eta Pontika, besteak beste. Oso bizkor eraikitzen zutela, blokeak egunetik egunera hazten zirela gogoratzen du Miguel Ángel Barcenilla historialariak[165].

Hiriaren eta biztanleriaren hazkuntza bizkor eta handiak gatazkak sortu zituen, edo larriagotu egin zituen lehendik zeudenak. Ez zen erraza izan lasterka eraikitzen zituzten auzoetan azpiegiturak ezartzea eta zerbitzuak hornitzea. Horixe izan zen, hain zuzen ere, auzotarrak antolatu eta elkarteak sortzeko arrazoietako bat, eta emakumeek partaidetza aktiboa izan zuten talde horietan:

> *Ura falta genuen, denetik falta genuen. Auzo osoa jaisten ginen Errenteriara ura eskatzera, baldeak hartuta. Borroka latzak izan ziren auzoetan; gauza asko falta zitzaizkigun, eta etxeak egin eta egin hasi zirenez, baina gauza asko falta zitzaizkigunez, antolatu eta erdigunera jaisten ginen, behar genuena eskatzera* (gazt.).

Auzoetako antolakuntza horren emaitza gisa, urte gutxi batzuk geroago, 1977an, Hirigintzako Batzordeen Koordinakundea sortu zuten. Organo horrek *Hirigintza* izeneko txosten bat prestatu zuen, eta Udalari herriaren beharrei eta eskaerei erantzun ziezaien eskatzeko mobilizazio sozialak eta protestak bideratu zituen[166].

Landaguneko gizon-emakumeak iritsi ziren auzo berrietara, batez ere Beraun eta Pontikara. Bi auzo horietan finkatu ziren pertsona asko Extremadurakoak eta Andaluziakoak ziren, eta gainerako auzoetan, beste jatorri batzuetakoak. Urte batzuk lehenago Galiziatik iritsitako hainbat pertsona Ondartxon bizi ziren, nagusiki, hiltegi zaharraren ondoan. Emakumeek gogoan dute tunel batek lotzen zituela Alaberga eta Ondartxo; alde batean, Estatuko hainbat tokitatik etorritako gizon-emakumeak bizi ziren, eta bestean, galiziarrak. Atzerriko immigrazioa askoz geroago hasi zen, 90eko hamarkadan.

---

165 2013/12/4ko elkarrizketa.

166 MURO ARRIET, Koro: “Errenteria trantsizio-garaian (1975-1982)”, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi (zuz.), *Errenteriako Historia, op. cit.*, 564. or.



Kaputxino auzoaren eraikuntza-lanak 1973. eta 1974. urteetan. (Iturria: Errenteriako Udal Artxiboa. A015F0201).

## Bizimoduen gako batzuk

Etxebizitzak eta auzoak eraikitzeaz gain, beste estrategia batzuk ere erabili zituzten etorkin kopuru handi harri bizitoki bat eskaintzeko: egoitza partekatua eta apopilotza. Herrirako immigrazioa hasi zenetik erabili zituzten bi estrategiak, bata bestea baino gehiago, garaiaren arabera, baldintza pertsonalen arabera eta beste baliabide batzuen eskuragarritasunaren arabera. Hasiera-hasieratik, egoitza partekatua pertsona zein familia etorkinek beren behar oinarrizkoenetako bat asetzeko funtsezko estrategia izan zen industrializazio-prozesua izan zuten herrietan. Nolabaiteko ahaidetasuna zuten gizon-emakumeek etxebizitza partekatzen zuten; bestela esanda, senide batek Errenterian zuen egoitzan beti izaten zen gela bat ahaideentzat edo jaioterriko bizilagunentzat. Estrategia horri esker, asko erraztu ziren migrazio-mugimenduak, baita familien ekonomia ere. Horrez

gainera, etorkin taldeen jarraitutasun espaziala, kulturala eta soziala faboratu zuen, kasu askotan[167]. Apopilotza (edo apopiloak izatea) ohikoa izan zen; etxe askotan ematen zioten ostatua pertsona bati diru truke, normalean industriako langile bati. Praktika horien ondorioz, etxebizitzen osaera ez zetorren guztiz bat oinarrizko ereduarekin, familiak zabalagoak zirelako edo familia bat baino gehiago elkarrekin bizi zirelako.

Errenterian hainbat immigrazio-garai eta -modu izan ziren, eta etorkin guztiak ez ziren modu berean bertakotu. Ondorioz, bereizketa geografiko eta sozialak gertatu ziren, eta aldaketa garrantzitsuak izan ziren komunitateen harremanetan eta bizimoduan:

> *Errenterian aldaketa izugarriak ikusi ditugu. Lehen txikiagoa zen, denak elkar ezagutzen genuen eta orain inor ez duzu ezagutzen. Hasi zen kanpoko jendea etortzen. Garai batean galego asko etorri ziren, batez ere, Ondartxo aldera eta gero Caceresko jendea etorri zen, eta Alaberga auzoa egin zen. Lehen Alabergan baserria zegoen. Dena zelaia zen.*
>
> *Garai hartan Errenterian fabrika asko zeuden. Herria fabrikaz beteta zegoen: Alcoholera, Lanera, Cafeteras, gaileterak, Esmalteria, tintoreriak, Pekin… Industria baino lehen, bakarrik hemengoak giñen eta Errenteria txikiagoa zen. Denak elkar ezagutzen genuen baina industriarekin herriko bizitza guztiz aldatu zen.*

Aldaketetako bat euskararen erabileran nabaritu zen. Urte askoan, hedapen industrialaren lehen etapetan, Errenteriara etorri zirenak hurbileko lekuetan jaioak ziren, eta euskara eta euskal kultura partekatzen zituzten. Herriaren tamaina, oso espazio txikian pilatutako hazkundea eta biztanleen jatorria zirela tarteko, luzaroan hizkuntza ez zen izan bereizketa-elementu bat, kohesio sozialeko elementu bat baizik. Miguel Ángel Barcenillak azaldutako moduan, denbora askoan euskara besterik ez zen hitz egin Errenterian; aberatsak zein txiroak, ugazabak eta langileak, guztiak mintzatzen ziren euskaraz, Donostian eta beste leku batzuetan ez bezala, non hizkuntzak mailak bereizteko balio zuen. Banaketak txikiagoak ziren Errenterian, edo gutxiago nabaritzen ziren, denek hizkuntza berbera erabiltzeaz gain, aisiarako eremuak, etxebizitzak eta lantokiak oso nahasita zeudelako eta luzaroan ez zelako izan erdigunea/periferia bereizketarik. Hurbiltasun fisikoak hurbiltasun sozial handiagoa zekarren. Lan-arloko harremanak ere hurbilagokoak ziren, eta gatazka gutxiago izaten ziren, ugazaba jakitun baitzen zer gertatzen

[167] MENDIOLA GONZALO, Fernando: *Inmigración, Familia y Empleo*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2002.

zitzaion langileari, eta tratu pertsonal horri esker paternalistagoa baitzen. Alde batentzat zein bestearentzat zailagoa zen hurbileko pertsona bat etsaitzat hartzea[168].

Baliteke baieztapen horri ñabarduraren bat egin behar izatea, ez baita erraza pentsatzea ez zegoenik inolako bereizketa eta segregaziorik. Alde batetik, ez zen arraroa industria handien jabeak Errenteriatik kanpo bizitzea, Donostian, elkarbizitzarako uneak mugatuta, baina baita gatazkak ere. Beste alde batetik, gauza jakina da izan bazirela zona periferikoak, baita marjinalak ere, hiriaren hedapen handiaren aurretik; Ondartxo zen haietako bat. Nolanahi ere, soziabilitate homogeneoko tradizio hedatu samarra dokumentatu da. Felix Luengoren arabera, XX. mendearen lehenengo hamarkadetan behintzat, hiria pilatuta hazi zenez, espazio-bereizketa handirik gabeko bizikidetza nagusitu zen gizarteko kategoria guztien artean. Auzoetako finkatze mistoak, tabernen inbentarioak eta zirkulu edo kasino politikoetako eta olgeta- edo laguntasun-elkarteetako partaidetzak argi erakusten dute klaseen arteko soziabilitatea (gizonezkoena, gutxienez): lagun-elkarte haietako baten bazkideen zerrendan, esaterako, batera ageri dira jabe bat, zirujau bat, eskribauak, langileak eta jornaleroak[169].

Itxuraz, beraz, ez zen izan segregazio sakonik auzo burgesen eta langile-auzoen artean –beste toki batzuetan ez bezala–, eta, testuinguru berezi horretan, ez ziren sortu miseria-eremuak, beste gune industrializatu batzuetan gertatu zen antzera[170]. Hala ere, hiria beste kultura eta jatorri batzuetako biztanleak hartuta handituz joan zen heinean, eta erdigunetik harago hedatu zen heinean, bereizketak eta aldeak nabaritzen eta nabarmentzen hasi ziren: “Industrializazio prozesuaren hasieran, garai hartan, denak euskaldunak giñen eta fabriketan euskaraz egiten zen. Jende asko baserrikoa zen. Amak bi edo hiru alabakin egoten ziren fabrikan lanean. Batzuek Lezokoak ziren, Oiartzungoak jende asko, baina denak euskaldunak”.

Bizimoduan izandako aldaketak eta herriko jendearen nahiz espazioen artean sortzen hasi ziren bereizketak oraindik ere antzeman daitezke zenbait esapidetan. “Goiko aldea eta beheko aldea” bereizten dituzte: antzinako baserria eta gaur egungo auzune berriak “goiko aldean” kokatuta daude, eta herriaren erdigunea, berriz, “beheko aldean”. Edo “kaleko” emakumeez mintzatzen dira, lurra lantzen ez zutenei edo erdigunean bizi zirenei erreferentzia egiteko. Eta zenbait auzotan oso

168 2013/12/4ko elkarrizketa.

169 LUENGO TEIXIDOR, Félix: “Sociabilidad y socorros mutuos…”, op. cit., 30.-32. or.

170 BARCENILLA, Miguel Ángel: “Industria gizartearen hastapenak”, *op. cit.,* 188. or.

ohikoa da "Errenteriara doazela" entzutea erdigunera doazela adierazteko, auzoa hirikoa izango ez balitz bezala. Herriaren geografiaren ondorioz, garatzeko moduaren ondorioz eta biztanle berrien kokapenaren ondorioz, auzo bakoitzeko nortasuna areagotzen joan da, eta batzuetan badirudi ez dagoela inolako harremanik auzo desberdinetako gizon-emakumeen artean, edo harreman hori oso eskasa dela:

> *Industriak herria inguratzen zuen. Gainera, malda besterik ez dago, eta banaketa fisikoa dago. Herriaren garapenak auzoak bereiztea bultzatu du. (…) Jendeak auzoko identitate indartsua dauka. Bakoitzak bere eliza zeukan, eta bataioak eta jaunartzeak auzoetan egiten ziren* (gazt.).

Beste emakume batzuek kontatu digute Alabergan, Beraunen eta beste auzune batzuetan jendeak auzoan bertan egin duela bizitza. Auzo bakoitza independentea zen, eta herritarrek auzo barruko harremanak zituzten. Distantziak askoz handiagoak zirela aipatu dute zenbait emakumek, erreferentzia egiteko bai pentsamoldean eta bizitzaren erritmoan izandako aldaketei, baita Errenteriako auzo batzuen arteko egiazko harreman eskas eta sinbolikori ere. Kaputxinoetan bizi zen emakume batek honela dio:

> *Gertatu zena izan zen hona etorri ginenean bizitzera gehienok haur txikiak geneuzkala. Eta orduan ez ginen Errenterian ibiltzen, haurrak aulkian joaten ziren eta. Auzoan egin genituen lehen urteetan, haurrak txikiak zirenez, ezin genuen esan 'goazen behera, herrira'. Zailagoa zen* (gazt.).

Herriaren aldaketak emakumeen eguneroko jarduera batzuk zaildu zituen; izan ere, haiek kontatu digutenez, denbora gehiago behar zuten zenbait ibilbide egiteko, eta horrek alde nabarmena ekarri zuen haien zereginetan. Esaterako, emakumezko langileek baimendutako denbora bat zuten bularra ematera edo mandaturen bat egitera joateko, baina, trenbide berriak eta leku batetik bestera gurutzatzeko gune espezifikoak ezarri zituztenean, denbora hori ez zen nahikoa, eta, ondorioz, era guztietako malabarismoak egin behar izaten zituzten, edo, zenbait kasutan, oinarrizko jarduerak egiteari utzi behar izaten zioten, hala nola haurtxoak eta seme-alabak pertsonalki elikatzeari.

Trenbideek eta auzo "isolatu" edo urrunen eraikuntzak eragindako bereizketa fisikoaz gain, gizarteko harremanen alderdi batzuetan ere nabari ziren banaketak, ordura arte ez zirenak hain nabarmenak izan:

> *50eko hamarkadan desberdintasunak zeuden dendetan lan egiten zuten emakumeen eta fabriketan aritzen ginenen artean. Dendetakoek estatus handiagoa zuten. Zumardiko dantzaldian ere begi bistakoa zen emakumeen arteko estatus-desberdintasuna* (gazt.).

Errenteriara iritsita, elkarrengandik edo erdigunetik urrun zeuden edo loturarik ez zuten etxebizitzetan eta auzoetan kokatzen ziren, eta zenbait emakumek gogoan dute nolakoa izan zen herritartzeko prozesua eta etorkin gisa izandako esperientzia. Galtzarabordako bizilagun bat trenez iritsi zen Euskal Herrira bere familiarekin, eta honela oroitzen du:

*Irungo geltokian gelditu ginen, amak dioenez. Eta orduan koltxoiak bilduta ekartzen genituen, eta aulkiak, denetik! Eta euskaldunez betetako auzo batera joan ginen. 1950eko hamarkadan etorri ginen. Eta, egia esan, ez dakit txikiak ginelako izango ote den, baina ez genuen batere diskriminaziorik nabaritu. Geroago, Errenteriara iristean, nabarmenagoa izan zen: 'Nongoa zara? Belarrimotza!'. Garaiak dira* (gazt.).

Errenterian jaiotako emakume batek oroitzen du etorkinei "mantxurrianoak" esaten zietela. Haren hitzetan, lehen herria oso txikia zen, eta "bat-batean denak iritsi ziren, eta 'mantxurrianoak' esaten zieten, oso urrutitik zetozela adierazteko; baina ez genuen gaitzespenez egiten, Ingalaterratik edo antzeko tokiren batetik etorriak zirela iruditzen zitzaigulako baizik" (gazt.). Hala ere, emakume horren iritziz etorkinak identifikatzeko minik ematen ez zuen esapide bat izan arren, zenbaitetan bazuen nolabaiteko mespretxuzko kutsua. Eta horrelako etiketak ez zituen bertako jendeak bakarrik erabiltzen. Segovian jaiotako emakume batek haserre kontatu zigun herri berean jaiotako bizilagun batek "mantxurriana" deitu ziola.

Antzeko beste anekdota batzuk eta izengoiti bat baino gehiago baziren ere, orokorrean emakumeek ez dute esperientzia negatiboez hitz egiten. Antza denez, nahiko erraza zen dinamikotasun handia eta kanpoko biztanle ugari zituen herri hartan txertatzea, eta garai batez behintzat lana eta aukera ugari eskaintzen zituen toki batean bertakotzea. Hona hemen emakume baten hitzak:

> *Oso zoriontsua naiz hemen; seme-alabak hemen ditut. Haiek bertakoak dira. Etorri nintzenean, 18 urterekin, neskatxa bat nintzen (…), baina, herrira joatean, Errenteria defendatzen dut: ia 60 urte daramatzat hemen. Hala ere, herrian ere ez diezadatela esan kanpotarra naizela!* (gazt.).

## Industriari lotutako zerbitzuak eta jarduerak

Industria hazi egin zenez eta biztanleria nahiz auzoak handitu, hainbat zerbitzu eta saltoki jarri behar izan zituzten, herritarren beharrak asetzeko. Emakume batek dioenez:

*Ni oiartzuarra naiz, baina nire familiak eta nik oso ondo ezagutzen dugu Errenteria, denda ugari baitzegoen bertan, eta Errenteria inguruko erreferentziazko tokia izan zen. Errenterian saltoki asko zegoen; horregatik, baserritarrak herrira jaisten ziren beren produktuak saltzera. Industria ere ugaria zen, eta Lezo, Oiartzun eta Pasaiako jende asko Errenteriara etorri zen bizitzera. Gure ama askotan etortzen zen, babarrunak eta baserriko produktuak saltzera. Errenterian asko saltzen zen, industrian lan egiten zutenek produktuak erosteko beharra baitzuten* (gazt.).

Argazkilari-zerbitzua, esaterako, Errenterian besterik ez zegoen eskualde osoan. Jaunartzeetako edo beste ekitaldi garrantzitsu batzuetako argazkiak Errenterian egiten zituzten. Ondoko herriko emakume berak gogoan du lehen jaunartzea egin zuenean Oiartzundik Errenteriara autobusez hurbildu zirela argazkiak egitera. Bitxikeria zera izan zen, geroxeago, aparteko arrazoien batengatik, itxi egin zutela errepidea eta oinez itzuli behar izan zutela baserrira “bero harekin, soineko zuri harekin, lurrez betetako bide haietan barrena eta hain urrutira!” (gazt.). Istorio barregarria izateaz gain, pasadizo horrek erakusten digu Errenteriak inguruko familientzat garrantzitsuak ziren zerbitzu ugari eskaintzen zituela.

Testuinguru hartan, Errenteriako emakumeek eginkizun garrantzitsua izan zuten. Haiek gauzatu zituzten bizitza pertsonal nahiz kolektiborako eta herriaren garapen industrialerako ezinbestekoak eta oinarrizkoak izan ziren hainbat jarduera. Zuzenean parte hartu zuten industriako jardueretan, eta zeharka, berriz, langileen mantenuan, etxeko lanak eta zaintza-lanak betez, herri ororen garapenaren oinarri direnak. Horrez gainera, presentzia handia izan zuten merkataritzan eta zerbitzuen sektorean. Lan gogor hori haien memoriaren parte da, izan lehen pertsonan ezagutu zutelako, izan senideen edo bizilagunen eskutik ezagutu zutelako. Hain handia da emakume langileen kopurua, ezen ezinezkoa baitirudi herriko edozein produkzio eta garapen industrial, ekonomiko eta sozialetatik bereiztea:

*Emakume asko ginen fabriketan. Telari asko giñen. Batzuek mantelak egiteko, maindireak, almohadak egiteko… neurri askotakoan baina denak telak egiteko. Goizetan lanean fabrikan eta gero arratsaldeetan josten ikasten eta etxeko lanak egiten.*

*Emakumeok leku guztietan egin dugu lan: fabriketan, dendetan, eta gero dena egin dugu etxean.*

*Emakumeek herriko ia lantegi guztietan lan egin dute, eta beste askok tailer txikiak zituzten etxean. Halaber, garbiketan ere gin dute lan, zaintzaile gisa, arropa garbitzen, loreak saltzen, ile-apaintzaile gisa…, eta etxeko lanetan* (gazt.).

Gogoan dituzte kapelak egiten zituzten jostunak, gabardinak egiten zituztenak, galtza-egileak eta beste lanbide asko, gaur egun desagertuak daudenak, batzuk, eta nolabaiteko adierazpena edo jarraitutasuna dutenak, beste batzuk. Memoria kolektiboan tokia dute, halaber, gozokiak saltzen zituzten emakumeek, gaztaina-saltzaileek eta karamelu-saltzaileek, baita jaki-saltzaileek eta beste saltoki askotan aritzen ziren emakumeek ere. Aurrerago ikusiko dugunez, asko eta asko ziren emakumeek gobernatutako saltokiak.

Herriak ekoizpena, merkataritza eta zerbitzuak eskaintzen zituenez, baziren kontsumorako hainbat espazio eta aukera. Errenteriarrek erosteko ahalmena zuten, eta beharrezko ondasuna eskuratzeko estrategiak eta toki kuttunak zeuzkaten. Emakumeek produktu jakin batzuk noiz eta non erosten zituzten oroitzen dute, eta gogoan dituzte, baita ere, haiek saltzen zituzten emakumeak, eta nola egiten zituzten salerosketak azokan, elikagai-fabriken kanpoaldean, dendetan eta atari nahiz etxeetan kokatutako familia-tailer txikietan.

## “Bizitza horrelakoa zen”

Biztanleen bizitzaren erritmoan eragina izan zuen industriaren ezarpenak, industriak baldintzatzen eta antolatzen baitzituen ordutegiak eta praktika sozial zein pertsonalak. Honela gogoratzen du emakume batek:

> *Lantegiz inguratuta hazi gara, lantegien sirenen artean. Lanerarenak ke asko botatzen zuen, eta soinu oso baxua zuen. Batzuek sirenak zeuzkaten, eta beste batzuek, tutuak. Laneran oso tutu baxua zegoen, itsasontzienen antzekoa, eta Esmalterian, sirena bat, oso soinu altua zuena. Fabrika guztien sirenak eta tutuak ezagutzen genituen. Guztiak ezagutzen genituen, eta haiei jarraitzen genien eskolara joateko. Ez genuen ordularirik behar. Fabriketako sirenek esaten ziguten zer ordu zen. Haiek markatzen zuten denbora herrian* (gazt.).

Jendearen bizitza pertsonalean ere erabateko eragina izan zuen industriak, eta horren erakusle argia da garai hartako belaunaldien oroitzapen askok eta askok fabriken usainekin, soinuekin eta erritmoarekin dutela zerikusia, baita industriari lotutako pasadizoekin ere. Errenteriako biztanleen kontsumo-ohitura batzuk ohiz kanpokoak ziren, guztiz, gainerako toki gehienetan, herriko fabrikekin oso lotuta baitzeuden. Emakume batek baino gehiagok kontatu digunez, esaterako, gozamenerako tarteak eta aurrezteko aukerak izaten zituzten gailetak erostean:

> *Errenterian gaileta-fabrika oso ospetsua egin zen, gaileta hautsiak oso merke saltzen zituztelako eta horrelakoak erostera joaten ginelako. Txikitan, gaileta hautsiak erostera joaten ginen, eta herrian barrena jaten genituen. Gaileta hautsiz betetako pakete handiak eramaten genituen eskuetan. Ez dugu inoiz ahaztuko garai haietako gaileten zaporea. Gaur egun ez dago gaileta horiek bezalakorik* (gazt.).
>
> *Manta-fabrikaz oroitzen naiz, gure amak han lan egiten zuelako, eta gogoan dut, baita ere, gaileta hautsiak erosten genituela Olibeteko fabrikan* (gazt.).
>
> *Gure amak gaileta-fabrikan erosten zituen gaileta apurtuak, merkeagoak zirelako. Jende askori eman behar zion jaten* (gazt.).
>
> *Gogoan dut txikitan Olibeteko gailetak ematen zizkigutela eskolan* (gazt.).
>
> *Oso fama handia hartu zuen Olibet fabrikak. Noizbehinka joaten ginen gailetazko poltsak erostera. Kaxetan saltzen zituzten eta gero aparte solte geratzen zirenak. Eta solte geratzen ziren gaileta horiek poltsa batean sartzen ziren etxerako. Egunero jaten ziren bero-bero. Gazteak ginen eta hutsik jaten genituen.*

Halaber, bazituzten zenbait estrategia etxean oso artikulu finak edukitzeko; nagusiki etxean fabrikatutako gauzak ziren, baina diseinuari begira oso modernoak. Emakume batzuek kontatu digutenez, manta-fabrikan lan egiten zutenek enpresako marrazkigileek egindako diseinuak kalkatzen zituzten, etxean maindireak egiteko:

> *Manta-fabrikan maindireak egiteko erabiltzen zituzten brodatuen marrazkiak zeuden Papeleran. Emakumeek papera eta nikelezko koilara bat hartu, eta koilara paperaren gainetik pasatzen zuten, eta brodatua irudikatzen zuten. Eta horrela lortzen zituzten marrazkiak, etxean diseinua kopiatzeko; izan ere, debekatuta zegoen marrazkiak fabrikatik ateratzea* (gazt.).

Gerraosteko krisi-urteetara atzera eginda, hainbat pertsonak alde egin eta negozio bat baino gehiago itxi behar izan zituzten garaira, gaur egun bitxitzat har ditzakegun egoerak gogoratzen dituzte, hala nola zenbait emakumeri gertatutakoa: senargaiak beste herrialde batera joan behar izatea lanera eta hark alde egindakoan ezkon-hitza edo ezkontza bera formalizatzea, urrutitik. Errenteriar emakume bat, Niessen fabrikako langilea, “ahalordez” ezkondu zen senargaiarekin, hura Venezuelara joan baitzen lantoki zuen alkandora-lantegia hara lekualdatu

zutelako. Senargaia Venezuelan zela ezkondu ziren, ordezkari batek gauzatuta izapideak, eta, behin ezkonduta, emakumea ere Venezuelara joan zen, senar dotorearekin elkartzera, emakume batzuek kontatu digutenez. Eta "duela 60 urte baino gehiago gertatu zen hori".

Ospakizun batzuetan ere bazuen eragina bizitza industrialak. Alde batetik, "zilarrezko ezteien" antzeko ospakizunak egiten zituzten (edo urrezkoak edo diamantezkoak), gizon edo emakume batek denbora jakin batez enpresa berean lan egiten zuenean. Bitxia da laneko iraunkortasuna ospatzea, eta are gehiago ezkontzen kasuan jasotzen duen izen berbera jasotzea. Langileen konpromisoaren adierazletzat har dezakegu, edo bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko loturaren adierazletzat.




Zilarrezko ezteien ospakizuna. (Iturria: *Errenteriako Historia,* 446. or.).

Beste alde batetik, zenbait fabrikatan, adibidez Pekin fabrikan, festak egiten zituzten, eta ospakizun bitxiak: langileekin bazkariak antolatzen zituzten, eta *Miss*

*Pekín* aukeratzen zuten; saria ere ematen zioten. Lantegi hartako langile ohi batek kontatu digunez, enpresako emakume langile gailenari ematen zioten ohorezko titulu hori.

Gaur egun ohiz kanpokoak diren egoera horietan ez ezik, fabriken presentziak eragina zuen herriaren eguneroko bizitzan ere, eta adibide garbiak dira oroitzapen hauek:

> *Alfontso XII.aren kalean bizi nintzen, Niessen ondoan. Sirenak jotzen zuenean, lasterka jaisten nituen eskailerak, fitxatzeko. Fabrika etxearen parean zegoen* (gazt.).
>
> *Errenteriako fabrika ezagunena gailetena zen, herrian barrena gaileta-usaina baitzegoen. Gailetak egiteko bainilla erabiltzen zutenez, herri osoan zegoen bainilla-usaina. Hori da hobekien gogoratzen dudana* (gazt.).
>
> *Nire aitak Esmalterian egiten zuen lana. Hiru errelebo zuten. Goizeko 6:00etatik 14:00etara bazen amak bazkaria eramaten zion. Eta gu joaten giñen zesto txiki batekin nire amarekin bazkaria eramatera, eta porteroa ikusten zigun sartzen eta han ibiltzen ginen korrika goitik behera. Jende askok egiten zuen lana Esmalterian, gizonek eta emakumeek.*
>
> *Hori usaina gaileta-fabrikakoa! Usain goxo hura herrian zabaltzen zen. Haurtzaroko usain hori da hobekien gogoratzen dudana, gaileta-usaina. Hala ere, usain txarrak ere bazeuden, Papelera hortxe baitzegoen, eta legamia-fabrika herriaren beste aldean* (gazt.).

Industriak jarduera, bizitasuna eta entzutea ekarri zizkion Errenteriari. Oso arrunta zen beste toki batzuetako jendea herrira etortzea tela, maindire, manta eta mahai-zapi ospetsuak erostera. Horixe erakusten digute emakume baten hitz hauek: “Liho-fabrikan ospe handiko maindireak egiten zituzten. Ehungailuak ikusten ziren ondotik igarotzean, eta udatiarrak herrira etortzen ziren, maindireak erostera” (gazt.).

Beste batzuk Olibet lantegiko gaileta famatuak dastatzera etortzen ziren; edo Petra Igartua lore-saltzaile ospetsuak egindako kapelak, belarritakoak, kofiak eta burukoak erostera; edo herriko jostundegi ezagunetan brodatuak eta janzkiak enkargatzera; edo Fombellida familiaren Panier Fleurie jatetxean bazkaltzera, zeinak herria ospetsu egin zuen eskainitako gastronomia, tratu eta zerbitzu bikainari esker[171]; edo, besterik gabe, egun-pasa egitera. Mugimendua eta dinamismoa

---

171 BANDRÉS, Rafa: “Tatús Fombedilla”, *Oarso,* 2003, 83. or.

Errenteriaren bereizgarri izan dira beti. 1920ko hamarkadaren amaieratik aurrera, "ohitura bilakatu zen donostiarrentzat eta han izaten ziren udatiarrentzat uda arratsaldetan herrira tranbiaz etorri, patata soufflé ezagunak jan, itzalean txokolatea hartu, lasai giroan hizketalditxoa izan, Olibet galleta zorro pare bat erosi eta tranbiaz atzera Donostiara itzultzea"[172].

Garai industrial hartan emakumeek asko lan egiten zuten, bai etxean, bai kanpoan, eta apenas izaten zuten aisiarako astirik. Nolanahi ere, tarteren bat izanez gero, olgetarako erabiltzen zuten, eta poztasunez gogoratzen dute zenbat gozatzen zuten freskagarriekin edo askariekin, baita aisiako beste jarduera batzuekin ere:

> Ez ginen ateratzen. Etxetik lanera eta lanetik etxera, edo erosketak egitera, besterik ez. Aisia bakarra gramola zen, asteartetan, Zumardian. Une horien oroitzapen oso politak dauzkagu (gazt.).
>
> Doan sartzen nintzen zinemara. Mandatuak egiten nizkion atezainari, eta sartzen uzten zigun (gazt.).
>
> Askotan zigortu naute gramolarik gabe Madalenetan, eta oso gaizki pasatzen nuen! (gazt.).
>
> Urezbean 20 pezeta irabazten nituen. Oso gutxi ordaintzen ziguten. Gutunazal batean ematen ziguten dirua, eta gazta erosten genuen, ogitartekoa egin eta zinemara joateko (gazt.).
>
> Berriketariak esaten genienak azoka txikian egoten ziren. 'Burusoilentzako orrazeak, itsuentzako betaurrekoak' eta horrelako esaldiak esaten zituzten. Ikuskizuna zen guretzat, eta hortxe egoten ginen, nola negoziatzen eta saltzen zuten ikusten. Entretenigarria zen oihuka saltzen zuten haiek ikustea (gazt.).
>
> Gauetan komediak izaten ziren, komedianteak, eta ikustera joaten ginen. Ez zegoen ez eserlekurik, ez kioskorik, baina gauero hurbiltzen ginen Foru plazara, etxeko aulkiak hartuta, komedianteak ikustera (gazt.).
>
> Gure aisialdia oso eskasa zen baina zen dantzatzea, kantatzea, eta noizbehinka zinera joatea. Garai hartan orain baino kantatzeko ohitura gehiago zegoen. Gero izaten genuen batzuetan dantza Alamedan eta beste batzutan zinea, udan batez ere.

[172] Errenteriako Udala, "Herria ezagutzen", *op. cit.*

Zinera joaten giñen. Gure ozioa hori zen. Normalean igandeetan joaten ginen. Eta Poxpoliña ikusten nuen. Eta euren kantak entzutera eta antzerkiak ikustera joaten giñen.

Ostegunetan izaten zen gramola. Eta noizbehinka eskapau egiten ginen eta joaten ginen. Eta gero igandeetan bandak jotzen zuen musika Alamedan arratsaldeko 6:00etan eta 8:00etan bukatu.

Geroago, antzerkia izan zen, eta batzuk emanaldiak ikustera joan ohi ziren.

Lorpen handitzat gogoratzen dute emakumeek tabernetan sartzea lortu zuten unea, ordura arte gizonezkoak bakarrik ibiltzen baitziren espazio haietan:

*Taberna batera gaztetan ez nintzen sekula sartu, ez zegoen ohiturarik. Pastelerietan bai, baina tabernetan ezta pentsatu ere. Gizonak eta mutilak tabernetara sartzen ziren, baina emakumeak eta neskak ez. Ez zegoen ondo ikusita. Hori geroko gauza izan da.*



Madalenak (1960 urtea). Argazkia: Tomás Urra. VI. Argazki erakusketaren “Errenteriako seme-alabak: Errenterian bizi (1914-1965)” katalogoa.

Hurrengo orrialdeetan, emakumeek industrializazio-prozesuan utzitako aztarnak sakonago aztertuko ditugu, arreta bi eremutan jarrita: lantegi eta enpresen eremuan, batetik, eta beste jarduera ekonomiko batzuen eremuan, bestetik. Izan ere, bi esparru horietan argi ikus ditzakegu emakumeen ekarpenak era askotako lan-esperientzietan eta lanaldi amaigabeetan, eta horiek erakusten digute emakumeen adorea, indarra eta poztasuna.

## Emakumeen aztarnak enpresa eta lantegietan

### Emakume langileak

XIX. mendearen amaieratik Errenteriako desindustrializazio-prozesua hasi zen arte, XX. mendean barrena, gutxi gorabehera herriko langile guztien erdiak bertako emakumeak eta Euskal Herriko nahiz Espainiako hainbat tokitatik iritsitakoak

izan ziren, eta lantegi batzuetan, langile gehienak ziren emakumeak. Era askotako esperientziak izan zituzten, herriko fabrika gehienetan lan egin baitzuten, askotariko zereginak betetzen. Honela oroitzen dute zenbait emakumek:

> *Herriko lantegietan emakume asko zegoen. Nik Niessenen lan egin nuen, eta emakumeak askoz ugariagoak ginen gizonak baino. 1.000 pertsona inguru geunden enpresan, eta horietatik 800 bat emakumeak ginen* (gazt.).
>
> *Manten fabrikan 200 bat pertsonak lan egiten genuen, eta gehienak emakumeak ginen. Ehungailuetan ere emakume asko aritzen ziren. Orokorrean, emakume gehiago zeuden gizonak baino, eta pasaratze-lanetan, esaterako, denak emakumeak ginen* (gazt.).
>
> *Jende askok egiten zuen lan Olibet fabrikan, batez ere, emakumeak. Emakume asko zeuden: enpaketatzen, gailetak sailkatzen, ekoizten…*
>
> *Pekin eta Fabril Lanera lantegietan emakume askok lan egiten zuten. Eta Tejidos de Lino fabrikako tindategian ere bai. Lisatzaileak eta tindatzaileak ere emakumeak ziren. Nik uste ia enpresa guztietan langile gehienak emakumeak zirela. Real Compañía Asturiana de Minas enpresan izan ezik* (gazt.).
>
> *Nik gogoratzen dut `Pavo Real´ fabrikan (Laneran) lanak egiten zirela eta emakume asko zeuden lanean, eta herriko beste fabrika batzuetan ere bai, Pekinen, adibidez, han torlojuak eta bakelite egiten zen, eta hor bertan beti ezagutu ditut nik emakumeak.*
>
> *Salvador Echeverría y Cía (Pekin) lantegian emakume asko zeuden, baita Niessenen ere, torlojuak ipintzen eta bonbillak eta entxufeak egiten. Olibet gaileta-fabrikan ere emakumezko langile ugari zegoen* (gazt.).
>
> *Ni Niessen fabrikan nengoen, montajean. Entxufeak egiten genituen eta holakoak. Denak emakumeak ginen. Montajean, behintzat, denak emakumeak. Emakume asko zeuden ere enbalajean, pulidoran, taladroan… Gizonak bakarrik prentsan zeuden, makina batzuetan.*

Hala eta guztiz ere, aurretik ere aipatu dugunez, lantegietan aritzen ziren emakumeek ez zituzten gizonezko lankideen baldintza berberak. Garai frankistaren zati handi batean, enpresek garaiko ideologia islatzen zutenez, ezkonsariaren sistema ezarri zuten, legez babestuta, eta ezkondutakoan lana uzten zuten emakumeei ordain ekonomiko bat ematen hasi ziren. Modu horretan, etxera itzultzera eta zaintza-lanak nahiz etxeko lanak egitera bultzatzen zituzten emakumeak, eta industriako lanpostuari eusteko estimulurik ez izatea lortzen zuten, baita lanpostua mantentzeko zailtasunak izatea ere. Errenteriako zenbait emakumek kontatutakoaren

arabera, haiek 1950eko eta 1960ko hamarkaden artean lan egin zuten, ezkongabe zirela, baina askok eta askok fabrikan lan egiteari utzi zioten ezkondu orduko:



Emakumezko langilea, Niessen. (EUA A006F129).

*Emakume gehienek lantegiko lana utzi genuen ezkondu ostean. 13.000 pezeta inguruko dotea eman zidaten. Diru horrekin kabinetea*[173] *erosi nuen. Garai hartan, ezkongabeek bakarrik jarraitzen zuten fabriketan lanean. Eta seme-alaba txikiak beren ardurapean zeuzkaten alargunek berriz ekiten zioten lanari* (gazt.).

*Nire ama Fabrika Handian lan egiten zuen, lino fabrikan, Santa Klara kalean zegoena. Eta zer jantziak zeukaten! Oso ederrak! Oraindik jantzia bera, trajea bera etxean dugu. Nire ama han egon zen lanean baina ezkondu eta gero lana utzi zuen. Garai hartan emakume bazina horrela zen.*

*Papeleran, emakumeek alde egin behar zuten ezkonduz gero. Kalte-ordain bat ematen zieten, eta lana utzi behar zuten. Orduan diru asko samar ematen zuten fabrikako lana uzteagatik. 11.000 pezeta inguru. Berdin zen enpresan 15 edo 5 urtez aritu izana; diru-kopuru berdina ematen zieten guztiei. Gizonek lanean jarrai zezaketen ezkondu ondoren, baina guk ez* (gazt.).

*Ezkondu eta gero lana utzi nuen. Emakume gehienek lana uzten zuten ezkontzerakoan. Umeak izan eta garai hartan gurasoek ez zuten laguntzen, eta ezin duzu umeak bakarrik utzi lanera joateko. Orduan guk uzten genuen lana, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ia emakume denek lana uzten zuten.*

---

[173] Logela.

*1950eko hamarkadan, ezkonduz gero lana utzi behar genuen. Lehenago ezkondutako emakume batzuek lanean jarraitzen zuten fabrikan, baina ni dotea eskatzera eta fabrikako lana uztera behartu ninduten* (gazt.).

*14-15 urtekin fabriketan egiten genuen lana. Pekinen egon nintzen. Eta Oiartzungo jendea zegoen, Pasaiatik ere etortzen ziren, Lezotik… Jende asko geuden Pekinen lanean. Ezkondu eta gero utzi behar zen lana. Legea zen. Ematen zizuten soldata zera bat. Nik kobratu nituen 13.000 peseta. Orduan diru asko zen. Horrekin ezkontza ordaindu genuen, bidaia egin genuen, eta, gainera, 1.000 peseta sobratu zaizkigun.*

*Hemen emakume gehienak fabrikara joaten ziren lanera eta horregatik, neskame eta ume-zaintzaile asko zeuden. Ez da gaurko egoera. Errenterian behintzat. Eta gero, gure denboran, (50eko hamarkadan zehar) dotearena agertu zen, eta, horregatik, fabrikako lana utzi genuen, baina lehen emakumeek fabrikan lanean jarraitzen zuten.*

*Ni hasi nintzen lanean 14 urtekin Niessen fabrikan. 7 urte eman nituen hor. Ezkontzerakoan fabrika utzi nuen. Derrigortzen gintuzten lana uztera ezkontzeko. Legea zen. Frankoren garaiko legea.*

Emakumeen esperientzia eta testigantza horietan jasotakoa bat dator Espainiako estatuko beste toki batzuetan frankismoaren garaian gertatutakoarekin. Arantza Ancizarrek ongi azaltzen duen moduan, emakumeek ordaindutako lanean izan zuten partaidetzak enplegu-eredu jakin bat izan zuen bereizgarri: aldi baterako lana zen, ezkondu aurretik edo ezkondu ordez egiten zutena, baina inoiz edo ia inoiz ez zen bateragarria Estatuak emakumeen esku utzitako eginkizunarekin, hots, etxekoandre eta ama izatea[174]. Nolanahi ere, aurreko atal historikoan ikusi dugunez, garai batzuetan emakumeek lanean jarraitu zuten, debekuak izan arren, gizartean praktika batzuk nagusi izan arren, aurreiritziak izan arren eta era guztietako oztopoak eduki arren. Emakume asko ezkontzean kaleratu egin bazituzten ere, edo fabrikako lana uztea erabaki bazuten ere, beste askok lanean jarraitu zuten. Errenteriako enpresa batzuetan beste batzuetan baino malgutasun handiagoz aplikatu zuten araudia, eta emakume guztiek ez zuten negoziazio indibidual edo kolektiborako aukera berdina izan, ezta lanari eusteko interes pertsonal berdina ere.

Fabriketan ziharduten gizonen eta emakumeen arteko beste desberdintasun bat soldatena izan zen. Esaten denez, historikoki, langileen kostuan zegoen alde hori izan zen emakume asko lanean aritzeko arrazoietako bat:

[174] ANCIZAR, Arantza: *Voces… op. cit.*, 14. or.

*Gizonen eta emakumeen soldatak ez ziren berdinak. Gizonek gehiago irabazten zuten* (gazt.).

*Manta-fabrikan, gizonek emakumeek baino gehiago irabazten zuten. Mundu guztiak zekien hori* (gazt.).

*Luzuriaga enpresan, bulegoetan, lanpostu berean, ez zieten berdina ordaintzen emakumeei eta gizonei. Emakumeak gutxiago irabazten zuen, emakume izateagatik. Soldata-berdintasunaren inguruan gogor borrokatu genuen: greba egin genuen, soldatak parekatzea eskatzeko, eta lortu genuen* (gazt.).

## Sexuaren araberako lan-banaketa

Gizonei baino soldata txikiagoa ematea ez ezik, baziren fabriketako emakume langileak diskriminatzeko beste modu batzuk ere. Diskriminazioko estrategietako bat lanpostuak sexu edo generoaren arabera bereiztea izan zen. Hau da, enpresa gehienetan, emakumeek ordainsari eta aitorpen gutxieneko karguak betetzen zituzten. Lana sexuaren arabera banatzea esaten zaio horri.

*Niessenen lan egiten zuten gizon gehienak mekanikoak ziren. Mekanikako tailerrean zeuden, eta mekanikan gehiago irabazten zen* (gazt.).

*Oihal-fabrikan langile gehienak emakumeak ziren, baina arduraduna eta makinak konpontzen zituztenak, mekanikoak, gizonak ziren, eta diru gehiago irabazten zuten lanpostu horietan* (gazt.).

*Nik Paisan lan egin nuen, akaberaren sailean. 30 bat emakumek lan egiten genuen sail horretan. Eta kalitatearen kontrolean ere gehienak emakumeak ziren. Baina injekziozko makinen sailean, berriz, ia denak gizonak ziren. Pare bat neska zeuden, baina gehienak gizonak ziren. Sexuaren arabera bereizita zeuden zereginak. Nagusiki gizonek lan egiten zuten postuetan gehiago irabazten zen* (gazt.).

Lantaldeko emakume batek biltegizain gisa lan egin zuen Industrias Plásticas Beta enpresan, eta erantzukizun-kargu bat izatera iritsi zen, baina horrelako kasu bakan batzuk baino ez dituzte gogoratzen. Ohiz kanpokoa zen emakumeek aginteko postuak betetzea edo orokorrean “maskulinotzat” jotzen ziren eginkizunak izatea, eta eginkizun horien artean sartuta zeuden ardura eta aginte handiagoko postuak. Ez zegoen emakumezko nagusi asko.

Enpresetan zereginak eta lanpostuak sexuaren arabera bereizteaz gain, baziren zenbait jarduera eta sektore industrial gizarteak “femeninotzat” hartzen zituenak,

eta, hortaz, emakumezko langile gehiago aritzen ziren arlo horietan. Honela adierazi digute hori zenbait emakumek:

> *Liho-fabrikan emakume brodatzaile asko zegoen. Bazirudien han lan egiten zutenak beste tailer batzuetan aritzen zirenak baino "finagoak" zirela. Gogoan dut kotoizko eskuzatar asko egiten zituztela, eta ospe handiko maindireak. Brodatzaileen lana finagotzat geneukan, beste lan batzuk baino femeninoagotzat* (gazt.).

> *Laneran emakume asko zegoen, ehungintzako fabriketan beti izaten baitzen emakume asko lanean. Gizonak mekanikoak, suginak, tindatzaileak ziren, baina emakumeak arduratzen ziren ehungailuak erabiltzeaz eta brodatzeaz. Lan hori 'femeninoagotzat' hartzen zen* (gazt.).

> *Olibet gaileta-fabrikan paketeak egiten lan egiten zuten langile guztiak emakumeak ziren. 'Gaileta-egileak' esaten zitzaien. Oso ezagunak izan ziren* (gazt.).

Euskal Herriko beste gaileta-fabrika batean, Deustuko Artiach lantegian, egoera antzekoa zen: emakumez osatutako langile talde handia zuen, eta prestakuntzarik behar ez zuten zereginak egiten zituzten soldata txiki baten truke; gainera, oso gutxitan izaten zuten aurrera egin eta beste eginkizun batzuk lortzeko aukera[175].

Bilboko gaileta-fabrikari buruzko azterlanaren alderdi interesgarri bat zera da, lagungarria dela merezi duten balioa emateko errazak eta garrantzi gabeak diruditen lanei, hala nola paketeak egiteari; lan hori, hain zuzen ere, gutxi ordaindutako zeregin erraz horietakotzat zuten. Denbora batez, nagusiki XX. mendearen lehen erdialdean, janari-dendetan soltean saltzen zuten dena, ez baitzegoen biltzeko elementurik edo paketatzeko material egokirik. Elikagai gehienak dendetan jartzen zituzten denboraren eta tenperatura altuen eraginpean, eta gero egunkari-paperean bilduta saltzen zituzten, edo, onen-onenean, zatar-paperean bilduta. Orokorrean, ordena gutxi zegoen, eta osasun-neurri eskasak: arrunta zen, esaterako, amoniakoz betetako bidoi bat irin-zaku baten gainean egotea, eta horrek, noski, ustekabe bat gertatzeko arriskua zuen. Hortaz, gailetak paketetan saltzea berrikuntza handia izan zen, produktua babesteko eta iraunarazteko balio izan baitzuen, baita produktuari formaltasun komertziala emateko ere, enpresak ezagutzera emango zituzten esloganak eta irudiak inprimatzeko aukera baliatuta. Hala bada, gailetak paketatzea, XXI. mendean normala eta logikoa dena, egundoko

175 SÁNCHEZ, Esteban: *Artiach…*, *op. cit.*, 2007, 60. or. eta hur.

berrikuntza izan zen 1950eko hamarkadan, eta “zerbitzatzeko” modu oso aurreratua[176]. Pakete-egileei ez zitzaien aitortu haien lanak berekin ekarri zuen entzutea edo estimazioa.

## Lanaren esanahiak

Errenteriako emakumeentzat herriko lantegietan egindako lanak hainbat esanahi izan ditu, garaiaren eta egoeraren arabera. Gerraostean eta 50eko hamarkadara arte lan egin zuten emakume gehienek esaten dutenez, beharrak bultzatuta lan egin zuten lantegietan. Familiako kide guztiek lan egiten zuten fabriketan etxera dirua eramateko, baita haurrek ere. Hori erakusten digute zenbait emakumeren kontakizunek:

> *Etxean seme-alabek 14 urte noiz beteko zain egoten ziren, lanean has zitezen. Ni 8 urterekin hasi nintzen lanean, eta 14rekin fabrikako ofiziala nintzen, eta diru guztia etxean uzten nuen, janaria erosteko. Horregatik beti esan izan dut ezkontzak askatasuna eman zidala. Ez nuen fabrikan lanean jarraitu nahi izan* (gazt.).

> *Garai hartan lanak ez zigun independentzia ekonomikoa ematen, dirua ez baitzen guretzat. Behar hutsagatik lan egiten genuen. Irabazitako guztia aitaren soldatari eransten genion, familiak bizirik irauteko* (gazt.).

> *Ni ahizpa baino 13 urte zaharragoa naiz, eta nire garaitik harenera alde handia izan zen. Nire garaian askoz lehenago hasten ginen lanean. Txiki-txikitatik lagundu behar genuen etxean, familia aurrera ateratzeko. Gainera, lan asko egiten genituen etxean, eta fabrikako bizimodua oso gogorra zen. Lana besterik ez genuen egiten, etxean eta etxetik kanpo. Gerraosteko neskatxak ginen. Bizirik irautea beste helbururik ez genuen* (gazt.).

1960ko hamarkadaren erdialdean eta 1970eko hamarkadan lantegietan lanean hasi zirenei, ostera, etxera soldata bat eramateko aukera ez ezik, fabriketako enpleguak independentzia ere ematen zien, eta, hori dela eta, ezkondu ostean lanean jarraitu zuten. Argi dago emakumeen belaunaldi horrek bestelako gizarte- eta lan-baldintza batzuk zituela, aurrekoenak ez bezalakoak, eta gainera mugimendu feministaren, langileen borrokaren eta urte haietan nagusitu ziren beste mugimendu eta ideia sozial batzuen eragina jaso zuen:

---

[176] *Idem*, 94.-96. or.

*Geroago, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadan lanean jarraitu zuten emakumeentzat egoera aldatu egin zen, irabazitako dirua eurentzat baitzen eta independenteagoak baitziren* (gazt.).

*Ezkondu ondoren lanean jarraitu nuen, eta, nire ahizpa zaharrenek ez bezala, ez nuen ezagutu gerraondoko errazionamendu-garaia. Onartzen dut Paisa lantegiko lanak independentzia eman zidala* (gazt.).

## Lanaren aldaketak

Emakumeek gogoan dute, halaber, zenbat aldatu ziren ekoizpen-moduak denboran barrena eta industrializazio-prozesuan barrena. 1940ko eta 1950eko hamarkadetan fabriketan lan egin zutenek esaten dute lana eskuz egitekoa zela, ez oso mekanizatua. Haien hitzetan, lana gogorra zen, ez baitzeukaten zeregina nolabait erraztuko zien makinarik, baina, aldi berean, estres askoz txikiagoa zuten.

Desarrollismo industrialeko urteetatik aurrera, XX. mendearen 60ko hamarkadan, produkzioa mekanizatu egin zen, eta lortu beharreko gutxieneko emaitzak ezarri zituzten, baita langileak kontrolatzeko sistema ere. Garai hartan fabriketan lan egin zuten emakumeek ekoizpen-katean betetzen zuten lana estresagarritzat eta lan-esplotaziotzat definitzen dute:

*Nik 50eko hamarkadan lan egin nuen Niessenen. Hasieran, eskuz egiten genuen dena. Industria zen, baina dena eskuz egiten zen. Gero aldatu egin zuten ekoizteko modua, eta asko laburtu zuten prozesua. Makina bidez egiten zen dena. Nire garaian, eskuz egiten genituen entxufeen piezak, eta barrika batera botatzen genituen, milaka eta milaka entxufe. Gero zinta bat jarri zuten, eta produkzio-katean ipini gintuzten: batek muntatu, beste batek torlojuak jarri… Eta bidali egiten zen. Fabrika utzi eta urte batzuk igarota, lantegi berria ikustera gonbidatu gintuzten, nola lan egiten zen ikus genezan, eta ez zuen zerikusirik gure garaiko lanarekin. Guztia mekanizatuta zegoen. Horregatik behar zen lehen jende gehiago kopuru berdina ekoizteko* (gazt.).

*Fabrikan hasi arte ez nuen ezagutu* esplotazio *hitzaren esanahia. 14 urterekin jostundegi batean lan egin nuen, eta lasaiagoa zen, beste modu batera lan egiten genuen. Baina fabrikan hasi nintzenean, 17 urte nituela (Esmalterian, 70eko hamarkadan), lana estresagarriagoa zen. Erabat kontrolatuta geunden. Konturatzen ginen esplotatu egiten gintuztela, eta orduan hasi zen laneko eskubideak aldarrikatzeko mugimendua. Lehen beste modu batera ekoizten zuten. Enpresetako giroa lasaiagoa zen; eskuz*

*ekoizten zen, eta ez zegoen horrelako presiorik. Gero produkzioa modernizatu egin zen, kateko ekoizpen bilakatu zen. Ia ez genuen komunera joateko aukerarik ere, ezta gure tokitik mugitzekoa ere. Produkzio gorena lortu behar genuen. Pieza bat egiteko zenbat denbora behar genuen neurtzen zuten. Horregatik izan ziren greba asko 70eko hamarkadan* (gazt.).

*Niessen fabrikan dena oso kontralatuta zegoen. Komunak zeuden baina lurrekoak ziren, eseri barik, gizonentzako pentsatuta. Ez geneukan denborarik gosaltzeko. Montajean bertan, lanean aritzen ginen bitartean, madalena edo otartekoa jaten genuen. Kontrola oso handia zen eta lanaren arabera kobratzen zen. Lan asko egiten bazenuen, ba, prima bat ematen zizuten. 20 pezeta hilean.*

*Enpresetan kalitate-kontrola sartu zutenean, destajuan lan egiten zen. Lehen ordubetean 500 pieza egiten bazenituen, gero 750 pieza egin behar zenituen, prima jaso nahi bazenuen* (gazt.).

## Fabrikaren luzapena etxean

Emakume batzuen kontakizunen arabera, askok zeharka lan egiten zuten herriko fabrikentzat. Tailer txikiak zituzten etxeetan, eta haietan konpontzen edo/eta fabrikatzen zituzten produktu ugari, bai fabrikek edo enpresek enkarguz zuzenean eskatuta, bai egin ostean enpresei saltzeko: espartinak, arrosarioak, galtzontzilloak, gabardinak, janzkiak, puntuzko jakak, kapelak…




1919ko *Rentería* aldizkarian agertutako iragarkia.




1960. urteko iragarkia, *Rentería* aldizkarian argitaratutakoa.

*Beste jarduera bat ere egiten zuten etxean emakumeek. Bazen galtzerdi-fabrika bat, Llorenterena, eta ehuleek han egiten zituzten galtzerdiak, baina gero hari batzuk errematatu egin behar ziren, eta hori etxeetan egiten zen. Dozenaka ordaintzen zuten. Galtzontzilloen fabrika bat ere bazen, eta beste bat espartinena. Gure amak fabrika horretarako galtzontzilloak josi zituen 1929. edo 1930. urtean. Etxean josten zituen. Fabrikan ebakita ematen zizkioten, eta etxean josten zituen. Batzuk luzeak ziren, eta beste batzuk belaunerainokoak. Kotoizkoak ziren* (gazt.).

*Nire aitak, biajante moduan jarri zen, alpargatak saltzen, "Lorebat" enpresa zen. Lezoko beste batekin. Nik egin nituen alpargatak etxean. Jendeak telak bidaltzen zituen eta gero josten genituen guk etxean. Nik bakarrikan egiten nuen etxean. Josefina, nire lagunak, ere egiten zituen, eta emakume gehiagok, gero nire aitak saltzeko. Alpargata gutxi egiten nituen. Fabrikara joan, gero zazpietan josten ikastera eta gero etxean alpargatak egitera. Telazkoak ziren, orain bezelakoak: urdinak, gorriak, txuriak… kolorezkoak. Algodoia zeraman. Tela moztua etortzen zen. Zintak jartzen genituen. Alpargata eskaera handia zegoen garai hartan. Alpargata asko egiten ziren herrian. Hemen zegoen bat `Mari Ángeles, la alpargatera` deitzen genion. Horrek alpargata asko egiten zituen egunero. Auzoko jendea berarengana joaten zen alpargatak erostera. Garai hartan alpargata asko erabiltzen zen. Jendea alpargatakin ibiltzen zen. Lanera joateko edo mendira edo edozein tokitara, denak alpargatakin. Nik ere erabiltzen nituen. Eta nik egin ditut alpargatak, numero denetikan egiten genituen, eta soberan zegoen telakin nik niretzako alpargatak egiten nituen. Konjuntu dena.*

*Emakume batzuek jaunartzeetako soinekoak lisaburdinaz izurtzen zituzten, eta etxean aritzen ziren, enpresaren batentzat lanean* (gazt.).

*Hasi nintzen errosarioak egiten, etxean. Materialak Eduardo Nogués fabrikatik hartzen nituen eta gero etxean egiten nituen errosarioak. Fabrika Kaputxinosen zegoen jarrita. Eta errosario fabrika kendu zutenean, goiko kalean batek egiten zituen eta berak ematen zizkidan materialak. Behar izan genuen materiala zen: perlak, `corazones de Jesús´, gurutzeak eta alanbria. Alanbriari perlak sartu.*

*Etxeko lanak egin eta bazkaldu ondoren, eskupilotara jolastera joaten nintzen eta gero, berriz, lanera errosarioak egitera. Sujetadoreak egin eta saltzen nituen ere bai. Etxean egiten nituen. Gantxiloakin egiten nituen.*

Emakumeetako batek kontatu digu 14 urterekin josten hasi zela tailer batean eta geroago Donostiako tailer batean lan egin zuela. Gogoan du mila metroko

oihalak mahai handi batean ipini eta tolestu egiten zituztela. Patroiak jarri, eta markatu egiten zituzten, eta zerra mekanizatu batez 50 jantzi ebakitzen zituzten aldi berean. Gero, josleen etxeetara eramaten zituzten oihal-zati haiek: “Nagusiak etxera eramaten zizkigun, josteko, eta gero jantziak eginda itzultzen genizkion” (gazt.).

Horrelako lanetan, emakumeek ez zituzten beti izaten fabriketan baino lanbaldintza hobeak. Hona hemen haietako batek kontatutakoa:

> *Etxean ordutegirik gabe lan egiten nuen, egun osoan edo ahal bezainbeste denbora: batzuetan goizeko seietan esnatzen nintzen, jostera, baina bizilaguna kexatu egiten zen soinuagatik, eta zortziak arte ezin izaten nuen lan egin, hori adostu baikenuen soinuagatik. Eta lanean aritzen nintzen gaueko hamarrak arte* (gazt.).

Beste emakume batzuek tailerretako piezak ondo eginak zeudela egiaztatzen zuten etxean, eta paketeetan sartu eta fabrikara bueltan bidaltzen zituzten. Eta beste emakume batzuek, baita neskatxek ere, hainbat enpresaren produktuak sartzeko paketeak prestatzen zituzten, emakume batek kontatu digunez:

> *La Palmera enpresarentzat kartoizko kaxak egin nituen, guraizeak eta beste produktu batzuk saltzeko. Inprimategiak ematen zigun materiala, eta etxean egiten genituen kaxak eta bilgarriak, kolaz, eta gero dendek erosten zizkiguten. Lan hori txikiak ginela egiten genuen, 8 edo 10 urterekin (gazt.).*

> *Gure izebak 87 urte ditu orain, eta Niessenen lan egin zuen. Fabrikatik piezak ekartzen zituen etxera, bizarrak kentzeko, hau da, soberan zeukaten plastikoa kentzeko. Sukaldean esertzen zen, eta hizketan ari ginen bitartean egiten zuen lan hori (gazt.).*

## Itsasoko produktuen enpresak

Bakailaoa gazitzeko bi enpresa zeuden: Meipi, S.A. eta Pysbe (Pescaderías y Saladeros de Bacalao de España). Pasaiako kaian kokatuta bazeuden ere, Errenterian bizi ziren emakume askok lan egiten zuten bakailao-lantegietan. Kontatzen dutenez, kontserba-fabrika bat ere bazegoen gertu, Lezon, eta antxoak eta sardinak poteratzen zituzten bertan. Enpresa horietako langile gehienak emakumeak ziren.

Gizonak arrantzan aritzen ziren, baita itsasontziak deskargatzen eta karga kai ondoan kokatutako egurrezko paletetan ipintzen ere. Hortik kamioietan eramaten

zuten karga fabriketara. Emakumeek arraina sailkatzen zuten, tamainaren eta beste ezaugarri batzuen arabera, eta hondatuta edo ustelduta zeuden piezak baztertzen zituzten –horiek arrain-irina egiteko erabiltzen zituzten–. Horrez gainera, garbitu, parrilan erre eta gazitu egiten zuten arraina, bakailao-fabrika horiek arrain gazitua bakarrik saltzen baitzuten.

Elkarrizketetan parte hartu duten emakume gehienek aipatu dute portuarekin zerikusia zuten lanak zirela nekagarrienetako batzuk eta okerren ordaindutako batzuk:

> *Portuko lanak oso gogorrak ziren, eta oso gaizki ordaintzen zituzten. Gogoratzen dut emakume batzuk Donibanera oinez joaten zirela bakailaoa gazitzen lan egitera, eta hori zen orduko lanik gogorrenetako bat* (gazt.).

> *Bakailao-fabrikan ordu asko lan egiten zituzten. Nahi bezainbeste ordu egin zitzaketen. Ez zuten ordutegi finkorik. Beti izaten ziren zortzi ordu baino gehiago, zenbat eta gehiago lan egin orduan eta gehiago irabazten baitzuten. Eta oso gutxi ordaintzen zietenez, ordu asko egin behar zituzten* (gazt.).

> *Portuan oso gutxi ordaintzen zuten. Pysbe enpresan, arraina gazitzen, emakumeek gutxi irabazten zuten, eta antxoa-fabrikan ere bai. Lan gogorrak ziren, eta gaizki ordainduak* (gazt.).

> *Gogoan dut antxoa-fabrika bat ere izan zela eta emakumeek lan egiten zutela bertan. Sailkatu, paketatu… egiten zuten. Enpresa Lezon zegoen, baina Errenteriako emakumeak joaten ziren. Eta errenteriar emakumeak bakailaoa gazitzera ere joaten ziren. Ziur asko, horiek ziren okerren ordaindutako lanak, eta gogorrenak. Gainera, portuan lan egiten zuten emakumeek kresal-usaina zeukaten* (gazt.).

> *Gure amak, seme-alabak zaintzeaz gain eta etxeko lanak egiteaz gain, Pysbe bakailao-fabrikan lan egin zuen, eta oso lan gogorra zen. Ez zegoen eskularrurik, eta eskuz bota behar zioten gatz lodia arrainari, eta pisu handia eraman behar zuten gainean. Gainera, oso goiz jaikitzen ziren. Itsasontziak iristen zirenerako joan behar zuten, eta blai eginda etortzen ziren etxera. Errenteriako emakume askok lan egin zuen bakailaoan. Lan txarrenetako bat zen. Pasaian zegoen, baina Errenteriako emakume asko joaten zen hara lanera. Aldi baterako lana zen: sei hilabete egiten zituzten itsasoan, eta itsasontziak iristean edukitzen zuten lana* (gazt.).

Aipatu digutenez, bakailao-fabriketan lan egiten zuten emakumeetako asko auzo jakin batekoak ziren, eta, gehien-gehienak, Galiziako kostaldetik iritsitako etorkinak:

*Ezagutu nituen azken bakailaoketariak gaur egun topoaren geltokia dagoen tokian lan egiten zuten. Galiziarrak ziren denak. Ondartxon bizi ziren galiziar emakumeak Oiartzuna eta Pasaiara joaten ziren, bakailao-fabriketan lan egitera* (gazt.).

## Langileen eskubideen aldeko borroka

Aurreko atalean ikusi dugunez, Errenteriako industriaren historia fabriketan lan-eskubideen alde egindako borrokaren historia ere bada, eta emakumeek presentzia nabarmena izan zuten borroka horretan. Modu aktiboan parte hartu zuten XX. mendean barrena gauzatutako grebetan, eta elkarrizketatu ditugunek bidezko hitzarmenaren aldeko aldarrikapenak aipatu dizkigute, hau da, ordaindutako oporraldiak, gehienez 8 orduko lanaldiak eta soldata-igoerak lortzeko egindako aldarrikapenak:

*1956an, greba egin zuten Papeleran, eta fabrika gelditu egin zen. Piketeak zeuden nonahi, eta lauzpabost egun iraun zuen. Azkenean etxera joan zitzaizkien bila* (gazt.).

*Orain dela 40 urte greba egin zuten ontzioletan, eta gizonek zein emakumeek parte hartu zuten. Baten bat zenbait hilabetez luzatu zen. Hitzarmenaren negoziazioekin zerikusia zuten* (gazt.).

Urte latzak ziren aldarrikapenetarako, erregimen politikoak erakunde mota oro debekatu baitzuen. Hala eta guztiz ere, langileen borroka ez zen inoiz desagertu:

*1975. urtera arte ezin izan genuen ezer esan fabrikaren barruan, dena klandestinoa zen. Soldata-igoera eskatzeko orritxo bat (ate) azpitik bota eta harrapatuz gero, ikaragarrizko iskanbila sortzen zen! Eta ezkutuko borroka izan zen, eta emakumeek ere parte hartu zuten. Soldatak igotzea edo lanorduak murriztea lortzeko. Nik lan egiten nuenean, larunbatetan ere egiten genuen lan, eta gero, borrokari esker, larunbata jai izan genuen, eta ostiralera arte bakarrik aritzen ginen* (gazt.).

Borroka indartuz joan zen frankismoaren amaieran. Emakume batzuek kontatu digute informazioa banatzen ibiltzen zirela, bileretara joaten zirela eta antolamendurako eta aldarrikapenerako espazioa osatzen zuten jarduera mota guztietan parte hartzen zutela. Sindikatuak debekatuta zeudenez, jendea tabernetan, elizetan edo mendian biltzen zen, edo mugara joaten ziren bildu ahal izateko. Fabrika bakoitzean zenbait pertsona hautatzen zituzten, beste fabrika batzuetako ordezkariekin elkar zitezen, lantegi guztiak mobilizatzeko eta sektore guztiak batzeko

asmoa baitzuten. Lan-arloko aldarrikapenak egiten zituzten. “Kalean elkartuta, orri batzuk ematen zizkizuten, fabrikan botatzeko, eta horrelaxe funtzionatzen zuen” (gazt.), kontatu digu emakume batek.

Hala bada, sistemaren itzalpean ezkutuko mugimendu sindikala eta feminista garatu zen Errenterian, eta 1975etik aurrera, Franco hil ostean, legezko estatutua lortu, eta indartzen hasi zen. Urte haietan zaila zen aktibismo politikoa eta langileen mobilizazioak bereiztea, oso une gatazkatsuak izan ziren eta:

> *Eta fabrikako borroka ez zen soldata-igoera lortzeko bakarrik. Borroka politikoaren garaia zen, bete-betean, eta 70eko hamarkadakoa itzela izan zen! Burgosko prozesuaren kasuan, Errenteriako fabrika guztiak irten ziren kalera, borroka historikoa izan zen. Ez ginen diru-kontuengatik bakarrik irteten kalera; gatazka politiko latzak zeuden. Ez da oso bizitza* ligtha *izan. Burgosekoa gertatu zenean, ni lanean ari nintzen, eta leihotik begiratuta, jende mordoa ikusi nuen. Ez zait sekula ahaztuko! Herri guztia irten zen kalera! Jendeak erantzun egin zuen, hemen eta Gipuzkoa osoan. Ikusgarria izan zen!* (gazt.).

Testigantza horretan azalduta dagoen moduan, demokraziaren aldeko borrokaren testuinguruan era guztietako aldarrikapen politiko, zibil eta sozialak sartzen ziren, baita lan-arloko aldarrikapenak ere. Eta poliziaren eta Guardia Zibilaren errepresioak, atxiloketek eta aktibisten hilketek, noski, sektore guztietan eragiten zituzten lanuzteak. 1976ko martxoaren 8an, adibidez, Gipuzkoa osoan egin zuten lanuzte bat, Gasteizen hiru langile hil zituztelako. 1978an, Felmar, Esmaltería Gipuzcoana, Pekin eta Girondine lantegiek eta tailer txiki ugarik bat egin zuten metalaren sektorearen hitzarmenagatik deitutako grebarekin, eta fabriketan batzarrak egin zituzten, eta manifestazioak[177]. Oroimenean gordeta dago Errenteriako fabriketako langileak lanpostuak utzita kalera irteten zirela elkartasunaren eta protesta politikoaren sinbolo gisa.

> *Hainbeste fabrika egonda, hasi ziren gero gatazkak. Gogoratzen dut nolakoak ziren asanbladak herriko plazan, eta nola eztabaidatzen zen, oporrak eskatzeko edo soldataren igoera eskatzeko. Garai hartan (70eko hamarkadan) hasi zen produkzioa modu ezberdinetan egiten, produkzio kopurua eskatzen zuten eta hor sortu ziren eztabaida dexente tailerretan.*
>
> *70eko hamarkadan greba ugari izan ziren. Orduan eskuratu genituen lan-eskubideak. Ia urtero egiten genuen greba: soldata-igoerak eskatzeko,*

---

177 MURO ARRIET, Koro: “Errenteria trantsizio-garaian…”, *op. cit.,* 557.-564. or. eta IZAGIRRE, Koldo: *Voz y vida obrera Luzuriaga hogeita bost lekukotasun,* Pasaiako Udala, Pasaia, 2013, 51. or.

*hobekuntzak aldarrikatzeko, opor gehiago eskatzeko… Enpresa gehienetan greba asko egin zituzten garai hartan. Lan-eskubideen arloko lorpen guztiak greba bidez lortu ziren. Orduan, grebak eginez gero, enpresa guztietan egiten genituen, ez baitzegoen sektorekako hitzarmenik, eta sindikatuak ezkutuan aritzen ziren, baina bateratuta* (gazt.).

*Hemen mugimendu asko egon zen. Sindikatu asko egon dira. Industria lekuetan borroka handiak egoten dira. Batez ere fabrikako langileek borroka eta gatazka asko zituzten. Oso herri bizia izan da beti.*

*Niessen-en greba bat ezagutu nuen. Enbalajean zegoen emakume batek esan zuen: "Aizue! Zerbait egin beharko dugu! Beste fabriketan batzuetan greba egin dute eta gu ere atera behar gara". Eta atera ginen. Kanpoan Karlos Niessen zegoen. Niessenen semea, aurpegi txarrakin. Ez dakit zenbat denbora eman genuen hor kanpoan… Azkenean konpondu ginen eta sartu ginenean Karlos Niessen pozik jarri zen. Uste dut grebaren eskaera zela soldatak igotzea.*

*Gaur egungo grebak ez dira lehengoak bezalakoak. Lehen, fabrika batek edo sektore batek greba egiten bazuen, mundu guztiak eteten zuen produkzioa. Elkartasun handiagoa zegoen langileen artean. Horrela lortu ziren lan-eskubideak* (gazt.).

*Kateko produkzioan ulertu nuen zer zen laneko esplotazioa, Esmalterian eta Laneran. Langile-klasearen kontzientzia hartu nuen. 70eko hamarkada zen. Emakumeak, bereziki, eskulan oso merkea ginen. Gizonek baino gutxiago irabazten genuen, berdin lan eginda. Hala ere, pixkanaka, grebak eta lanuzteak eginda, ia soldata berdina jasotzea lortu genuen. Hemen greba orokor ugari egin ditugu lan-hitzarmen baten alde. Fabrika guztietako langileak irteten ginen kalera. 70eko hamarkadan hasi zen borroka sindikalista eta hitzarmenen aldeko borroka* (gazt.).

*Emakumeok produkzioa gelditu izan dugu, hotz handia edo bero handia egiten zuelako fabrikan, eta greba horietako asko guk bakarrik egin genituen, emakumeok. Batzuetan gizonen babesa jaso genuen, baina beste batzuetan ez. Haiek eskaera orokorrak edo hitzarmenarekin lotutako gaiak baziren parte hartzen zuten, baina barneko kontuak baziren, enpresarekin zerikusia zutenak, emakumeok bakarrik irteten ginen* (gazt.).

Langileen eskubideen aldeko borrokan Errenteriak izan duen emakume sindikalista aktibo eta oroituenetako bat Emili Martin izan da, CCOO sindikatuaren lehen sortzaileetako bat izan zena.

## Lanetik harago

Errenterian, lantegiak bizipen eta pasadizo on zein txarren agertoki izan dira: alde batetik, emakumeen presentzia nabaria izan da fabriketan, baita haien arteko elkartasuna ere; beste alde batetik, diskriminaziorako eta esplotaziorako eremuak izan dira, baita lan-eskubideen aldeko borrokarako eremuak ere. Emakume batzuentzat behar handiko garaitan bizirik irauteko bitartekoa izan dira; beste batzuentzat, berriz, nortasuna eta independentzia ekonomikoa eskuratzeko tokiak.

Oroitzapen positiboen artean, Errenterian lan egin zuten emakume askok lankideen arteko bizikidetza eta laguntza aipatzen dituzte, eta fabriketan sortutako adiskidetasun-harreman batzuek gaurdaino iraun dute, eta lankide ohiek elkartzen jarraitzen dute, erretiroa hartu zutela hainbat urte igaro badira ere. Oraindik badituzte kontatu beharreko anekdota eta kontu hunkigarriak:

> *Guk oso ondo pasatzen genuen Papeleran. Nahiko kontrolatuta bageunden ere, oso giro ona genuen gure artean* (gazt.).
>
> *Nik manta-fabrikan lan egin nuen, eta Litografías Urezbea enpresan. Kartoiak eta kaxak egiten genituen, labanak, guraizeak eta horrelakoak sartzeko, eta hango langile guztiak emakumeak ginen. 14 urterekin hasi nintzen, eta 18 nituela alde egin nuen. Nire lehen lana izan zen, eta oso oroitzapen ona daukat. Norbaitek irratia baldin bazuen, nobela kontatzen zigun lan egiten genuen bitartean, eta, arduraduna etorriz gero, keinuak egiten genizkion elkarri, abisatzeko. Lankideen arteko harremana oso ona zen* (gazt.).
>
> *Lantegietan lagun asko egiten genituen. Ni manta-fabrikan egon nintzen. Pasaratze-lanetan denak emakumeak ginen, eta ordu asko igarotzen genituen elkarrekin. Oso ondo konpontzen ginen* (gazt.).
>
> *Gogoan dut Gabonetan mihuraz betetzen genuela enpresa, eta gabonkanta asko abesten genituela* (gazt.).
>
> *Egun osoa abesten pasatzen genuen fabriketan. Batez ere emakume asko zegoen sailetan. Gehiago ekoizten genuela uste dut* (gazt.).
>
> *Niessenen, greba eginez gero, gizon-emakume guztiek egiten genuen, eta, baita festa eginez gero ere. Orokorrean oso ondo moldatzen ginen. Nik oroitzapen onak dauzkat. Enpresa-bazkari bat egiten genuen urtero. Anaitasun-bazkariak izaten ziren* (gazt.).
>
> *Biltegia bete-beteta edukitzen genuen: papera, ahozapiak, denetarik. Eta egun batean ezkongaiz jantzi ninduten, biltegian. Ezkutuan, noski, arduradunak ez ikusteko. Baina harrapatu egin ninduen! Oso ondo pasatu nuen! Biltegian primeran pasatzen nuen. Esperientziak dira. Esperientzia txar bat makinak eskua harrapatu zidanekoa izan zen, baina orokorrean esperientzia onak izan ditut* (gazt.).

Baina lan-baldintza kaskarrak, lanaren gogortasuna, istripuak eta diskriminazioa, gehiegikeriak edo tratu txarrak ere gogoan dituzte:

*Nik Olibet fabrikan lan egin nuen. Ordu asko lan egiten genituen zutik. Emakumeak askoz ugariagoak ziren gizonak baino. Lan desberdinak egiten genituen, eta emakumeok miatu egiten gintuzten, gailetaren bat hartu genuen ikusteko, eta gizonak ez zituzten miatzen, eta gailetak eta azukrea hartzen zituzten* (gazt.).

*Gogoan dut Esmalterian oso kontrolatuta geundela. Gure artean harreman ona genuen, baina arduradunek eta nagusiek asko kontrolatzen gintuzten. Komunera joateko denbora kontrolatzen zuten; errieta egiten ziguten gure artean hitz egiten bagenuen, eta makinatik mugitu ere ezin genuen egin. Errealitatea ez zen ez hain familiarra, ez hain polita* (gazt.).

*Ez neukan ez armairurik, ez aldagelarik. Gogoan dut pertxa batzuk zeudela zintzilik, eta gortina bat, eta hor aldatzen ginen jantziz. Eta ogitartekoa lanean ari ginen bitartean jan behar genuen, gelditu gabe* (gazt.).

*Txandaka lan egiten genuenak 7:30ean sartu eta 13:00etan irteten ginen. 14:00etan berriz sartzen ginen, 20:00ak arte. Hamaika ordu eta erdi lan egiten genuen egunean!* (gazt.).

*Pekinen lan egiten nuenean, tornu handi batean nengoen, eta lan egiten ari ginen bitartean jan behar genuen hamaiketakoa. Tornuaren azpian sartu ohi nuen hamaiketakoa. Aldi hartan kiribilduta zegoen, eta makurtu egin nintzen, eta ilea harrapatu zidan! Une hartan ebakitzen aritu izan balitz, agian hil egingo ninduen* (gazt.).

*Zenbait enpresatan enpresa-bazkariak egiten zituzten, baina jende asko ez zen joaten, ez zelako ondo moldatzen nagusiekin* (gazt.).

*Nik Olibet fabrikan lan egiten nuen, eta oroitzen dut arduradun batek miatu egiten gintuela gailetarik lapurtu ote genuen ikusteko. Eta toki guztietatik sartzen zigun eskua* (gazt.).

Testigantza horiek guztiek emakumeek enpresa eta lantegietako zenbait lan-jardueretan utzitako aztarnak erakusten dizkigute, lantoki eta lan-modalitate askotan utzitako aztarnak, hain zuzen ere. Kontatutako istorioak, pasadizoak eta oroitzapenak emakumeen garrantzi ukaezineko ekintzen adibideak besterik ez dira. Beste fabrika eta enpresa batzuetan edo familia-tailer txikietan lan egin zuten emakumeen esperientzia, edo herriaren garapen industrialean hainbat modutan parte hartu zuten emakumeen esperientzia hemen kontatuta ageri dena baino askoz zabalagoa da. Torlojuak, brea, elektrizitateko objektuak, eskuilak, kremak eta kosmetikoak, ur beroko poltsak, bolanteak, larrua eta arrosarioak lantzen zituzten fabrika eta

enpresetan; mota guztietako ehun-gaien enpresetan; inprentetan; tindategietan, eta halako beste espazio asko eta askotan jardunda, Errenteriako emakumezko langileek herriaren bilakaeran eta industria-dinamika aktiboan lagundu zuten.

## Emakumeen aztarnak beste jarduera ekonomiko batzuetan

Herriko fabriketan eta enpresetan ez ezik, errenteriar emakumeek beste produkzio-espazio askotan ere jardun eta lan egin zuten, jarduera oso desberdinetan. Jarduera horietako batzuek zerikusia zeukaten industrializazioaren dinamikak berak sortutako eginkizun batzuekin; izan ere, biztanleek industriako lanaren erritmora egokitu behar izan zuten bizimodua, eta horrek zenbait behar sorrarazi zituen, baita aukera partikular bat baino gehiago ere. Beste jarduera ekonomiko batzuk, aldiz, fabrikarik gabeko herrietako jardueren antzekoak ziren, eta oso orokortuta egon ziren hainbat toki eta garaitan. Emakumeen lan-jardun bizia lanbide eta zerbitzu ugaritan antzeman dezakegu, espezializatuagoak batzuk eta espezializazio txikiagokoak besteak, eta haien aztarnak etxe barruko nahiz kanpoko ekintzetan bereiz ditzakegu. Ekintza horiek, edozein tokitan gauzatu zituztela ere, eragina izan zuten familiengan, herriko jarduera ekonomiko eta sozialetan eta garai batean herriaren eragile nagusi izan ziren industria txiki zein handietan.

Elkarrizketatutako batzuen hitzak erabiliz, emakume haietako asko “euren kasako langileak” ziren, eta ez ziren “fitxatzen” zutenak bezalakoak. Azken horiek laneko dinamika eta errutina bat ezarrita zuten, lanaldi zehatzekin, eta besteek, aldiz, nolabaiteko ordutegi-malgutasuna edo enpresarekiko independentzia zuten, nahiz eta, ikusiko dugunez, “euren kasa aritzeak” ez zuen esan nahi ordu gutxiagoz lan egiten zutenik.

## Baserritarrak

Errenteriatik hurbil zeuden baserriek elikagaiez hornitu zituzten herriko biztanleak. Eskasia-garaitan, fabriketako langileek elikagai-gabezia handia izan zuten, eta landako biztanleek hobeto bizirik iraun zuten, baserrian bertan ekoizten zutenari esker. Honela azaldu digute zenbait emakumek:

> *Herritar batzuek gosea pasatu zuten. Batez ere gerraostean fabriketan lan egiten zutenek. Baserritarrek, berriz, ez genuen gosea pasatu* (gazt.).
>
> *Kaleko jendeak gaizki pasatu zuen, posgerra garaian, batez ere, eurek gosea pasatu zuten. Baina baserriko jendeak ez du goserik pasa, gure baratzak eta abereak genituelako.*

















Errenteriako baserrien argazkiak.
(Iturria: http://www.ondarea-errenteria.eus eta EUA).

XIX. mendearen erdialdera arte, baserrietan etxeko kideentzat ekoizten zuten, batez ere, hau da, autokontsumorako produkzioa zen. Industriaren garapenaren ondorioz, baina, ekoizteko modua aldatu egin zen baserrietan, eta inguruko elikagai-fabrikei produktuak saltzen hasi ziren (arrautzak eta esnea Olibet fabrikari, esaterako), baita herriko dendei eta erdiguneko jendeari ere, bereziki azoka-egunetan:

> *Gailetak egiteko esnea eramaten zuten baserritik fabriketara egunero. Egunean 40 litro behar bazituzten gailetak egiteko eta 40 litro horiek baserritakoak ziren, eta arraultzak berdin. Hemengo baserrikoak ziren gailetak egiteko produktuak.*
>
> *Baserritik emakume asko etortzen ziren dendara baserriko produktuak saltzera. Lezotik, Hondarribitik… etortzen ziren generoa saltzera, batez ere larunbatetan, feria eguna zela-eta.*

Industria garatzen hasi zenean, baserrietako gizon asko herriko fabriketara joan zen lanera, eta orduan emakume baserritarrak arduratu ziren ekoizpeneko eta salmentako lan gehienez, beste eginkizun batzuk betetzen jarraitzeaz gain:

> *Herrian industria hasi zenean, baserrietako gizon asko tailerretan lanean hasi ziren, eta emakumeek hartu zuten beren gain baserriaren ardura, eta abereena, eta seme-alabena…* (gazt.).
>
> *Neska koskorra nintzenean eskola utzi eta lanera. Baserrira lanera: bazkaria egin eta etxea garbitu, egurra kargatu, ur bila joan… egon nintzen baserri batean lana egiten bertako etxeko andreari laguntzen.*
>
> *Nagusiki emakumeak etortzen ziren saltzera; izan ere, gizonezko baserritar asko (Oiartzungo baserrietakoak) fabriketan lanean hasi ziren, eta emakumeak arduratu ziren baserriko zeregin askoz, hala nola esnea eta barazkiak saltzeaz. Eta seme-alabak hazteaz ere arduratzen ziren. Batzuetan familia osoak joaten ziren fabriketara lanera, fabrika berera* (gazt.).
>
> *Lehen, emakume baserritarrek baserriko zeregin asko egiten zituzten, eta gero herrira joaten ziren produktuak saltzera. Gure ama Oiartzungo baserri batetik etortzen zen produktuak saltzera* (gazt.).

Lehen baino askoz gutxiago badira ere, oraindik badaude emakume baserritarrak Errenteriatik hurbil, eta herrian saltzen dituzte baserriko produktu freskoak. Gipuzkoar emakume baserritar baten hitzetan, baserriko jardunean erretiroa ez da sekula hartzen[178], eta elikagai eta produktu ezinbestekoenen ekoizpena jarduera funtsezkoenetako bat da gizarte osoarentzat.

[178] OTAMENDI, Sole, *El Diario Vasco* egunkarian argitaratutako elkarrizketa, 13/03/13.

## Dendariak, saltzaileak eta "ekintzaileak"

Errenterian, merkataritzan eta produktuen salmentan ere presentzia handia izan dute emakumeek, eta, lehenago ikusi dugunez, presentzia horrek ibilbide luzea izan du. Herriko denda askotan, gehien-gehienak familia-negozioak, emakumeak aritzen ziren dendari-lanetan:

> *Emakume askok dendetan lan egiten zuten, dendari gisa. Maindireak, emakumeen azpiko arropa eta horrelakoak saltzen zituzten. Denda batzuk familiako emakumeek berek gobernatzen zituzten* (gazt.).

> *Ni 12 urterekin hasi nintzen lanean, elikagaien denda batean, ez nuelako ikasi nahi. Felipinen dendan hasi nintzen. Urte batzuk geroago Laneran sartu nintzen* (gazt.).

> *Gabierrota auzoan, `Pakea Etxea` zegoen. Pake Etxean bi emakume ezkongaik zeukaten komestible denda. Etxean bertan zeukaten denda, orduan joaten ginen deitzera eta jaisten ziren dendara guri gauzak saltzera. Dena gogoratzen dut. Egurrezko mostradorea zeukaten eta zorua ere egurrezkoa zen. Baskula bat zeukaten produktuak pisatzeko. Denetarik saltzen zuten: menbrillua puxketan, azukrea, olioa... Hango dendariak ahizpak ziren eta Karmen eta Maria zuten izena.*

> *Nire ahizpa drogerian egon zen. 'Felix Novoa' drogeria. Eta gero ni ere, drogerian egon nintzen. 16 urtekin hasi nintzen hor lanean eta atera nintzen 55 urtekin. Berrogei urte eman nituen lanean drogerian. Denetarik saltzen genuen: sosa kaustika, jaboiak, `Chimbo jaboia eta Lagarto jaboia', lejia, komuna garbitzeko produktuak, 'agua fuerte' ...*

> *Herriko denda gehienak familia-negozioak ziren eta familia osoa egoten zen dendetan, baita emakumeak ere. Horrela zen, esaterako, 'Las Martínez' izeneko arropa-dendan. Garestia zen, baina erraztasun handiak ematen zituzten, hala nola epeka ordaintzeko aukera* (gazt.).

Dendetan lan egin zuten emakumeak ez ezik, gogoan dute, halaber, herriko hiltegian lan egin zuen emakume bat. Eta saltokietan langile gisa edo familiako kide gisa elkarlanean aritzen ziren emakumeez gain, izan ziren, baita ere, bestelako negozioak "gobernatu" zituzten emakumeak eta haien jabe izan zirenak. Dagoeneko aipatu ditugu titulartzat emakumeak izan zituzten zenbait saltoki, 1930eko hamarkadan erregistratutakoak, eta, denboran hain atzera joan gabe, baditugu emakumeen ardurapean zeuden hainbat negozio, hala nola María Quirogaren mertzeria, La Gernikesa oihal-negozioa, "antigüitak" deritzenen denda –non altzariak eta "denetik" saltzen zuten–, "loroen" burdindegia, Paqui gozo-denda eta Jardín taberna. Batzuetan, "herentziagatik" bihurtzen ziren negozioaren buru, gurasoek edo senarrak erretiroa hartzen zutelako edo hil egiten zirelako:

*Emakumeek gobernatutako pentsu-biltegi bat zegoen, Pío Echeverría izenekoa, Santa Klara kalean. Aita hil ondoren, haren hiru alabek zuzendu zuten biltegia urte askoan: Mirenek, Josebek eta Ixiarrek* (gazt.).

*Aduriz okindegi eta gozotegia emakumeek gobernatu zuten. Aitak ogia banatzen zuen, eta duela urte asko hil zen; orduz geroztik, haren emazte Carmenek eta haien lau alabek hartu zuten negozioaren ardura. Erretiroa hartu arte, haiek bakarrik atera zuten aurrera negozioa. Labeaz gain, denda ere bazuten, eta ogia eta pastelak ez ezik, litxarreriak ere saltzen zituzten, zinema ondoan zegoen eta. Emakume haiek gai izan ziren negozioa inolako laguntzarik gabe zuzentzeko* (gazt.).

Era berean, Tatúsek hartu zuen bere aitak sortutako Panier Fleurie jatetxe ezagunaren ardura. Baina beste kasu batzuetan, emakumeek beren kabuz abiarazten eta kudeatzen zituzten saltoki propioak:

*Orduko emakume ekintzaile bat? Fabrikak edo tailerrak ipini ordez fruta-denda bat, gozo-denda bat, kafetegi bat, jatetxe bat edo horrelako zerbait irekitzen zuena* (gazt.).

Emakume ekintzaile bat, herriko emakumeen esanetan Errenteriari entzutea ekarri ziona, Petra Igartua "lore-saltzailea" izan zen, "Oñatin jaioa, baina urte askoan Errenterian bizi izan zena" (gazt.):



Petra Igartua. (Iturria: *Oarso* aldizkaria, 1990).

*Emakume hark entzute handia ematen zion herriari, oso ezaguna baitzen Donostiako osagarri-dendetan. Donostiako dendetatik etortzen ziren, eta Irungoetatik... Lehen, emakumeak traje beltza jantzita ezkontzen ziren, eta laranjondo-lorea eramaten zuten papar-hegalean, eta lore horiek berak egiten zituen. Eta jaunartzeetako koroak, kofiak eta burukoak ere bai. Eta baita belarritakoak ere. Dena eskuz egina, soplete batekin –ohetik, mugitzeko zailtasunak zirela eta– aliketak berotu, eta loreen forma ematen zien oihalei, tulean, gazan... Bitxiloredun belarritako ezin ederragoak egiten zituen* (gazt.).

*Donostiako jende dotoreak burukoak eramaten zituen ezkontzetan, eta berak nahierara egiten zizkien. Emakume hark ospe handia eman zion Errenteriari. Industria hari esker, Errenteriak izen handia lortu zuen. Lan hori egin zuen emakume bakarra izan zen* (gazt.).

Merkataritzako jarduerak lotura zuzena eta estua zuen industriako jarduerarekin. Zenbait kasutan, herriko enpresetan fabrikatutako produktuak saltzen zituzten

dendetan; adibidez, Miren Mendartek dioenez, beraien dendan Olibet fabrikan egindako gailetak saltzen zituzten, eta herrian ez zegoen produktu hori saltzen zuen beste saltokirik. Beste kasu batzuetan, dendak izaten ziren fabriken hornitzaile; adibidez, zenbait enpresak herriko drogerietan erosten zituzten garbiketarako artikuluak. Honela kontatu digute emakume batzuek:

> *Guk Olibet gailetak saltzen genituen eta fama handia zeukaten. Saltzen ziren leku askotan baina guri eman zigun Errenterian saltzeko ´exclusiva´. Errenterian guk bakarrik saltzen genituen Olibet gailetak. Donostiako jendea etortzen zen gure dendara Olibeteko gailetak erostera.*

> *Drogeria batean egin nuen lan eta han azido mota asko herriko fabriketara eramaten zituzten: ´ácido sulfúrico, ácido clorhídrico, cianuro` ere saltzen genuen… Arraultzak bezala saltzen ziren. Holako azidoak eta garbiketarako produktuak asko saltzen genion fabrikako jendeari. Papelerak, adibidez, azido asko eramaten zituen.*







“Olibet” gaileta-enpresaren katalogoa. EUA. Josean Ruiz de Azua.

Denden antolamendua eta ordutegiak ere herriko lantegi eta langileen lanaldi eta beharren araberakoak ziren. Hortaz, denden eta bestelako saltokien jarduera bera baldintzatuta zegoen:

*Langile asko ziren Real Compañía Asturianean lan egiten zutenak eta eurek behar zituzten egunero bazkaria eta fardela egunekoa eramaten zituzten bere lantegira. Gero, beste talde bat etortzen zen, 8:00retan lanera fabrikara sartzen ziren eta hemendik pasatzen ziren janaria erostera. Gero papelerako jendea, gaileterakoak… hemengo fabrikatik etortzen ziren eta horregatik, banekien fabrika bakoitzeko ordutegiak.*

Errenteriako eta inguruko baserrietako emakume asko herriko erdigunera hurbiltzen ziren azoka-egunetan, era guztietako salgaiak erosi eta saltzeko. Herriko emakumeek "merkatu zahar" izenez ezagutzen dutena, Foru plazan kokatua, bizitasunez beteta egoten zen, eta gizon-emakume ugari ibiltzen ziren salerosketan. Gero, tokiz aldatu zuten, eta Merkatuzarren kokatu zuten, gaur egun Udalak kulturgune bilakatu duen eraikinean.

*Errenterian azoka ugari zegoen. Igande goizetakoa oso ezaguna zen, eta bazter guztietako jendea etortzen zen, saldu eta erostera. Bergaratik eta Tolosatik etortzen ziren, eta mahoizko oihalak ekartzen zituzten, saltzeko. Merkatuak bizitasun handia ematen zion herriari. Egun ez dago horrelako azokarik, feria txikiren bat besterik ez. Ni Merkatuzar aurreko merkatuari buruz ari naiz: Foru plazan zegoen, kioskoa dagoen tokian, Xenpelar inguruan. Eta oihalak parkea dagoen tokian saltzen zituzten, kioskoaren parean* (gazt.).

*Gero, 60ko hamarkadan, Merkatuzarren jarri zuten azoka. 1960ko martxoaren 1ean inauguratu zuten. Hori ibar bat zen, eta duela 53 urte hortxe eraiki zuten Merkatuzar, merkatua jartzeko, eta han saltzen zituzten baserrietako produktuak. Duela urte gutxi kendu zuten merkatua hortik. Orain, goizero ipintzen dute azoka, Niessen zegoen inguruan, plaza horretan, baina ez dauka lehengo merkatuarekin zerikusirik* (gazt.).

Hona hemen emakume merkatari batzuek merkatuan izandako esperientzia:

*Jaietan eta igandeetan, plazan egoten nintzen zerbitzura. Saltzera. Postu batera laguntzera eta oihukatzen nuen: "Tenemos bragas con calefacción y sujetadores para levantar a todos los caídos". Horrek andreak esaten zuen eta nik ikasi nuen eta nik ere esaten nuen. Gero beste postu batean egon nintzen, alajak saltzen: pulseras, sortijas, koilareak, belarritakoak, labanak… todo a 3 pesetas.*

*Nik denetarik saldu dut. Baita antxoak ere. ´De la mar a la caja y de la caja al público´ eta arraina ere bai. Garai hartan arrain oso ona zegoen. Eguneko arraina zen. Ez zeukan ez usainik, hain freskoa zenez.*

Sardina-saltzaileak eta esneketariak emakumeek oinarrizko produktuen merkataritzan eta salmentan izan zuten protagonismoaren adibide garbiak dira. Gainera, lanak nortasuna ematen zien emakume haiei: "Paulina esneketaria", "Trini sardina-saltzailea" eta horrelako beste izendapen asko erabiltzen ziren, emakumeen izenak eta salgaiak edo lanbideak elementu banaezinak ziren seinale.

*Sardina-saltzaileak zeuden. Sardinak oholetan ipinita ibiltzen ziren, 'sardina freskue' oihukatuz, eta emakumeak etxetik jaisten ziren, sardinak erostera. Balkoitik entzuten genituen. Oraindik bada sardina-saltzaileren bat bizirik, hala nola Trini* (Maria Arotza dagoeneko hil da). *Antxoak saltzen zituzten emakumeak ere baziren* (gazt.).

*Oiartzundik bi zaldirekin etortzen zen emakume bati hartzen nion esnea, Rosiri* (gazt.).

*Esnea saltzera Errenteriara jaisten ziren esneketari gehienak Oiartzungo baserrietakoak ziren. Ezagutzen ditut Oiartzungo baserri bateko bi ahizpa, egunero etortzen zirenak oinez esnea saltzera* (gazt.).

*Ez da hainbeste denbora, Mari Carmen Carrera Zamalbidetik etortzen zen bere produktuak saltzera. 60 urtetik gora izango ditu, eta egunero oinez etortzen zen, esnea ekartzera. Eta garai hartan bide luze samarra egin behar zuen, oraingoak baino errepide askoz okerragoetatik, eta arrisku handia zuen Astigarragatik eta San Markoko errepidetik* (gazt.).

*Hemen esneketari eta arrainketari ezagun ugari izan ditugu. Arrainketari batzuk Pasaiako portura joaten ziren, arrain freskoa erostera, eta beste batzuk Hondarribitik etortzen ziren. Goizeko 4:00retan joaten ziren portura, kamioi batean, arrainaren enkantera, eta Errenteriara ekartzen zuten, saltzeko* (gazt.).



Argazkia: Jesús Hospitaler, *Errenteriako Historia,* 497. or.

*Emakumeak joaten ziren saskiekin arrainak saltzen herrian zehar. Zapua eta denetarik. Oso merke zegoen arraina garai hartan. Eguneko arraina saltzen zuten. Angula asko eta arraina ere saltzen zuten.*

Emakume asko hurbileko baserrietatik jaisten ziren, hainbat garraiobide erabiliz, fruta, barazkiak, azukrea eta makina bat produktu saltzera:

*Herrian barrena hainbat tokitan utz zitzaketen astoak baserrietatik saltzera etortzen ziren emakumeak. Santa Klara kalearen eta Merkatuzarren inguruan astotokiak zeuden. Elizaren eta Merkatuzarren artean astotoki bat zegoen, eta Maria de Lezo kalean, beste bi. Eta beste bat Beheko kalean. Hor lotzen zituzten astoak, saltzera joateko. Astotoki asko zeuden, baserritar asko jaisten zirelako herrira beren produktuak saltzera* (gazt.).

*Guri esnea saltzen zigun emakumea goizeko 7:00etarako etortzen zen oinez baserritik. Geroago gurdi batean etortzen zen, asto batek tiratuta. Goizean goiz prestatzen zituen esne-marmita guztiak, eta bost seme uzten zituen etxean. Esnea hartu, eta herrira jaisten zen, banaketa egitera* (gazt.).

*Bentetatik eta Zamalbidetik etortzen ziren saltzaileak gurdiz eta asto gainean jaisten ziren, salgaiez beteta* (gazt.).

*Emakume baserritarrak esnea eta barazkiak ekartzen zituzten baserritik, merkatuan saltzeko. Baziren toki batzuk astoak lotuta uzteko, eta handik merkaturaino buru gainean eramaten zituzten salgai guztiak. Ehun bat metroko distantzia zegoen* (gazt.).

*Herrira saltzera jaisten ziren emakume batzuek astoa ekartzen zuten, alde bakoitzean saski bat jarrita, eta, nekatzen zirenean, bi saskien erdian esertzen ziren, astoaren gainean. Baina ibilbidearen zatirik handiena oinez egiten zuten, astoari tiraka eta zama gainean* (gazt.).

*Oiartzungo baserrietatik emakume asko etortzen ziren esnea saltzera. Eta Hondarribiko emakume asko ere bai, barazkiak saltzera. Oraintsuago topoz etortzen ziren. Baina lehen, oinez edo astoz, eta oiloak bizirik ekartzen zituzten, saltzeko. Gogoan dut gure amak oilaskoak edo untxiak ekartzen zituela baserritik; inguruko taberna batean enkargatzen zizkioten, eta trukean gosaltzera gonbidatzen gintuzten* (gazt.).

Adierazi dugunez, desarrollismo industrialaren garaian herriko zenbait lantegik beren ekonomatuak ireki zituzten, lantegiek berek sortu eta kudeatutako dendak. Herrian, enpresa hauek izan zuten ekonomatua, besteak beste: Luzuriaga, La Papelera Española eta RENFE. Victorio Luzuriaga galdategiarena 1970ean eraiki zuten, eta Cooperativa de consumo Molinao izena jarri zioten; Vicente Elizegi

kalean zegoen. La Papelera Española enpresaren kooperatiba Nafarroa hiribidean instalatu zuten[179].

Ekonomatuek ondorio onak eta txarrak izan zituzten Errenteriako biztanleentzat. Alde batetik, enpresa ekonomatudunetako langileek era guztietako kalitatezko produktuak merke eskura zitzaketen, eta ekonomatuetan, gainera, lanpostu berriak sortu ziren, eta emakumeek presentzia handia izan zuten postu horietan, batik bat dendari gisa. Honela kontatu digute emakume batzuek ekonomatuetan izandako esperientzia:

> *Langile kopuru jakin bat zeukaten enpresek nahitaez eduki behar zuten ekonomatua. Produktuak merkeagoak ziren, eta kalitatezko generoa zeukaten. Enpresako langileek bakarrik eros zezaketen bertan. Produktuak dendetan baino merkeagoak ziren* (gazt.).

> *Ekonomatuetan, langileek merke eros zezaketen ikatza. Zenbait kilo oso merke eros zitzaketen* (gazt.).

> *Nik 12 urtez lan egin nuen Luzuriagaren ekonomatuan. Emakume askok egiten zuten lan bertan dendari gisa* (gazt.).

> *Guretzat harrigarria zen enpresako langile izanda zenbat gauza eros genitzakeen ekonomatuetan. Elikagaiak, ehun-gaiak, etxeko gauzak… Jendeak negozio asko egiten zituen ekonomatuan. Txartelak uzten zizkioten elkarri, erosketak bertan egin ahal izateko. Gogoan dut Luzuriagaren ekonomatuan jarri zutela salgai, lehen aldiz, azpiko arropa beltza, enpresan lan egiten zuten emakumeek eros zezaten* (gazt.).

> *Ekonomatuetan emakume askok lan egiten zuten. Saltzaile gehienak emakumeak ziren, baina kutxan eta bulegoetan ere aritu ziren* (gazt.).

Beste alde batetik, baina, ekonomatuen agerpenak eragina izan zuen bai fabriketako langileen lan-baldintzetan, bai beste negozio batzuetan: soldatak igo ordez, produktuak merke eskaintzen zituzten, eta enpresetako denda horien garapenak berekin ekarri zuen, 1970eko hamarkadaren hasieran, herriko saltoki txikiak pixkana-pixkana desagertuz joatea. Honela kontatu digute:

> *Paper-fabrikaren ekonomatua 1959an ireki zuten. Langileei soldata ez igotzeko eratu zuten ekonomatu hori* (gazt.).

> *Ekonomatuak enpresek langileentzat sortutako saltokiak izan ziren, eta denetik saltzen zuten: orratzak, guraizeak, elikagaiak… Supermerkatu*

[179] LACUNZA, Juan Miguel: “La empresa Victorio Luzuriaga…”, *op. cit.* 30. or.

*handien aitzindari izan ziren. Oraingo saltoki handietako askok (Eroski, BM…) enpresa-ekonomatua izan zuten jatorri. Hala ere, nik beti nahiago izan dut auzoko dendetan erosi. Ekonomatuak eta merkataritzako guneak ireki aurretik mundu guztiak erosten zuen herriko dendetan, baina gero, ekonomatuen erruagatik, denda horiek itxi egin behar izan zituzten* (gazt.).

*Guk denda 1970 inguru itxi genuen. Hori gertatu zen koperatibak, "economatos" deitutakoak, hasi ziren garaian. Koperatibagatik itxi genuen denda. Frankok esan zuen langileei laguntzeko koperatibak jarri behar zituztela 1.000 langile baino gehiago lan egiten zuten fabriketan. Orduan hasi zen Luzuriaga, Papelera eta horiek denak koperatibak jartzen. Koperatibak zirenez, beraiek ez zuten etekinik atera behar, orduan jartzen zituzten produktuak fabriketako prezioan. Diru pixka bat sobratzen bazen euren obligazioa zen bertan, fabriketan, inbertitzea. Olioa, adibidez, 8 pezeta balio zuen dendan eta koperatiban, 6 peseta, eta horrela ezin genuen konpetentzia egin. Saiatu ginen supermerkatu moduan jartzea denda, kongelatuak jartzen eta abar baina ezinezkoa izan zen. Janari denda askori kalte egin zion koperatibarena. Janari denda txikiak desagertzen joan ziren. Egun apenas geratzen dira auzoko denda txikiak hemen herrian.*

## Emakume enpresariak

Dagoeneko aipatu dugu bazirela negozioak gobernatu zituzten emakumeak, baita negozioak sortu eta zuzendu zituzten emakume "ekintzaileak" ere. Horiez gainera, enpresari batzuk ere izan ziren, hitz horren esanahia oso-osorik hartuta. Ez da erraza haien ibilbidea ezagutzea, izan ere, sozietate komertzialen izenak aldatuz joan ziren denboran barrena, edo hildako senarrarekin lotura zuten, Loinazen alargunaren kasuan gertatu zen moduan. Udal-aldizkarietako edo industria eta merkataritzako urtekarietako iragarkietan agertzen diren sozietate-izen batzuen kasuan, hala nola Viuda de Bengoetxea garraio-enpresarenean, Viuda e hijos de José León Uranga makineria-enpresarenean eta Viuda de Valverde inprenta eta litografia-enpresarenean, elkarrizketatuek ez dute oroitzen enpresaren kudeaketa emakume baten esku ote zegoen –Cesárea Garbunoren kasuan ez bezala–.

Beste kasu batzuetan, jabeak, izena eta langile taldearen osaera kontuan hartuta gizonekin oso lotuta zeuden enpresa batzuek emakume bat zuten akziodunen artean. Horixe izan zen Luzuriaga galdategiaren kasua, artikulu batean irakur dezakegunez: 1937an, Victorio Luzuriaga, S.L. sozietate-izena sortu zuten,

Victorio aitaren eta Francisco eta Carmen seme-alaben ekarpenekin eratua[180]. Eta, antza denez, Carmenek bezalaxe, beste emakume batzuek ere familia-negozioetan inbertitzen zuten, edo partaidetza zuten, nahiz eta emakume gehienek ez duten haien presentzia edo enpresa-jardunari buruzko berririk, edo ez duten oso ondo gogoratzen.

Aitzitik, gogoan dute Garbiñe Jauregi Abarrateguik jarri zuela martxan Errenteriako hiri-autobusaren negozioa. Senarra hil egin zitzaion, eta, bost edo sei seme-alaba zaintzeaz gain, negozioa aurrera ateratzeaz arduratu zen, eta gaur egun oraindik alabarekin batera lan egiten du bulegoan, laurogei urte baino gehiago izanda ere. Negozioa abiarazi zuenean apenas bazen errepiderik, eta zeuden gutxiak oso egoera txarrean zeuden. Galtzaraborda urbanizatu gabe zegoen, eta autobusak harri-koskorren artetik igaro behar zuen. Elkarrizketatutako emakume batzuen hitzetan, “bide-urratzailea izan zen, eta autobusaren negozioak herriko hirigintza sustatu zuen” (gazt.).

Bi emakume, Miren Gezala eta Isabel Albisu, akademia garrantzitsu baten buru izan ziren, eta Errenteriako emakume askok hainbat ogibide eta lan betetzeko formakuntza jaso zuten bertan. Bi emakume horiek eginkizun garrantzitsua bete zuten herriarentzat, bai prestakuntzaren arloan, bai ekonomiaren arloan.

Garbiñe, Miren eta Isabel ez ezik, beste izen batzuk ere aipatu dituzte noizbehinka elkarrizketetan, baina zaila da zenbait emakume enpresari eta merkatariren nondik norakoa eta lana zehaztea. Gizon enpresarien alargun, alaba edo arreba ziren, familiako negozio txikien oinordeko, sustatzaile edo sortzaile, eta haien izenak negozio horiei lotuta ageri ez baziren ere, funtsezko eginkizuna bete zuten herriaren egiturarako XX. mendean barrena.

## Orratz arteko lanbideak

Errenteria industrialeko emakumeek askotariko lanbideak izan zituzten, oso desberdinak. Haietako batzuen kasuan, ez zen prestakuntza espezializaturik behar, baina beste batzuen kasuan, berriz, emakumeek ikasi egin behar izaten zuten lanbidea, tailerretan edo eskarmentu handiko emakumeen etxetan. Han bilduta lan egiten zuten, aprendiz gisa lehenengo, eta enkargupeko langile gisa gero, edo norbere konturako langile gisa, etxean. Prozesu hori oso ohikoa zen orratzaren gremioan: brodatzeko tailerretan edo jostundegietan.

180 LACUNZA, Juan Miguel: “La empresa Victorio Luzuriaga…”, *op. cit.*, 27. or.

1920ko hamarkadaren lehen urteetan, Santsoenea kalean bazen jostunen tailer bat, eta Mikaelak eta Florentinak josten irakasten zieten ikastun gazteei. 1921eko erroldaren arabera, Joxepa Antoni Aranberri "Xenpelar" bertsolaria emakume haiekin bizi izan zen, eta ohikoa zen tailer hartan bertsoak abestea.



Singer makinen ikastaroa. 1930 inguruan. (Argazkia: Dorotea Ayerbe).
V. Argazki erakusketaren "Errenteriako seme-alabak: Errenterian bizi (1918-1983)" katalogoa.

Lanbide hori oso arrunta izan zen leku askotako emakumeen artean, baina Errenterian indar handia izan zuen, herrian bertan oihal-fabrika ugari zeudelako, eta inguruan beste enpresa eta salmentagune batzuk. Hortaz, ohiko lanbidea izan zen, eta hainbat modutan egon zen lotuta Errenteriako industriekin eta bizitza ekonomikoarekin. Honela oroitzen dute emakume batzuek:

> *Nik 4 ordu lan egiten nituen goizez, eta beste 4 arratsaldez, eta gero josi egiten nuen. Jostun askok irakasten zuten josten. Josten eta brodatzen. Hilerriaren ondoko etxe txiki batean, Maria andreak brodatzen irakasten zigun. Bere kontuz aritzen zen irakasten, diru kopuru baten truke, eta neska asko samar Clavel jostundegira joaten ziren –Biteri kalean kokatua–. Emakume asko joaten ziren hara, galtzak egiten ikastera. Askok oihalak etxera eraman, eta bertan egiten zituzten galtzak jostundegientzat. Sas-*

*treak berak ematen zuen tela ebakita, eta gero emakumeei ematen zien galtzak eta beste gauza batzuk egiteko, haurrentzako gauzak. Eta gaur egun ere jarraitzen dute hori egiten; adibidez, abaraska-puntuz egindako soinekoak etxean egiten dituzte jostundegientzat* (gazt.).

*Nire amona jostuna izan zen. Nire amaren ama. Tailerra izan zuen eta emakume mordoxka joaten ziren berarengana. Jostundegia zeukan "Agustina Iriarte" zen. Neskak joaten ziren hara ikastera. Haiek tela eramaten zuten eta nire amak irakatsi. Monitorea bezala. Amonak, eta amak eta izebak soineko asko egin zizkiguten. Nire izeba, gainera, izan zen fabrika handiaren marrazkilaria.*

*Guk barruko arropari elastikoa egiten genion. Eta eskuz egiten genituen elastiko hori eta jertseak. Puntua egiten nuen. Eta bost seme alaba izan eta denbora ateratzen genuen halakoak egiteko.*

*Herrian jostun onak zeuden. Liho-fabrikan oso brodatzaile onak zituzten, eta haiek beren kontu ere aritzen ziren, etxean, eta batzuek brodatzeko eta josteko makinak zeuzkaten. Garai hartarako gauza handia zen hori* (gazt.).

*Nire ahizparen koinatak ezkontzeko soinekoa egin zidan, Miren Aizpurua. Jostuna zen. Nik josten ikasi nuen pixka bat. Josten ikastea oso inportantea zen eta joan nintzen Joaki Tamallorengana; jostuna zen eta irakatsi zidan. 14 urterekin joan nintzen. Oso ondo etorri zait hori jakitea. Garai hartan emakume batek jakin behar zuen josten. Gure ama oso abila eta bizkorra zen josten eta bordaduak egiten.*

Emakume batek kontatu digu bere amak parpailak egiten zituela saltzeko: "Horregatik diet mania ehoziriei, txikitan haien soinua entzuten bainuen etengabe, lokartzean eta esnatu orduko, eta egun osoan ez bainuen ama ikusten" (gazt.).

Enplegu bat baino gehiago edukitzea oso arrunta zen, eta emakume askok soldata gehigarri bat lortzen zuten, fabriketako lanorduekin bateratzen zituzten jarduerak eginez:

*Fabriketan lan egiten zuten guztiek, batik bat orratzaren gremiokoek, etxean ere lan egiten zuten. Lan eta lan aritzen ginen; horixe zen gure bizitza* (gazt.).

Emakumeetako batek Esmalteria lantegian lan egin zuen, eta gogoan du 13 urterekin hasi zela brodatzen. Adin horrekin ikasi zuen, Pasaian, baina 15 edo 16 urte zituela kanporako brodatzen hasi zen. Fabrikan lan egin ostean, arratsaldez,

brodatu egiten zuen. Ahizpak lan asko ekartzen zion etxetik, izan ere, “gaur egun dena egina erosten dugu, baina orduan ez, orduan egin egiten genuen: mahaizapiak, maindireak…” (gazt.). Horregatik zuten hainbeste lan brodatzaileek eta jostunek. Honela azaldu digu emakume batek:

> *Etxeetako tailerrak oso garrantzitsuak izan dira. Jostundegiak, esaterako. Lehen, ez zen dendetan saltzen. Hainbat tailer zeuden: puntuzko jakena… Dena etxean ehuntzen zen, ehungailu handi batzuekin. Jendeak nahi zuena eskatzen zion ehuleari, eta hark enkarguak betetzen zituen. Jakak nahierara egin zitezkeen: motzak, luzeak, botoidunak, botoirik gabeak, mendeldunak… Herritarrek bazekiten nor ziren ehuleak, josleak eta brodatzaileak, eta zuzenean haiengana jotzen zuten, enkarguak egitera. Haientzat lan egiten zuten, esaterako jostunek. Batzuetan, norberak erosten zituen oihala edo artilezko matazak, eta beste batzuetan, berriz, haiek edukitzen zituzten. Gure kalean bazen bat; Mertxe zuen izena* (gazt.).

Etxean norbere kontura aritzen ziren jostun oso onak zeuden Errenterian, eta enkargu bidez ere lan egiten zuten. Haietako batek, María Antonia Botellok, emaztegaientzako soinekoak egiten zituen, eta haren lanak kanpoko jendea ere erakarri zuen. Hari esker, orratzaren gremioaren izen ona areagotu egin zen.

> *Lehen ezkontzeko soinekoak ezkuz eta neurrira egiten zituzten herriko jostunek, emakumeek, jakina. Sastre ederrak zeuden ere Errenterian. `Las Martijas’, hiru anai-arreba ziren, bat zen sastre eta besteak jostunak. Soinekoa, abrigoa… dena preparatzen zigun jostun batek. Hemen izango ziren pila bat jostun oso onak eta egiten zituzten zure neurrira. Puxelonak, adibidez, bikain josten zuen. Madrilgo jendeak eramaten zituen hemen egindako abrigoak. Hemen oso ondo josten zen. Errenteria oso famatua zen horregatik ere. Mugan zegoen Frantzia eta modeluak eta patroiak, aldizkariak ekartzen ziren Frantziatik. Modeluak hortikan jasotzen ziren.*

Garai hartako gizartearen kontsumo-ohiturek ez zuten zerikusirik egungo kontsumo neurrigabearekin, eta testuinguru horretan kokatu behar ditugu emakume batzuek eskaintzen zituzten zerbitzuetako asko. Familiek unean uneko kontsumo-ahalmenera mugatzen zituzten gastuak, eta aurreztea eta ondasunak aprobetxatzea eta berrerabiltzea izaten zuten kontsumorako logika. Hori dela eta, tailerrek eta norbere kontura lan egiten zuten norbanakoek ez zituzten produktu berriak bakarrik ekoizten; haien zerbitzuak beharrezkoak ziren, halaber, erabileraren ondorioz hondatutako ondasunak konpontzeko eta eguneratzeko, gaur egun irauten dutena baino gehiago iraun zezaten. Emakumeek oroitzen duten konponketa-lan horietako bat galtzerdiena da:

*Oso ohikoa zen. Egun, galtzerdia apurtuz gero, zakarrontzira botatzen dugu; lehen, ordea, galtzerdiaren punturen bat askatuz gero, jaso egiten zen. Ontzi bat zeukaten, hodi antzeko bat; batzuek edalontzi batekin egiten zuten, eta orratz bat zeukaten galtzerdiei puntua jasotzeko. Galtzerdiari eutsi, eta berregiten joaten ziren. Edozein saltoki edo ataritan egoten ziren. Edozein dendatan gune bat uzten zuten leiho ondoan lan horretarako* (gazt.).

*Nire ahizpak jasotzen zituzten galtzerdiei puntuak. Pakeako denda alokatu genuen lekuan zegoen nire ahizpak puntuak jasotzen. Gero izebak denda zeukan eta han nire ahizparentzako enkarguak ere jasotzen ziren. Medietan karrerak egiten zirenean konpondu egiten ziren. Motor txiki bat zeukan eta horrekin konpontzen zituen puntuak banaka.*

*Saltokietan, ile-apaindegietan eta beste toki batzuetan gune bat uzten zuten, galtzerdiei puntuak jasotzen zizkietenek lan egin zezaten. Galtzerdia edalontzi batean ipintzen zuten, eta galtzerdia berregiten zuten. 'Galtzerdienak' esaten genien* (gazt.).

*Normalean, mertzerietan egoten ziren, baina oliba-dendan eta altzari-denda batean ere aritzen ziren galtzerdiei puntuak jasotzen* (gazt.).

## Ostalariak, zerbitzariak eta sukaldariak

Errenteriako zenbait emakumek kontatu digutenez, garai batean emakumeek ezin zuten tabernetan sartu:

*Tabernetara ez giñen sartu. Mutilak bai sartzen ziren. Hor taberna pila bat zegoen, baina neskak ez giñen sartzen. Gaizki ikusita zegoen. Sagardotegia zegoen eta hor ere bakarrik mutilak sartzen ziren.*

Nolanahi ere, emakumeek presentzia izan dute tabernetan eta oro har ostalaritzaren gremioan, erabiltzaile gisa eta, batik bat, langile gisa, jatetxea edo taberna gobernatzen eta zerbitzari nahiz sukaldari gisa jarduten:

*Nire amak oso ondo kozinatzen zuen: karakolak, menestra, kroketak… denetarik egiten zuen. Taberna batean egon zen lanean. `En Casa Mateo`, gaztetan han egin zuen lan. Hori jatetxe oso ona zen eta berak han ikasi zuen sukaldatzen.*

*Ezagutzen dut bizitza osoan zerbitzari gisa lan egin zuen herriko emakume bat. Bost urtez aritu zen alde zaharrean. Ezkondu, eta lana utzi zuen, baina alabak handitzean berriz hasi zen lanean, beste jatetxe batean, eta han igaro zituen 35 urte baino gehiago, erretiroa hartu arte* (gazt.).

> *Hemen, herrian, bada oso taberna ezagun bat, eta emakumeen hiru belaunaldi aritu dira dagoeneko hura gobernatzen. Lekuzarra dauka izena. Emakume horiek senarrak zeuzkaten, baina enpresatik kanpo zeuden. Emakumeak arduratu ziren negozioaz: Mikela amona –Galdakaotik etorria–, Miren ama eta Arantza Miner* (gazt.).

## Ugazabandreak

Etxerako diru-sarrera gehiago lortzeko estrategietako bat etorkin ugariri bizitokia ematea izan zen: apopiloak edukitzea.

Herriko familia askok diru truke eskaintzen zizkieten aterpea, janaria eta arropa-garbiketa langileei, baita haien familiei ere. Funtsean, emakumeak arduratzen ziren lan horretaz, apopiloak etxean hartuta familiaren ekonomia hobetzeko sarrerak lortzearren. Ugazabandreak ziren.

Emakumeek apopilotzaren fenomenoa 1950eko eta 1960ko hamarkadetan kokatzen badute ere, ugazabandreen figurak toki nabarmena dauka oraindik Errenteriako oroimenean, eta gauza jakina da ibilbide luzea duela. Nahiz eta ez dagoen ia inongo datu estatistikorik horri buruz, eta pertsona askok herrian horrelakorik izan ez zela uste duten arren –horixe esan ziguten batzuek–, elkarrizketatutako emakumeetako askok baieztatu digute ezagutzen dituztela hurbileko zenbait pertsona ugazabandre gisa aritu zirenak edo apopiloak eduki zituztenak[181]. Apopilotzan jardun zuten emakume haien alabek zein bilobek aitortzen dute ugazabandre haien eginkizuna garrantzitsua izan zela eta eragina izan zuela, bai euren familien mantenuan, bai herriko biztanleriaren garapenean eta antolamenduan[182]. Merezi du gogora ekartzea zailtasun urbanistiko handiak zeudela eta ez zegoela nahikoa etxebizitza herrira etorri eta bertako industrian lan egin nahi zuten etorkin-samaldei aterpea eskaintzeko. Hortaz, ugazabandreen jarduera oso garrantzitsua zen:

---

181 Erroldak eta erroldatze-aktak aztertuta, egoitza partekatuari eta apopilotzari buruzko informazio zehatza lor genezake. Beste udalerri batzuetan egin dituzte horrelako azterlanak, baina Errenterian ez.

182 Araceli Erdoziak Altsasuri buruz egindako lanaren (2006) xedea da desarrollismoaren ideia ekonomiatik harago aztertzea, eta ekonomia, berriz, ordaindutako lanetik harago. Modu horretan eremu publiko eta pribatuaren arteko bereizketa tradizionalak ezabatu, eta udalerri batean denboran barrena izandako eraldaketei errepara diezaieke. Horretarako, hazkunde industrialari lotutako funtsezko alderdi sozial eta ekonomikotzat nabarmentzen ditu –eta aztertzen ditu– ostatu-ematea eta apopilotza.

> *Etxebizitza zuenak gelak alokatzen zituen, eta apopilo pila bat hartzen zuen, edo sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Nire amagatik dakit hori, gela bat alokatuta baitzeukan. Beste gela batean bi ohe zeuzkan, eta 4 apopilo. Eta gu 5 ginen, baina 4 han bizi ginen. (…) 60ko hamarkadan denek egiten zuten hori. Arraroa zen etxean inor ez edukitzea… guztiek zuten bat edo beste, guztiek* (gazt.).

> *Anaiarekin etorri nintzen, industrian lan egitera, eta apopilo egon nintzen familia baten etxean. Ugazabandre batekin. Kanpotik iristen ginenek etxebizitzak behar genituen; horregatik eraiki zuten hainbeste garai hartan* (gazt.).

Nahiko ohikoa zen Estatuko bazter guztietatik iritsi berri ziren pertsona haiek gelak alokatzen zituzten familiekin bizitzea. Askotan aldi baterako irtenbidetzat hartzen zuten, eta finkatu arte egoten ziren bertan, etxebizitza propioa lortu arte, alokairuan, besterik ezean:

> *Mutil ezkongabe asko etortzen ziren, eta ez zegoen orain bezainbeste etxe. Eta (beste familia batzuen) etxebizitzetara joan behar zuten, eta jendeak dirukopuru bat kobratzen zien, eta han bizitzen ziren. Baina ikaragarrizko gogoa izaten zuten etxea haientzat bakarrik izateko, bai horixe!* (gazt.).

> *Kanpotarrak etorri zirenean, etxeetan sartu ziren apopilo moduan. "Con derecho a cocina". Pixka bat dirua aurreztu arte eta etxea erosi arte ba holan ibiltzen ziren.*

Ordaintzen zituzten kuotekin, apopiloek etxebizitzaren beraren gastuak ordaintzen laguntzen zieten sarri familiei. Haiei esker, familiek hipotekak ordain zitzaketen, apopiloek zenbait urte igarotzen baitzituzten etxe berean. Horrez gainera, ugazabandre gisa aritzen ziren emakumeek beste bitarteko batzuk ere eskuratzen zituzten apopiloen bitartez, trukeari esker:

> *Nire herritik etorri nintzen, Salamancatik, eta etxe batean lan egitera etorri nintzen. Gero, ezkondu, eta Trintxerpera joan nintzen bizitzera. Marinelak nituen; askaria eman, arropa garbitu eta jaten ematen nien. Eta gero Errenteriara etorri nintzen, eta itsasoko bi apopilo izan nituen (…). Nik soldata ateratzen nuen, eta gainera arraina ekartzen zidaten, 15 egunetik behin* (gazt.).

Ildo horretan, familiaren ekonomia aurrera ateratzen laguntzeaz gain, apopiloek era askotako zerbitzuak eta zaintzak ematen zizkioten familiei, baita familiek apopiloei ere. Gerraosteko urteetan "itsas jendea" apopilotzat eduki zuen ugazabandre baten adibidea argia da, oso; izan ere, apopiloek itsasora alde egiten zutenean:

> *Errazionamendu-liburuxkak etxean uzten zituzten. Honelako ogitartekoak genituen* (eskuaz ogitartekoak handiak zirela adierazteko keinua egin du)*, eta erditik ebaki, eta koxkorra gordetzen nuen, amonak ez baitzidan uzten hainbeste ogi erakusten; izan ere, apopiloen liburuxkarekin hartzen genuen ogia…* (gazt.).

Apopiloen eta ugazabandreen harremanak truke ekonomiko hutsetik harago joaten ziren, eta adiskidetasuna sortzen zen haien artean. Bereziki ezkongabeak baziren, “familian integratzen ziren”; edo, batzuetan, gizonezko apopiloak etxeko neskekin ezkontzen ziren. Emakumeek kontatu digute zenbaitetan aitakidetasun-harremanak sortzen zirela: apopiloen seme-alabak ugazabandreen semebitxi edo alababitxi izaten ziren, edo apopiloek besoetan hartzen zituzten ugazabandreen haurrak.

Elkarrizketatutako batzuek adierazi dutenez, bizikidetza hori garai hark oso berezkoa zuen dinamika baten baitan kokatzen zen, herritarrek beren arteko harremanetan zuten konfiantzak definitutako dinamika baten baitan, hain zuzen ere:

> *Lehen, harreman estuagoak izaten genituen, baita lanean ere. Ugazabandreek oso harreman estua izaten zuten apopiloekin. Sukaldea eta mahaia partekatzen zituzten haiekin. Familia-giroan bizi ziren* (gazt.).

Apopiloek egonaldi luzeak egiten bazituzten, ohikoa zen familia osatzea eta seme-alabaren bat ugazabandrearen etxean jaiotzea. Emakume batek gogoan du bizpahiru haur jaio zirela, gutxienez, ahizparen etxean, apopilo bat eta haren familia bertan bizi izan ziren denboran. Horrelako kasu askotan, egoiliarren arteko lotura aldatu egiten zen, hau da, apopilotza izateari utzi eta egoitza partekatua ezartzen zen, zenbait familia espazio berean bizitzen hasten baitziren. Hortaz, familiak geletako bat alokatzen zuen, eta sukaldea erabiltzeko eskubidea zuen. Oroitzen dute askotan hiruzpalau emakume aritzen zirela aldi berean janaria prestatzen sukalde bakar batean, eta koordinazio handia behar zuten horretarako, espazio txikiak ziren eta.

Beste hainbat praktika ekonomikoren antzera, apopilotza –eta egoitza partekatua– desagertuz joan ziren, XX. mendeak aurrera egin ahala eta jarduera industrialak erakarrita herrira etengabe iristen ziren langile-familientzako auzune berriak eraiki ahala.

## Garbitzaileak

1944ko *Rentería* aldizkariko artikulu batean jasota dagoen moduan, 1939. urtea baino lehen Errenteriak lau garbitoki zituen, baina data horretatik aurrera horietako bi eraitsi egin zituzten, industriarako espazioa zabaltzeko egin zituzten obra publiko batzuen ondorioz:

> Cuando los vecinos de esta industriosa villa sumaban unos dos tercios menos que en la actualidad, había, que nosotros sepamos, cuatro lavaderos públicos. Dos de ellos, amplios y hermosos, por cierto, desaparecieron; el uno, por exigencias de las obras que se llevan a cabo para encauzamiento del río Oyarzun y el otro, en beneficio social, para ampliación de pabellones de una renombrada y hoy floreciente industria[183].


Garbitokiak. (Iturria: *Rentería* aldizkaria, 1930).

Elkarrizketatu ditugun emakumeek bi garbitoki gogoratzen dituzte: bata, topoaren geltokiaren ingurukoa, eta bestea, Santa Klara kalekoa, 1943an eraitsi zutena, Udal Artxiboko obra publikoen espedientean jasotakoaren arabera[184]. Antzina, 1911. urteaz geroztik, beste bat ere izan zen, "garbitoki zaharra", Pekinerako Bidea kalearen inguruan (gero María de Lezo kalea izango zena), eta 30eko hamarkadan, gutxi gorabehera, Mugako Geltokiaren hiribidearen inguruan kokatutako "garbitoki berriak" ordeztu zuen[185]. Emakumeak garbitokietara joaten ziren arropa garbitzera, eta etxekoen jantziak ez ezik, beste pertsona batzuenak ere garbitzen zituzten.

1930eko hamarkadako "garbitoki berriak" akats batzuk izan zituen. Garai hartako erreportaje batean, elkarrizketa egin zieten emakume garbitzaileetako

183 *Rentería* aldizkaria, 51. zk., 1944. Ikusi 6. eranskina, garbitokiei buruzko dokumentazioa duena.

184 10. liburua, 12. esp., Errenteriako Udal Artxiboa.

185 *Rentería* aldizkaria, 13. zk., 1930.

batzuei, eta, leihateek kristalik ez edukitzez kexatzeaz gain, honako hau ere adierazi zuten:

> El pasillo viene a ser demasiado estrecho, y, dada su falta de inclinación, el agua derramada se estanca en él. Las pilas son también excesivamente pequeñas; la estancia en este lugar resulta desagradable por el frío, y, se encuentra muy alejado del pueblo. Lo único bueno que encuentro es el dispositivo de los grifos[186].

Elkarrizketatu baten hitzetan, garbitzaileena "zen lanik gogorrena. Lehen, xaboitutako arropa bustia eraman, eta mendian zabaltzen zuten… lan gogorra zen" (gazt.). Eta beste batzuek honela kontatu digute:

> *Gure amak zenbait familiari garbitzen zien arropa, baina ez dakit garbitokira joaten zen edo ordurako bazen urik etxean eta bertan egiten zuen. Arropa-garbitzailea izan zen. Gaztetan, beste pertsona batzuen arropa garbitzen zuen, fabrika batean lan egiten hasi zen arte* (gazt.).

> *Arropa labaderoan garbitzen zen. Lehengusua zen baina neskame bezela etorri zen gure etxera eta harek garbitzen zuen arropa. Dana eskuz garbitzen zen labaderoan.*

> *Gure amak bizitza osoan… Zenbat lan egin zuen! Lan-jantziak garbitzen zituen, fabriketan ez baitzegoen garbigailurik, eta gero, gauez, torlojuak bezala biltzen zituen (bihurritu egiten zituen), koipea kentzeko eta garbi uzteko… Ikaragarria zen! Ez dakit nola egiten zuten!* (gazt.).

> *Arropa etxean garbitzen genuen baina Santa Klara kalea jeitsi eta hor fabrika alboan labadero ederra zegoen eta topo alboan ere bai. Etxetik arropa hartu eta hara joaten ginen amarekin. Balde handian eramaten genuen arropa. Arropa lehorrean eramaten genuen. Eta han eraman eta banaka, banaka arropa guztia eskuz garbitzen zen. Bazegoen leku handi bat mantak eta garbitzeko. Lehenbizi arropa buzten zen eta gero harri batekin igurtzi Tximbo jaboiarekin eman eta eman, gero ura garbiarekin jaboia kendu. Eta bukaeran inguruko zelaian zabaltzen zen. Zelako usain ona, belar usaina hartzen zuen arropak! Eta sabanak txuri-txuriak geratzen ziren.*

Beste emakume batek kontatutakoaren arabera, hirugarren garbitoki bat ere bazen:

> *Ondartxotik emakume asko joaten ziren arropa-garbitokietara. Saskiak arropaz beteta eramaten zituzten. 40ko eta 50eko hamarkaden inguruan,*

186 *Ibidem.*

*emakumeek garbitokietara joateari utzi zioten. Gure ama berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran hasi zen etxean garbitzen. Hasieran, etxean ere eskuz garbitzen zen, harraska handietan, egurrezko oholarekin, garbigailuak agertu ziren arte. Eta hasierako garbigailuak egurrezkoak ziren; torlojuak askatu behar ziren tapa kendu eta arropa sartzeko. Eta gero garbigailu helizeduna iritsi zen* (gazt.).

Aipatu digutenez, leku haietan emakumeak eta haurrak bakarrik egoten ziren; gizonak, bakar bat ere ez. Beste hainbat lanetan gertatu zen moduan, eta aurreko adierazpenean irakur dezakegunez, garbitzeko makina elektrikoak hedatzen hasi zirenean arropa-garbitzaileen jarduera amaitu, eta garbitokiak erabiltzeko ohitura galdu zen. Egia esanda, elkarrizketetan emakumeetako askok ez zituzten oroitzen garbitokiak, edo ez zekiten non zeuden kokatuta. Baina teknologia berriek ekarri zuten aldaketa oroimenean gordeta dago, hala nola lan-jantziak ahalegin handiz garbitzen zituen emakume haren alabaren hitzetan:

*Etxebizitza erosi genuenean, marmolezko garbigailu bat zuten, eta etxera sartuta, ama ikaragarri poztu zen! Zer zen? Turbina bat? Honela egiten zuen: klak, klak, klak! Hura poza! Amak nolabaiteko atsedena hartu zuen, lana errazten baitzion… bere neurrian, atsedena hartu zuen* (gazt.).

*Arropa etxean garbitzen genuen, xaboiarekin eta gero eguzkitan, zelaian zabalduta, jarri txuri geratzeko. Ez zegoen labadorarik, nire senarra, beste gizon batekin, labadora bat egin zuten Luzuriagatik plagiatu zuten labadora. Nire senarra Luzuriagan egiten zuen lana. Bakarrik tanborra eta kanpoko partea zeukan baina aurrerapena izan zen. Ur bero eta sosa kaustika bota eta garbitu eta aklaratu.*

Herriko enpresetan bazen emakumeek betetzen zuten beste lan bat –eta gaur egun ere haiek betetzen dute, kasu gehienetan–: fabrikak eta era askotako establezimenduak garbitzen zituzten. Ez zen kasualitatea emakumeek horrelako jarduerak gauzatzea, "etxekoandrearen" lanaren hedapen moduko bat baitzen, etxeko lanak lan-arloan betetzea.

*Nik lan asko egin nuen etxeetan, eta etxeetako batean Luzuriagan (galdategian) sartu ninduten, eta, etxeetan lanean hastean, nirekin ekarritako 14 hilabeteko semea uzten nuen, arratsaldeko 6ak arte. Hura zaharrena zen, eta gero, bosgarrena izan nuenean, enpresetan lanean hasi nintzen:* La Voz de España *egunkarian, banketxe batean, eta Cadena Ser irratian, eta beno, guztietan ibili naiz!… Helduentzako ikastolan ere aritu nintzen garbitzen, eta hori ere itxi zuten. Cadena Ser irratian 11 urte egin nituen; banketxean, hogeitik gora, eta gero erretiroa hartu nuen, 65 urte nituela"* (gazt.).

Zenbait elkarrizketatuk emakumeek egiten zuten beste lan baten berri eman digute: eraikinetako eskailerak garbitzen zituzten, bai etxe partikularretakoak, bai negozioetakoak. Kontatu digutenez, lan hori egiteko nolabaiteko teknika behar zuten, egurrezko eskailerak izanik hondarrez igurtzi behar baitzituzten lehenengo, eta argizaria eman behar baitzieten gero. Lan espezializatua zela esan dezakegu, ez lana egiteko behar zen jakintza edo abileziagatik, baizik eta emakume asko horretarako bakarrik kontratatzen zituztelako, izan arretazko garbiketa hori egiteko behar zen denboragatik, izan eraikinen eta haien gune komunen kudeaketa-motagatik.

Zenbaitetan, enpresen garbiketaren eta etxe-zerbitzuaren arteko muga desagertu egiten zen. Etxeko langileak zeuzkaten familia batzuk fabrika edo negozioen jabeak ziren, eta bulegoak edo enpresak garbitzeko ere kontratatzen zituzten langile haiek. Eta alderantzizko kasurik ere bazen, emakume batek kontatu digunez: berak enpresa batean lan egiten zuen, eta, ezkondu eta lana uztean, nagusiaren amaginarrebakidearen etxean lan egiten hasi zen.

Lan-merkatuan txertatutako etxeko lanaz gainera, emakumeek beren gain izan zuten beren etxeko lanen ardura. Elkarrizketatutako emakumeek aipatu dutenez, emakumeek beti lan egin dute asko, eta, harrotasun handiz oroitzen badute ere, onartzen dute ordaindutako lanetan zein etxeko lanetan aritu eta lanaldi bikoitzak edo hirukoitzak izateak aparteko akidura eragiten ziela, eta egoera hura oso gogorra zela azpimarratu dute, eta oso aitorpen txikia jaso dutela egindako lanagatik:

> *Askok fabriketan lan egiten zuten, baina, horrez gainera, emakumeek lan handia zeukaten etxean: janariak prestatzen zituzten, garbiketaz arduratzen ziren, erosketak egiten zituzten, adabakiak josten zituzten, arropa garbitzen zuten… Emakumeek lan asko egiten zuten* (gazt.).
>
> *Gainera, txikitan, fabrikatik etxera iritsi, eta arropa garbitu behar izaten nien aitari eta anai-arrebei. Eta aita hil zenean, nik egiten nituen etxeko lan guztiak, ama gaixo zegoen eta* (gazt.).
>
> *Garai hartan, emakumeek fabriketan lan egiten zuten, baina josten, brodatzen eta pasaratzen ere jakin behar zuten, eta etxeko lan guztiak egin behar zituzten. Anaiak edukiz gero, arropa eta janaria prestatu behar zenien. Etxeko esklaboa zinen* (gazt.).
>
> *Nire amak egiten zuen lan baratzetan. Gero nire ama hil eta nire anaiak egiten zuten lan hori. Nik ezin nuen dana egin: josi, bazkaria prestatu, garbitu, erosketak egin… oso gogorra izan zen.*

*Nire amak etxean egiten zuen lan. 4 seme-alaba ginen. Ni zaharrena naiz. Baina gero, aita kartzelara eraman zuten (Ondarretara, lau urte pasa zituen han), gerra ostean, eta amak interina moduan egin zuen lan, neskame moduan, eta nik etxeko lanak egiten, 9-10 urtekin, eta gero 14 urtekin fabrika batera joan nintzen lanera. Horrela atera genuen aurrera bizimodua.*

*Lehen, gaur baino askoz nekezagoa eta astunagoa zen etxeko lanak egitea: garbitokian arropa garbitzea, merkatuan erosketak egitea eta haiek etxera eramatea, lurrak eskuz garbitzea, argizaria ematea… Gero berniza iritsi zen, eta errazago garbitzen zen* (gazt.).

## Zaintzaileak

Emakumeen ekarpenaren zati bat zaintzaren arloan gauzatu zen. Lan horrek askotariko jarduerak hartzen ditu barne, beste emakume batzuen seme-alabei bularra ematea eta haien etxeak garbitzea, besteak beste. Elkarrizketatu ditugun pertsonek kontatu digutenaren arabera, Errenteriako emakume asko Donostiara joan ziren “zerbitzatzera”. Baina Errenteriako familia dirudunen etxeetan ere lan egin zuten, bai mirabe gisa, bai orduka kontratatutako langile gisa:

*Fabriketan lan egiten ez zutenak mirabe gisa joaten ziren Donostiako dirudunen etxeetara edo haurrak zaindu eta etxeko lanak egitera* (gazt.).

*Zortzi hilabeteko umea zaintzera joan nintzen. Nik 15 urte nituen baserri batera lan egitera joan nintzenean. Nahiko urrun zegoen baserri hura. Baserri hartan jende asko elkartu ginen. Eta herrian zehar, marmitakin esnea banatzera taberna batera ere joan nintzen. Joaten ginen arropa garbitzera errekara eta bueltan arropa balde batean hartuta. Bi aldiz bakarrik etorri nintzen Errenteriara nire gurasoen etxera, jai egunean, bakarrik.*

*20 urtekin etxe batera joan nintzen lanera. Neskame moduan. 20 urtekin baserritik jeitsi nintzen kalera, etxe batera lan egitera. Etxeko lanak egiten nituen eta bi ordu libre neukan josten ikasteko.*

*Senar-emaztea bi haurrekin zeuden etxean. Otegi deitzen zioten gizonari. Nire lana zen, goizean etxeko garbitasuna egin, gero, batzutan, enkarguak egin, gero bazkaria prestatu eta haurrei bazkaria eman. Bazkaria eman eta gero dena jaso eta garbitu eta gero arratsaldean jostera*

*beheko bizitzan. Bi ordu egunero josten, gero atera kalera eta haurrekin buelta bat ematera joaten nintzen.*

*Nire beste ahizpa Laneran sartu zen. Eta ni 12 urtekin umeak zaintzen egon nintzen. Umea paseatzera eta enkarguak egitera. Lista bat ematen zidaten eta dirua eta joaten nintzen plazara enkarguak egitera. Dena apuntatuta eraman eta bueltak eman. Umea gutxi paseatzen nuen, gero etxeko lanak egiten nituen: eskailerak fregatu, xaboi hura eta lejia jarri eta zepiloakin sukaldea fregatu eta ondo garbitu.*

Emakumeek gauzatzen zituzten zaintza-lan asko ordaindutako jarduera ekonomikoak ziren kasu askotan, baina ez beti. Batzuetan, modu altruistan egiten zituzten, eta indartu egiten ziren adiskideen, ahaideen edo auzokoen arteko loturak, eta elkartasuneko eta elkarrekikotasuneko harremanak saretzen zituzten, herritarren bizimodua errazteko.

Haurren zaintzarekin lotutako lanak ziren ordaindutako lan arruntenak. Elkarrizketatutako pertsonek, esaterako, inudeak aipatu dituzte, euren seme-alaben edoskitzaroan beste emakume batzuen seme-alabei ere bularra ematen zieten emakumeak. Esnerik ez zuten emakumeek behar izaten zituzten inudeen zerbitzuak, edo unean uneko modari jarraituta eginkizun hori beste emakume batzuen esku uztea erabakitzen zutenek, bitarteko ekonomikoen arabera, betiere:

*Nire amak ez zeukan nahiko esnea emateko, ni jaio nintzenean eta beraren lagun batek gehiegi zeukan eta berak eman zidan. Manuela izena zuen. Garai hartan hori oso ohikoa zen.*

Praktika hori XX. mendearen erdialdean desagertu zen; izan ere, amatasunari buruzko iritzia aldatzen ari zen, eta norberak bere seme-alabei bularra ematea sustatzen hasi ziren.

Beste familia batzuen seme-alabak zaintzea ere estrategia ekonomiko arrunta zen emakumeentzat. Neska gazteek ere estrategia hori erabiltzen zuten sarri, batik bat beste lan batzuekin bateragarria zelako edo garai zehatz batzuetan lan egin zezaketelako horretan, emakume batek adierazi digunez: “Asko, 14 urterekin, haurtzain ibiltzen ginen udan. Baina gu ere haurrak ginen!” (gazt.). Kontatu digutenez, kasu askotan 10, 12 edo 14 urte besterik ez zituztela hasten ziren horrelako lanetan.

Haurtzainek edo inudeek ez bezala, elkarrizketatutako taldeak “zaintzaile” izenez izendatutako emakumeek bizilagun, senide edo lagunen seme-alabak zaintzen

zituzten haiek fabrikan edo etxetik kanpoko beste espazio batzuetan lan egiten zuten bitartean:

> *Nire etxean zenbait haur zaintzen zituzten, auzokoen arteko elkartasun gisa. Gure amari kopuru bat ordaintzen zioten haurrak zaintzeagatik. Goizean goizetik zaintzen zituen, goizetan, eskolako urte guztietan. Amak gure etxean uzten zituen, lanera joaten zenean, eta han egoten ziren eskola hasi arte, goizeko 9:00ak arte. Ni eskolaz aldatu ninduten, amak zaintzen zituen haur haiekin joateko –anai-arrebak ziren–. Emakume askok zaintzen zituzten beste batzuen seme-alabak* (gazt.).

Arratsaldez ere zaintzen zituzten haurrak. Familiek laneko eta eskolako ordutegiak nola bateratu, horren araberako luzapena izaten zuen zaintzak. Bularreko haurrak ere zaintzen zituzten, eta zaintzaileak amaren lantokira hurbiltzen ziren, amak haurrari bularra eman ziezaion atsedenaldian. Hona hemen elkarrizketatutako emakume baten hitzak:

> *Garai batean fabrikatik irteten uzten zieten, 15 bat minutu, bularra emateko. (…) Nire izebak hiltegian lan egiten zuen, eta alaba hara hurbiltzen genion, bularra eman ziezaion, ez baitzeukan denborarik etxeraino etortzeko* (gazt.).

> *Gogoan dut Pekinen lan egiten zuten emakumeek nire etxe azpira ekartzen zituztela haurrak. Hor uzten zituzten lanera joatean, eta gero jasotzen zituzten. Bularra ematera irteten ziren. Lantegian tarte bat uzten zieten haurrei bularra emateko, eta bularra eman behar ez zutenek enkarguak egiten zituzten. Ordu erdi inguru zeukaten* (gazt.).

Nahiz eta lan horrek ez zien beti diru-sarrerarik ematen zaintzaileen familiei, funtsezkoa zen, etxetik kanpo lan egiten zuten emakumeentzat bereziki, eta oro har gizarte osoarentzat. Izan ere, pertsona askok lan egiten zuen herriko fabrika, denda eta enpresetan, eta, haurtzaindegirik ezean, zerbitzu solidario horri esker eutsi ahal izan zion herriak martxa horri. Emakumeek oroitzen dutenez, haurtzaindegiak askoz geroago agertu ziren, eta gainera ez zeuden herritar ororen eskura; hortaz, familietako kideen zaintza, bereziki belaunaldi gazteena, ezinbesteko laguntza izan zen gizartearen egitura mantentzeko eta garapena bultzatzeko. Egia esanda, gaur egun ere, oso bestelako garaiak izanda, non badauzkagun haurtzaindegiak eta beste lan-dinamika batzuk nagusi diren, iraganean bizilagunen edo lagunen seme-alabak zaindu zituzten emakume haiek zaintza-lanetan jarraitzen dute, bilobak zainduz, emakume batek ondo azaldu duenez.

## Eskulangintza eta beste manufaktura batzuk

Emakumeen beste zeregin bat, lanbideen erregistroetan eta erroldetan agertu ohi diren jardueren oso bestelakoa, "koltxoigile" zeritzenek egiten zutena zen. Javiera eta beste batzuk dituzte gogoan:

> *Zelaiguneetara joaten ziren udan, koltxoiak hurritz-makilaz astintzera, eta artilea harrotzen zuten, eta emakume asko koltxoiak egiten aritzen zen. Luisa koltxoigilea oso ezaguna zen, Santa Klara kalekoa* (gazt.).

> *Ni 13 urtekin hasi nintzen fabrika batean. Sosak ateratzeko. Eta uda etortzen zenean, koltxoiak egiten. Bazegoen ohitura, urtero-urtero, koltxoiak egitekoa eta oporretan koltxoia egiten amari laguntzen. Makina batekin egiten genituen eta almohadak ere bai eta gero arropa garbitzen, buruan baldea jarri eta labaderora. Herrian bi edo hiru labadero zeuden garai hartan. Etxeko maindireak eta koltxoiak garbitzen eta egiten genituen uda garaian.*

> *Lehen, artilea erosi eta makilaz jotzen zen, eta normalean gizonek egiten zuten hori, baina baita emakume batzuek ere. Behin koltxoiak eginda eta harrotuta, noizbehinka desegin egin behar ziren, eta orduan ikusten genituen koltxoigileak, makilaz eta eskuaz koltxoiak astintzen. Batzuek etxean egiten zuten, eta beste batzuek, kalean* (gazt.).

> *Lehenengo, eguzkitan jartzen zen artile guztia. Gero, makilaz jotzen zen. 9 urte nituela, amak makilaz jotzen zuen artilea, eta guk eskuaz. Gero, pilatu egiten genuen, koltxoiaren zuloetatik, eta gero josi egin behar zen, orratz handi-handi batzuk erabiliz* (gazt.).



1962ko *Oarso* aldizkariko iragarkia.

Beste ogibide batzuk ere bi espaziotan gauzatzen zituzten: tailer edo fabrikan eta emakumeen etxean. Saskigileak eta espartingileak, esaterako, batean zein bestean aritzen ziren, eta, neurri batean lanerako materiala ematen zien tailer baten mende egoten baziren ere, bezeroak zuzenean jartzen ziren haiekin harremanetan, piezaren bat eskatzeko:

> *Etxean ere egiten zituzten espartinak eta saskiak, eta gero beren*

*kabuz saltzen zituzten, edo enpresa batentzat. Gaztañoko andre batek espartinak ekartzen zituen, saltzeko, eta espartin-fabrikak ere baziren topo-geltokitik hurbil* (gazt.).

*Duela gutxi arte, Gaztañon bazen bat, eta, zuk tela eramanda, hark zola ipintzen zion, eta eskuz egiten zizkizun espartinak. Fabrika batean ere lan egiten zuten* (gazt.).

Etxeberrietan ere bazegoen beste emakume espartingile bat. Horrelako ogibideetan aritzen zirenek izenean bertan zeramaten lanbidearen arrastoa, gainerako herritarrek gauzatzen zuten jarduerari lotuta izendatzen baitzituzten. Lentzeria-egileen kasua da hori: “Lanbidearen arabera izendatzen ziren: lentzeria-egileak zeuden, lentzeria egiten zutenak. Tela eraman, eta lentzeria egiten zuten, dena eskuz” (gazt.). Algara artean oroitu dute nola hartzen zieten kopen neurria bularretakoak egiteko: eskuaz egiten zuten, ukitzeko gaitasun handia zuten.

## Bitartekoak lortzeko beste jarduera batzuk

Mugaren hurbiltasuna eta industriaren nahiz garapen ekonomikoaren dinamismoa zirela eta, estraperloa nahiko jarduera lagungarria izan zen herrian garai batzuetan[187]. Emakumeek oroitzen dutenaren arabera, bereziki gerraosteko urteetan ezagutu zuten, oso une latzetan. Hona hemen emakume baten kontakizuna:

*11 urterekin ogi zuria ekartzen nuen. Ez zegoen ogirik, eta maletategietan ekartzen genuen. Errazionamenduaren garaia zen. Frantzian ogi ona zeukaten, eta ama joaten zen bila, eta hemen bezeroak zituen, pezeta batzuk irabazteko, eta ogia ekartzen zuen. Eta ama gaixotu egin zen, eta ni hasi nintzen horretan. Hendaiatik gizon batzuk etortzen ziren, bata grisak jantzita eta maletak eskuetan, eta horiek ekartzen ziguten ogia. Ogia jasotzeko gaur egungo topoaren atzetik joan behar genuen, paduratik, eta guardiak jarraika izaten genituen, bizikletaz, eta harrapatuz gero, ogia kendu eta Filori saltzen zioten, nazioarteko zubian, eta Filok guri saltzen zigun berriz* (gazt.).

[187] Estraperloa errazionamendua ezarrita zuten artikuluen legez kanpoko merkataritza da; kontrabandoa, berriz, aduana-eskubideen mende dauden merkantziak mugatik pasatzea da. Iruni buruzko lan batean aztertu dutenez, emakumeen artean ondasunen legez kanpoko eta eskala txikiko merkataritzari esaten diote estraperlo, muga pasatzen zuten edo ez kontuan hartu gabe. Emakume asko aritu ziren jarduera horretan. Bestalde, Irungo testuinguru horretan, *kontrabando* hitza transakzio handietarako erabiltzen dute, izan merkantzien balio edo bolumenagatik handiak ziren transakzioetarako, izan eragiketaren balio ekonomikoarengatik handiak zirenetarako. LOZA, Silvia; RUIZ, María; TRANCHE, Mercedes: *Historia…, op. cit.,* 86.-87. or.

Gauza jakina da irina eta olioa estraperlo bidez ekartzen zituztela kanpotik eta gero merkaturatu egiten zituztela, truke bidez edo zuzenean salduta. Hurbileko beste udalerri batzuetan gertatu zen moduan, legez kanpoko merkatuari esker emakumeek familientzako elikagai-hornidura osa zezaketen, batez ere errazionamendu-garaitan. Gosea edo eskasia saihesteko edozein aukera aprobetxatzeko bideak ziren[188].

Horrez gainera, beste modurik ere izan zen etekina ateratzeko abileziei eta bitartekoei, baita auzokoen arteko harremanei ere:

> *Amak kontatzen digu gerraostean trukea oso ohikoa zela, ez baitzegoen ia inolako baliabide ekonomikorik ezer erosi edo ordaintzeko. Amonak etxean josten zuen, oso oinarrizko gauzak. Jantzi horietako asko baserritarrentzat egiten zituen, baina ez zioten dirutan ordaintzen, bakoitzak ahal zuenarekin baizik: arrautza batzuk, barazki pixka bat, haragi pixka bat. Bakoitzak zeukana eskaintzen zuen: produktuak, jostea, janaria prestatzea…, eta asko laguntzen zioten elkarri* (gazt.).

Errenteriar emakumeek oraindik oroitzen duten beste estrategia ekonomiko osagarrietako bat emakumeek etxean egiten zituzten eskulan erraz batzuk dira, familia mantentzeko bitarteko gehigarriak lortzen laguntzen zutenak. “Poltsak egitea” esaten zioten, zelofan-paperezko paketeak egiten baitzituzten saltokietarako, zenbait produktu saltzeko erabil zitzaten. Estrategia hori herriko industriari eta merkataritzari esker zen bideragarria, poltsak prestatzeko materiala nahiko erraz eskuratzeko aukera eskaintzen baitzien emakumeei, baita horiek saltzeko esparrua ere. Honela kontatu digu emakume batek:

> *Santa Klara kalean denda txiki bat zegoen, eta Hernaniko paper-fabrikatik ekartzen zuen zelofan-papera, eta emakumeek paper horrekin egiten zituzten karameluak sartzeko poltsak. Kartoi baten laguntzaz tolestuta egiten ziren. Poltsa pila bat tolesten ziren, eta emakumeek etxean egiten zuten hori. Nik etxean egin dut. ‘Poltsak egitea’ esaten zitzaion. Gero, poltsak gozotegietara eramaten ziren, almendrez, karameluz edo bonboiez betetzeko. Eta flanak prestatzeko produktuak biltzeko poltsak ere egiten ziren, ‘flaninetarako’ poltsak* (gazt.).

Oroitzapen horietan guztietan, nabarmenak dira emakumeen aztarnak askotariko jarduera ekonomikoetan. Ikusi dugunez, jarduera batzuk beste toki batzuetako emakumeek egindakoen antzekoak dira, baita gaur egungo emakumeek egiten

[188] *Ibidem*, 86., 90. or.

dituztenen antzekoak ere. Beste batzuk, ordea, hertsiki lotuta daude oso testuinguru zehatz batekin, dagoeneko existitzen ez den testuinguru batekin. Hori alde batera utzita, Errenteriako emakumeek azterlan honetan aipatutako zeregin eta lan-arloetan –eta oraindik dokumentatu ez diren beste zenbaitetan– erakutsitako grinak, buruargitasunak, sormenak, indarrak eta pertseberantziak aztarna utzi dute. Haiek egindako lanak eragin handia izan zuen eta izan du herrian, eta herriaren berezitasunak, ezaugarriak, ospea, enpresa-ugaritasuna eta historia bera ulertezinak dira emakumeek landan, etxeetan, merkataritzan, ostalaritzan, kaleetan, bideetan, plazetan, merkatuetan eta herriko funtsezko beste espazio askotan gauzatu duten jarduna kontuan hartzen ez badugu.

# OROIMEN SOZIALEKO PROZESURI BURUZKO GOGOETAK

Zenbait hilabetez taldean lan egin genuen iragana berreraikitzeko eta oroitzapenei beste esanahi bat emateko, baita emakumeen aztarnak ezagutzeko ere. Prozesua, oro har, atsegina izan zen partaideentzat, nahiz eta lana bera ez zen erraza izan, eta ikerketaren helburuak erdiestea ere ez.

Taldeko emakume gazteenetako batek kontrasteko azken saioan esan zuen moduan, azpimarratu beharreko lehen alderdia da prozesuaren aberastasun nagusi gisa poztasuna eta topaketa nabarmendu zituztela protagonistek.

Poztasuna, jarrera positiboa eta bizitzako une oroz gozatzeko grina ikus ditzakegulako, harrigarriro, emakumeek egindako lanaren azpian, haien aztarna gisa aitortuta geratu diren ekintza ugarien azpian (eta aztarnak garrantzitsuak izan dira, oztopoak oztopo). Prozesu osoan eta gogora ekarritako esperientzia guztietan argi geratu da egoera latzak jasan behar izan dituztela, baina beti izan dute aurrera ateratzeko indarra, sormena, irrika, buruargitasuna eta poztasuna. Emakumeek ongi oroitzen dituzte lanaldi luzeak, baina baita dantzarako uneak eta ogitartekoak ere; gogoan dute etxeko lan amaigabea, baina baita emakumeen eta bizilagunen arteko elkartasuna ere; lan-harreman tirabiratsuak eta lan-baldintza txarrak gogoratzen dituzte, baina baita kontzientziazio-uneak, aldarrikapenak eta erdietsitako lorpenak ere. Gogoan dute industriaren hazkundea eta gainbehera, baina ez dituzte hautematen industria haren eraginez gaur egun ere herrian bizirik dirauten bizitasuna eta dinamismoa.

Era askotako emakumeen arteko topaketa funtsezko beste elementu bat izan zen partaideentzat. Hainbat belaunalditako emakumeak elkartu ziren, bizipen oso desberdinak izandakoak, elkarri entzun eta esperientziak trukatzeko prest, norbere historia eta beste emakume batzuena aurkitzeko eta ezagutzeko prest.

## Aurrerapenak eta hutsuneak ikerketan eta oroimen kolektiboko prozesuan

Errenteriak interes handia dauka bere historia ezagutzeko, pasadizoak jasotzeko eta herriko pertsonaiak zein gertaerak gogoratzeko, eta horren adibide dira, esaterako, aldizkako udal-argitalpenak, hala nola *Oarso* eta *Bilduma* aldizkariak. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago ez zela erraza izan guretzat harremanetan jarritako pertsona guztien kolaborazioa lortzea, ezta aurkitu nahi genituen pertsona guztiak aurkitzea ere.

Proiektuan aztertutako denbora-tartea dela eta, zaila izan zen bizirik zeuden lekukoak edo osasunez iraganari buruz hitz egiteko moduan zeudenak aurkitzea, eta horixe izan zen informazioa dokumentatzeko oztopoetako bat. Beste oztopo bat osasuntsu egonik ere beren historia kontatu nahi ez zuten emakumeen inplikazioa lortzea izan zen. Arrazoi horiek tarteko, eta ikerlan orok denbora eta dedikazio mugatua dituela aintzat hartuta, zaila izan zen, eta batzuetan ezinezkoa, emakume batzuek baiezkoa ematea bakarkako elkarrizketak egiteko edo oroimen kolektiboko saioetan parte hartzeko. Gabezia horien ondorioz, noski, aztertu gabe geratu dira zenbait pertsonaia, datu, lanbide, lan-esperientzia eta emakumeen aztarnen gaineko iritzi.

Beste arazo bat herriaren konfigurazio soziala izan zen. Itxuraz, auzo guztiak oso independenteak dira, eta interakzio gutxi dago haien artean. Auzo guztietan dago erretiratuen elkartea, eliza, auzo-elkartea eta herritarren partaidetzarako batzordea, eta talde horiek biziki lan egiten dute udalerrian, baina bakoitzak bere aldetik. Erretiratuen elkarteen lokaletan egindako saioetan erantzun ona jaso genuen, baina saio horietan parte hartu zutenek esan ziguten ezin zutela edo ez zutela parte hartu nahi oroimen kolektiboko prozesu batean horretarako herriaren erdigunean bildu behar bazuten edo beste toki batera joan behar bazuten, auzotik “urrun”. Hortaz, alderdi hauek eragotzi ziguten talde handiagoa elkartzea: ordutegi-arazoak, mugikortasun-arazoak adinekoen kasuan eta auzoan bertan eta bertatik lan egiteko ohitura. Metodologiari dagokionez, auzoetako identitate indartsua eta esperientzia aberatsa kontuan hartuta, aztertu egin behar da beste toki batzuetako taldeekin jarduteko eta elkartzeko baldintzak betetzen dituzten auzoetan prozesuak abian jartzeko aukera. Horrelako lan bat egiteko denbora eta baliabide askoz gehiago behar dira, hobeto ezagutu behar dira elkarte edo auzo bakoitzeko dinamikak eta harreman nahiz kontaktuen sare bat sortu behar da, proiektu honetan izan ez duguna.

Nabarmendu beharreko beste egoera bat zera da, Udal Artxiboak herriaren iragan industrialari buruzko dokumentuak gordetzeko ahalegin ikaragarria egin badu ere gauza jakina dela fabriketako eta enpresetako artxibo asko galdu egin zirela.

Artxibo pribatu haiek uholdeetan hondatu ziren, edo sakabanatu egin ziren lekualdaketetan eta krisi-garaietan, edo abandonatuta utzi zituzten enpresak ixtean. Erabiltzen ez ziren instalazio erorietan sua pizteko ere erabili izan zituzten zenbaitetan. Jakina, ez dira dokumentu guztiak desagertu; gordeta daude enpresa handien dokumentuak, edo urte askoan iraun zuten enpresenak, edo oraintsuagoko hamarkadetan industrialdeetara lekualdatu diren enpresa batzuenak. Niesseni buruz, esaterako, informazio asko samar dago, eta Udal Artxiboan Esmaltería eta Echeverría y Cía. lantegietako jornalen liburuak daude, industrietako beste espediente batzuen artean; horrez gainera, baliteke beste udalerri batzuetako artxiboetan, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusian eta Partaidetza Industrialen Estatuko Sozietateko (SEPI) Dokumentazio Zentro eta Artxibo Historikoan ere gordeta edukitzea beste material baliotsu batzuk, ikerketan sakontzeko baliagarriak. Nolanahi ere, baliteke enpresa-espediente gutxi batzuk besterik ez izatea, espedienteen guztizko kopurua aintzat hartuz gero. Familia-enpresei buruz, tailerrei buruz eta industria nahiz negozio txikiagoei buruz datu gutxi dauzkagu. Garrantzitsua da hori aipatzea; izan ere, ikerketaren xedea ez zen lan historiografiko bat egitea, baina desoreka egon zen kontsultatutako argitalpenetan edo bigarren mailako iturrietan aurkitutako erreferentzietan. Emakumeen aztarnen azterketa osatuago bat egiteko eta Errenterian izandako berrehundik gora industria eta enpresetako langileei buruz, haien lan-baldintza, espediente eta ibilbideei buruz informazio zehatzagoa lortzeko, ikerketa sakon bat egin behar da artxiboetan, baina, hala eta guztiz ere, ez dirudi eskura dauzkagun iturriekin osotasunean azter daitekeenik, edo enpresetako langile talde aldakorren alderdi biografikoagoak, sozialagoak eta kulturalagoak ezagutu daitezkeenik[189].

Aldarte hori kontuan hartuta, garrantzitsua da abiarazitako oroimen kolektiboko prozesua nabarmentzea. Alde batetik, egiaztatu genuen emakumeek, lagunak edo bizilagunak izan arren edo enpresa berean lan egin izan arren, ez zutela aukera askorik eduki beren lanaren esanahiari eta bizipenei buruz hitz egiteko, ezta ideiak eta istorioak eta Errenteriako bizitzari egindako ekarpenak partekatzeko ere. Zenbait kasutan, bilobei “amonen istorioak” kontatzera mugatu ziren, baina ikuspuntu pertsonalago eta anekdotikoago batetik. Horregatik, oroimenerako espazio kolektiboa funtsezkoa izan zen. Taldean, bateratu egin zituzten, eta batzuetan zalantzan jarri, ideia pertsonal horiek, eta saiatu ziren bilatzen nola osatu eta eguneratu zezaketen eta nola eman ziezaioketen zentzua denon artean eraikitako kontakizunari, pasadizo indibidualen batura baino askoz gehiago den kontakizunari.

---

[189] Ikusi, adibidez, María del Carmen Rico Arroyok Errenteriako hiru enpresa handietako artxiboei buruz egindako lana. *Bilduma*, 11 zk., 1997.

Lan-prozesuan bertan emakume askok esaten zuten entzutera bakarrik joaten zirela, ekarpenik apenas egin zezaketela uste zutelako, baina taldeko dinamikan kontatzea eta entzutea lanaren alderdi osagarriak ziren, eta jarduera bat eta bestea txandaka egiten zituzten.

Kontakizuna argitara emateko eraiki zuten, beste pertsona batzuek ezagut dezaten eta dagokion balioa aitor diezaioten. Hala bada, eremu intimo oso baliotsu baina mugatu hori gainditu zuten, emakumeen memoria ezagutzera emateko.

Beste alde batetik, partaideak, emakume zein gizon, esperientziak trukatuta eta gaurko ikuspegitik aztertuta, “bizi eta kontatzea” eta beste pertsona batzuen oroimenetik ikastea bi gauza direla konturatu ziren. Zuzeneko bizipena eta hark eragindako poza eta tristura soilik pertsona batzuen esku dago, baina, hala ere, gaur egun oroitzapen horiek eta horien kontaketak badute zentzurik, esperientzia bat partekatzeko balio baitute, gizartea nola aldatu den onartzeko, daukaguna eta eduki genuena balioesteko, eta, halaber, gure amei omenaldia egiteko, haien ahalegin guztia ahaztuta gera ez dadin.

Era berean, oroitzapen horiek balio izan zuten ikuspegi zabalagoa izateko eta pertsona, familia, talde edo belaunaldi bakoitzak lortutakoa identifikatzeko, edo baita zuzendu beharreko alderdi batzuk ere. Esaterako, behin baino gehiagotan aztertu zuten aurreko belaunaldien bizitzetako zein alderdi ez diren desiragarriak gaur egun eta zein bai, eta onartu zuten ahalegin handia egin dutela seme-alabei bestelako bizimodu bat emateko –bestelako gizarte bat eraikitzeko–; aldi berean, orain ere zuzendu eta beste modu batera egin beharreko gauzak badaudela ondorioztatu zuten. Hainbat garaitako bizimoduen zenbait alderdi alderatu zituzten, eta atsegin dituztenak eta ez dituztenak bereizi zituzten, zergatia ere azalduta.

Emakume askorentzat zaila izan zen oroitzea. Zaila, dagoeneko hilda dauden pertsona maitatuak ez ezik, oroimenean gordeta dituztelako, baita ere, gosea, nekea, pobrezia, laneko esplotazioa, greba eta manifestazioetako errepresio poliziala eta beste hainbat esperientzia gogor. “Zertarako gogoratu nahi dugu hori?”, galdetu zuen haietako batek. Beste batek, iraganeko pasadizoak oroitzen, “orain barre egiten dugu” esan, eta azaldu zuen bere familian istorio barregarri bilakatu zutela 3 urteko anaia mendian galdu izana aitari hamaiketakoa eramatera joandako batean. Gaur, barre egiten dute istorio horrekin, baina, errealitatean, garai hartako zailtasunak, bizimodua eta jardunbideak islatzen ditu. Gaur egun ez genioke halako agindua emango ume txiki bati. Hori bera errepikatu zuten 8, 10 edo 12 urterekin lanean hasi ziren emakumeek ere. Saiatu dira, bai, seme-alabei haurtzaro eta gaztaro erosoagoa ematen.





Argazkiak: Gema Mariezkurrena.

Testu honek beste oroitzapen batzuk iratzarri nahi ditu, eta beste emakume eta gizon batzuek egindako lanari buruzko gogoeta piztu nahi du. Izan ere, haiei zor diegu Errenteria garai batean izandakoa eta gaur egun dena.

Emakumeek beste eremu batzuetan ere utzi zituzten aztarnak: politikan, kulturan, hezkuntzan, kirolean, ingurumenaren arloan, eremu sozialean eta osasunaren arloan, besteak beste; eta aztarna horiek ikertu gabe daude oraindik. Halaber, erregistratu eta omendu gabe daude emakume aitzindari asko, genero-oztopoak edo garaiko pentsamoldearen mugak gaindituta proiektu garrantzitsuak abiarazi zituztenak, hala nola Elixabete Olaziregi, lehen emakume botikaria, edo Avelina Jáuregui, demokraziako herriko lehen emakume politikaria. Eta bertako gizartearentzat da beharrezkoa emakumeen oroimenari merezi duen balioa ematea, Errenteriako ondarea baita –edo izan behar bailuke–.




Argazkiak: Gema Mariezkurrena.

# ONDORIOAK

Ikerketa-prozesu honetatik zenbait ondorio eta gogoeta atera ditzakegu gure udalerrien historiari buruz, oro har, eta Errenteriaren historiari buruz, bereziki. *Emakumeen aztarnak* kontzeptua abiapuntutzat hartuta garatutako ondorioak dira.

*Aztarna* kontzeptuari esker, emakumeen memoria kolektiboa berriz adieraz dezakegu, eta haren gaineko gogoeta egin dezakegu, aukera ematen baitigu emakumeen presentzia eta partaidetza aktiboa jaso duten espazio eta une batzuk ahanzturatik ateratzeko, berreskuratzeko eta ikusarazteko. Era berean, kontzeptu horri esker, agerian geratzen da tokiko historia ezin dela eraiki emakumeen partaidetza alde batera utzita eta guztiek, emakume zein gizon, aldi berean parte hartzen dutela.

Kontzeptu horrek erraztu egiten du genero-harreman eta -desoreken azterketa, aditzera ematen baititu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak, bai espazioetan bizitzeko eta parte hartzeko moduan, bai espazio horietako jardueren banaketa ez-bidezkoan, baita toki nahiz ekintza bereizi –eta bereizle– horiei lotutako boterean eta prestigioan. Baina, era berean, genero-roletan izandako aldaketak aurkezten ditu, eta emakumeek zenbait eremutan erdietsitako lorpenak (jarduera eta toki debekatuak edo denbora librea, besteak beste).

Halaber, aztarnei esker ikusarazi egin dezakegu, eta aitortu, emakumeen ekintza indibidual eta kolektiboa herrien eraikuntza material eta sinbolikoan, eskubide osoko subjektu historiko gisa.

Emakumeen aztarnak identifikatzea praktika sozialak eraldatzeko eta ekintza positiboak sustatzeko tresna izan daiteke, harremanetan jartzen baititu iragana,

oraina eta etorkizuna. Iragana berreskuratu eta berridatzita oraina ulertzeko eta berriz hausnartzeko aukera ematen du, eta etorkizun kolektiboa osatzeko eta proiektatzeko aukera. Hala bada, oroimeneko proiektu sozial baten bidez gogora ekarri eta jaso egin ditzakegu bizitza pertsonaleko eta kolektiboko uneak edo prozesuak, eta esanahia eman diezaiekegu; hori guztia, ikasten eta aurrera egiten jarraitzeko aurrekari gisa.

Ildo horretan, argitu beharra dago zer-nolako garrantzia izan dezakeen historiografia eta bilakaera historikoaren ikuspegia (berriz) hausnartzeak, emakumeen jardunari dagokionez. Munduko toki askotan zeregin horretan ibilbide luzea egin badute ere, nabaria da herrian, eta bertako emakumeen arabera, zeregin hori ez dela oso hedatuta egon, eta planteamendu berriaren proposamenak oihartzuna dauka. Ikerketa-proiektu honetako parte-hartzaile guztiek uste dute beharrezkoa eta egokia dela emakumeen memoria kolektiboa berreraikitzea edo prestatzea, iraganeko esperientziei eta lorpenei merezi duten balioa emateko, etorkizuneko belaunaldientzat funtsezko herentzia material eta sinbolikoa uztearren. Eta beharrezkoa da, baita ere, haien arbasoen, amen, amonen, izeben, bizilagunen eta beste emakume batzuen lana aitortzeko; izan ere, industriaren egoera edo eskualdeko bilakaera ekonomikoa edozein zela ere, haien presentzia ezinbestekoa izan zen familien bizimoduari eusteko. Hori dela eta, ezinbestean sartu behar da genero-ikuspegia iraganaren azterketan, baita orainaldian ematen zaion zentzuan ere. Historia berriz idatzi behar da, androzentrikoa ez den ikuspegia aintzat hartuta, emakumeak ere kontuan hartuta, esku hartu duten espazio eta garaietan oinarrituta, eta gizartearen oroimenean txertatu behar da. Herrian bide horretan aurrerapausoak egiten jarraitzea zeregin garrantzitsua da.

Orokorrean, emakumeak, kolektibo gisa, jardun etengabea izan dute ezaugarritzat, hau da, oinarrizko jarduera ugari egin dituzte, sistema produktiboari zein erreproduktiboari eusteko. Beste ezaugarri bat izan da esperientziak, sentipenak, iritziak eta lorpenak nagusiki ahoz transmititu dituztela, eta horrek ahuldu egin du emakumeen jardueren gaineko ezagutza eta balioespen soziala. Lehenago adierazi dugunez, emakume askok familiarekin baino ez dituzte partekatu beren bizipenak, eta beste askok erabaki dute ez zituztela espazio kolektibo batean edo proiektu zehatz honetarako kontatu nahi.

Aitzitik, gizonek, talde sozial gisa, botere eta prestigioko postuak askoz eskurago izan dituztenez, bitarteko gehiago eduki dituzte beren ekintzak erregistratzeko eta esperientzia maskulinoen memoria transmititzeko. Horrelakoak dira nagusi idatzi gehienetan, ohitura bilakatutako erritualetan eta haien oroigarri diren hiriko toki pribilegiatuetan (monumentuak, kale nagusien izenak, eraikinak, plazak…). Hala

bada, genero-hutsunea duen memoria eraiki da, eta hori ikusarazi eta hedatu da, memoria sozial bilakatu da, nahiz eta talde bakar baten esperientziak eta ekarpenak bakarrik jasotzen dituen, eta ez gizarte osoarenak.

Errenteriaren historiari dagokionez, Niessen lantegiarena izan daiteke adibide garbi bat. Ez dira gutxi enpresa horri buruzko idatziak, ezta haren bilakaerari buruz egindako azterketak ere, eta industria hori funtsezko erreferentzia da Errenterian, dagoeneko herrian kokatuta ez badago ere. Guillermo Niessen jabea da herriko ikur horri lotutako izen publikoa, eta oroimen kolektiboan ia desagertuta daude fabrika funtzionarazi zuten milaka emakumeak, baita Niessen familiako emakumeak ere, enpresan parte hartu zutenak, testu honek erakusten digun moduan:

> Detrás de un hombre de empresa es casi impensable que no haya una familia que lo respalde o una persona, generalmente una mujer, que desde la sombra colabora con eficacia en los proyectos del empresario. Desde el anonimato, o conocida su presencia por reducido círculo de allegados, este asesor extraordinario vela las armas de su señor, con humildad de escudero, y le advierte y orienta en esos escollos que en todo camino profesional se encuentran. (…)
>
> En el transcurso de estos 66 años de la vida de la empresa en que estuvo bajo el dominio de la familia Niessen, una mujer, Gerta, la hija mayor del empresario, trabajó durante 49 años al lado de su padre, primero, y después de su hermano Carlos, realizando una labor silenciosa, pero eficaz, marcando el matiz humano en las directrices de la empresa. Una biblioteca para los empleados, un comedor, asistencia módica, el reconocimiento y distinción del trabajador por una labor desarrollada con los años y tantas consideraciones que tanto en el plano social o personal recuerdan muchos de los renterianos que trabajaron en la empresa[190].

Anonimotasunean, “itzalpean”, isilik –eta baita isilpetuta ere–, enpresarien “atzean” ipinitako emakume asko ahaztuta geratu dira. Horrelako kontakizunekin, badirudi emakume horiek ekarpen txikiak egin dizkiotela beren komunitateetako bizitzari eta ekonomiari, Errenteriako merkataritzaren eta fabriken garapenari, kasu honetan. Egia da Niesseni buruzko beste erreportaje edo erakusketa batzuetan emakumeen presentzia ukaezina dela, grafikoki behintzat, enpresako argazki askotan ageri baitira emakumeak –eta normala zen hori, talde oso ugaria zirela kontuan hartuta–.

---

[190] OBESO, Antton: “Gerta Niessen”, *Oarso,* 34. zk., 1999, 55.-56. or.



Gerta Niessen, Guillermo Niessen eta bi langile 1920. urtean.
(Argazkia: Errenteriako Udal Artxiboa A006F012).

Nolanahi ere, oso gutxitan izan dira emakumezko langileak arretagune nagusia. Argi ikus dezakegu hori enpresaren historiari buruzko “Entxufe baten historia” erakusketan. *El Diario Vasco* egunkariaren hitzetan:

> La muestra reúne decenas de instantáneas, junto a carteles publicitarios, paisajes de la población y curiosos retazos de un pasado rescatado del olvido.
>
> El visitante tendrá la oportunidad de descubrir el proceso de fabricación de un enchufe a través de imágenes en las que aparecen inmortalizados obreros como Nilo Campo, Arantza Cobos, Mercedes Portugal, Ricardo Azkarate, Consuelo Gutiérrez y tantos y tantos habitantes de Oarsoaldea, vecinos anónimos que encontraron trabajo en esta fábrica.
>
> No falta el retrato de su fundador, con su esposa, Juana Schmidt; ni tampoco una recreación de lo que fue su particular imperio.

> La exposición recuerda que Guillermo Niessen era el único representante en España de baquelita, un material de gran durabilidad con el que pasó de fabricar objetos religiosos y ceniceros, entre otros enseres, a mecanismos electromecánicos de uso doméstico, como enchufes, interruptores, portalámparas y otros artículos similares[191].

Azpimarratzekoa da Gerta aipatu ere ez dutela egiten. Testu horretan, Carlos bakarrik aipatzen dute aita hil ostean enpresa aurrera atera zuen oinordeko gisa. Eta Arantza, Mercedes eta Consuelo langileak eta Juana Schmidt emaztea argazkietan ageri badira ere, publizitateko kartelen, herriko paisaien eta ahanzturatik ateratako iraganaren zati bitxien[192] ondoan ageri dira, oharrean ongi azalduta datorrenez; hau da, protagonismo txikia dute. Lantegiko langileak ez dira erakusketaren ardatza, eta helburua ez da, inolaz ere, emakumezko langileak nabarmentzea. Eta erakusketa hori adibide bat besterik ez da beste askoren artean. Ez da arraroa artikulu edo erakusketa batzuetan lehentasuna ematea produktuei, publizitateari, fabrikazio-prozesuei, enpresetako alderdi juridiko edo ekonomikoei eta akziodunen izen eta eginahalei, eta langileak ia aipatu ere ez egitea. Noiz edo noiz argazki batean edo enpresa bateko nominen erregistroan agertzea ez da nahikoa haiek ikusarazteko, ezagutzeko edo oroitzeko. Horrez gainera, testu gehienak gaztelaniazkoak izanik, langile guztiak izendatzeko erabiltzen den *obrero* hitz generikoak subsumitu egiten ditu emakumezko langileak, eta are zailagoa da horiek industrializazio-prozesuan izandako partaidetza eta ibilbidea ezagutzea.



Prentsatze Kontrola Aretoa 1955ean. Xabier Olaskoaga plazan egun garagardotegia denaren atzekaldean.
IX. Argazki erakusketaren "Errenteriako seme-alabak: Niessen (1951-1966). Entxufe baten istorioa" katalogoa. 2010eko uztailaren 15etik 30era Xenpelar Etxean egindako erakusketa.

[191] "Historia de un enchufe y más", *El Diario Vasco,* 10/07/20.

[192] *Ibidem.*

Saio batean, Errenteriaren historiari buruz argitaratutako materialetan edo argitalpenetan irudikatuta sentitzen ziren galdetu genien emakumeei, eta erantzun ziguten ez zirela oso irudikatuta sentitzen uste zutelako material horietan ez zirela behar bezainbeste islatzen zenbait gai, hala nola immigrazioarena:

> *Lanaz bai, lanaz asko hitz egin dute: herria halakoa izan dela, industria asko izan duela… Baina ez da islatu, adibidez, kanpoko jendea ere lanean aritu zela. Hemen ez zegoen industria hura mantentzeko behar adina jende. Eta esan egin behar da: etorri egin ginela, bai, baina hemen ez zegoela nahikoa jende lanerako, eta ongi etorri zitzaiela. Gu pozik, eta haiek ere bai* (gazt.).

Horrez gainera, adierazi dute pentsaezina dela emakumerik gabeko Errenteria industriala. Partaideen iritziz, emakumeek ez dute nahikoa presentzia historia idatzian eta erakusketetan[193], kaleen izenetan, ikurretan eta fabriken arteko bizitza oroitzen duten monumentuetan irudikatutako historian: "Badirudi historia gizonek bakarrik egin dutela, baina gu beti egon gara hor, borrokan eta lanean, askotan lehen lerroan, baina ez zaigu inoiz aitortu egindakoa" (gazt.). Eta baieztapen hau egin dute: "Garrantzitsua da ezagutzera ematea emakume askok lantegietan lan egin zutela, baina baita jendeak ezagutzen ez dituen edo gutxietsi egin izan diren ogibide eta lan askori buruz mintzatzea ere" (gazt).

*Aztarnez* hitz eginda, *oroimenerako tokiak eta tarteak* berreskuratu eta kokatu –edo sortu– ditzakegu, eta horien bidez, emakumeen iragan kolektiboa transmititu eta iraunarazi, baita taldeko identitatea eraiki eta berregituratu ere.

"Errenterian Olibet gailetak egiten zirelako eta ospe handia izan zutelako izan genuen gaileta-egile izengoitia errenteriarrok. Orain, ordea, ezin gaituzte ezerekin identifikatu. Zerekin identifikatuko gaituzte?" (gazt.); horra hor partaide baten galdera. Industriak eta merkataritzak Errenteriari ekarritako bizitasuna, harremanak eta kultura belaunaldi batzuen esperientziaren zati dira, eta belaunaldi horiek herriarekin lotuta izandako identitatearen zati. Errenteriar izateko, beharrezkoa da herriarekin identifikatuta sentitzea, herriaz harro egotea, herriaz gozatzea, herriari etekina ateratzea eta herria ezagutzea.

[193] Ziur asko emakumeek ikusitakoak baino material gehiago egongo dira argitaratuta herriko emakumeen historiari buruz. Haietako inor ez da historian aditua, eta baliteke ez ezagutzea literatura espezializatua edo bestelako baliabide batzuk. Nolanahi ere, itxuraz ezagutzen dituzten udal-argitalpen batzuetatik eta eskura dituzten beste bitarteko batzuetatik ateratako ondorioa da material horietan ez dutela behar besteko presentzia. Informaziorik ez dagoelako edo dagoena hedatu ez delako, talde guztien iritzia da emakumeek presentzia txikia, partziala edota desegokia dutela.



Fabril Lanera fabrika oroitzeko tximinia, gaur egun, Senidetutako herrien plaza. (Argazkia: Zaida Fernández).

Herriko funtsezko garai baten oroitzapenei aurpegia, gorputza, generoa, jatorria eta emozioa jartzeak garrantzitsua dirudi. Orain herriak ez du garai hartako indar industrialik, baina hura gure historiaren eta gure orainaren zati da. Izan ere, gaurko herriaren oinarriak haiexek izan ziren. Gaur egungo plazek eta etxeek garai bateko fabriken izenak hartu dituzte, haiek berreraikita egin dira, batzuetan. Eta gazteek plaza eta etxe horietan bizi dute beren identitatea; oroitzapen, hirigintza-arrasto, esperientzia, ohitura, jarduera sozial, ekonomiko eta politikoen sare horretan. Hori guztia nekez bereiz daiteke iraganetik.

Garrantzitsua da emakumeen oroimen kolektiboa berreskuratzea eta historian nahiz gizartearen oroimenean txertatzea, hori eginda bakarrik lortuko baitugu etorkizuneko belaunaldiei gure historia transmititzea. Miren Llona historialariaren hitzei erreferentzia eginez, gure ondarea, aldarrikapenak eta lorpenak berreskuratu eta iraganean egindako gauza garrantzitsu gisa transmititu nahi baditugu, ezinbestekoa da haiek jaso eta ezagutzera ematea[194].

Ildo horretan, funtsezkoa da emakumeek beren oroimena berriro adieraztea eta jasotzea, herrien historian izan duten presentziak, gauzatu dituzten borrokak eta erdietsi dituzten lorpen eztabaidaezinak bistakoak eta aitortuak izan daitezen.

194 *Jabetu* aldizkaria, Basauriko Udaleko Berdintasun Arloa, 2009.

## Emakumeen partaidetza eta oroitzeak duen garrantzia

Errenteriako zenbait emakumek modu aktiboan parte hartu dute ikerketa-prozesu honetan, garrantzitsutzat eta beharrezkotzat daukatelako beren oroimena eta herriaren historiari egindako ekarpenak berreskuratzea eta ikusaraztea, ez daitezen ahaztuta geratu:

> *Oso lan interesgarria eta beharrezkoa iruditu zitzaidanez, parte hartzea erabaki nuen. Uste dut garrantzitsua dela emakumeek herri honen alde egindako lana berreskuratzea eta ezagutzera ematea* (gazt.).
>
> *Historian, espazio guztietan, ematen du gizonek bakarrik lan egin dutela, dena haiek egin dutela, baina badakigu hori ez dela horrela izan, emakumeak ere hor egon garela. Eremu guztietan egon gara, baina emakumeen historia jasotzen ez bada eta ez bada kontatzen emakumeok herri honen alde egin dugun guztia, badirudi ez garela existitzen. Orain ari dira biltzen emakumeen ekarpen guztiak. Orain arte ikusezinak izan dira* (gazt.).
>
